



OLAKUA PUTZURIK GABEKO PARKEA IZANGO DA

Oñatin erreferentziakoa den eremurako prestatu duen proiektua aurkeztu du Udalak; lanak ekainerako amaitu nahi dituzte / 28



Oñatiko Udalak Olakua parkean egingo dituen aldaketak jasotzen dituen proiektua. IZARRAITZPE PAISAIALARITZA



Antolakuntzako Amaia Osa, Maddi Mujika eta Amaia Etxebarria, rokodromoan. I.A.

Bergarako emakume eskalatzailen topaketa egingo dute domekan / 22

Aretxabaletako Txino dantza berreskuratu zela 50 urte bete dira; erakusketa zabalduko dute / 14






Leintz Gatzagan martxan dituzte erabilera askotariko lokal berriko zerbitzuak / 19



"Gazteen artean kirol aniztasuna bermatu behar da" / 32

IÑAKI UGARTEBURU
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
KIROL ZUZENDARI OHIA

SINADURAK

 UNAI ETXENAUSIA / 6	 MIKEL ARROIABE IDIGORAS / 16
 JOSEBA EZPELETA / 9	 EIDER NAJERA / 21
 JESUS ARREGI BENGOA / 13	 ALAZNE JAUREGI ALKORTA / 25
	 MIKEL BAIÑ / 40



Nazioarteko adopzioak behera egin du

Elkarrizketa Asier Blas politologoari

Emisio Gutxiko Eremuak jartzen hasi dira hiriburuetan

Kutsadura murrizteko helburuarekin, auto batzuk ezin izango dira hiriburu eta eremu jakin batzuetara sartu. Hego Euskal Herrian ez ezik, Lapurdiko hainbat herritan ere hartuko dituzte neurriak, eta beste etiketa bat beharko da zirkulatzeko

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Debagoiendar askok inguruko hiriburu eta eremu jakin batzuetara joateko ohitura dute, erosketak egitera zein aisialdiko ekintzez gozatzeko. Hemendik aurrera, ordea, asko ezin izango dira hirien erdialdera autoarekin sartu, Emisio Gutxiko Eremuak direla eta. Izan ere, hasi dira Euskal Herrian ere eremu horiek indarrean sartzen; horien bidez, gehien kutsatzen duten ibilgailuek sarrera mugatua izango dute 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan. Hain zuzen, Euskal Herrian Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baiona hiriburu eta eremu egongo dira muga horiek, baita Getxon, Barakaldon eta Irunen ere. Bilbon, Iruñean eta Donostian eremu mugatuak martxan daude jada, eta gainontzeko lekuetan lanaketa egiten hasiak dira.

Baina nola jakin norberaren ibilgailua eremu mugatu eta sartzeko daitekeen edo ez? Ba, ibilgailu bakoitzak isurtzen duen kutsaduraren arabera, etiketa mota bat ezarriko zaio. Hego Euskal Herrian, Espainiako Trafiko Zuzendaritzak igortzen ditu etiketa horiek, eta online zein Correos-en bulegoetan eskatu daitezke, bost euro ordainduta. Hala ere, ez dute balio Ipar Euskal Herrira joateko. Kasu horretan, beste etiketa bat atera beharko da, Frantziako Gobernuak igortzen duena.

Hego Euskal Herrian bost ingurumen-etiketa mota daude, gehien kutsatzen dutenetatik kutsadura gutxien eragiten dutenetara: A etiketa, B etiketa, C etiketa, ECO etiketa, eta, azkenik, 0 etiketa. Horrez gain, hiri zein herri bakoitzak definituko du zein etiketak daukaten baimena mugatutako eremuetara sartzeko, eta zeintzuk diren mugatutako eremu horiek ere.



Auto bat, C motako etiketarekin. GOIENA

Bilbon, indarrean ekaina ezker
Bilbon, 2024ko ekainaren 15az geroztik dago indarrean Emisio Gutxiko Eremua. Sabino Arana etorbidea, Trenbideko etorbidea eta Autonomia, San Frantzisko eta Bailen kaleak hartzen ditu

bere barnean, hiriko itsasadarrean. Orduetara dauka: astelehenera ostiralera egoten da indarrean, 07:00etatik 20:00ak arte. Momentuz, etiketarik gabeko ibilgailuak dira debekatuak dauden bakarrak, baina, urte honetako ekainaren 15etik aurrera, B etiketa duten ibilgailuak ere ezin izango dira sartu.



Hala ere, Nora Abeto Mugikortasun zinegotziak GOIENARI adierazi dio badaudela salbuespenak, eta kasu batzuetan, gainera, luzamenduak ere egingo dituztela: "Parking publiko batera sartzeko aukera, esaterako, badago. Edo medikuarenera joan behar baduzu, baimena eskatu daiteke, Bilbo EGE izeneko aplikazioaren bidez. Hala ere, zehaztutako kasu berezietarako dago pentsatuta aukera hori". Arauak betetzen ez dituztenak detektatzeko ere badauzkate kontrol-mekanismoak, Abetoren arabera: "Matrikula-irakurgailu batzuk jarri ditugu, eta horien bidez badakigu zein auto sartu den, noiz irten den, baita aparkaleku batean sartu den edo ez". Bilbon hasiak dira jada isunak jartzen; 200 eurorainokoak izan daitezke. Gaiaren inguruan informazioa eskatzeko bulego bat ere zabaldu dute, eta hau da bertako telefonoa: 94 644 54 12.

Donostian, jarri berri

Donostian jada indarrean dago hiriarren erdialdea eta alde zaharra hartzen duen IGE Emisio Gutxiko Eremua, urtarrilaren 13a ezker. Hala, hasiera eman diote 2027ra arte iraungo duen lehen faseari. Gaur egun, ingurumen-etiketarik ez duten ibilgailuak ezingo dira eremu horietan sartu, salbuesita egon ezean. IGERen sarreran, abisuzko seinaleak daude, non hasten den adierazten dutenak, eta sarbide horietan daude matrikulak irakurtzeko baliatzen dituzten kamerak ere. Kamera horiek automatikoki detektatzen dute ea autoek IGEN sartzeko baimena duten, eta, hala ez bada, 200 eurorainoko isunak jarri ditzakete.

Hala ere, Olatz Yarza Mugikortasun zinegotziak GOIENARI adierazi dionez, abendu erdialdea ezker ari dira matrikula-irakurgailuak probatzen, eta, oraingoz, eremura sartzeko diren autoen %5 baino ez dira

Debagoiengan, momentuz, ez

Debagoiengan Arrasate da populazio handieneko herria eta gaur egun ez dauka Emisio Gutxiko Eremuak jartzeko derrigortasunik. Hala ere, 25.000 biztanle baino gehiago eta kutsadura maila handia duten herrietan ere jarri beharko dute etorkizunean. Dena den, hasiera batean aurreikusten zen lege berriak 20.000 biztanle baino gehiago dituzten eta kutsadura


maila handia duten herrietan ere derrigortasuna jartzea eremuak ezartzeko.

Hori kontuan hartuta, Udaleko Mugikortasun Sailak jada eginda dauka eremuon plangintzaren aurreikuspen bat, Garazi Etxeberria Mugikortasun zinegotziak azaldu duenez: "Alde Zaharra barruan egongo litzateke, eta erdiko kaleetara ere zabalduko litzateke eremua".

Autoen sartu-irtena kontrolatzera begira ere aurreikusten dituzte neurriak: "Partida bat zabaldu dugu aurten, gaur egun ere mugatuta dagoen alde zaharreko sarrera kontrolatzeko, kamera batzuen bitartez. Ez dira kamera arruntak; matrikulen informazioa irakurri dezakete, eta baimenik ote duten egiaztatze ere baliagarriak dira. Gailu horiek

balioko lukete Emisio Gutxituko Eremuak ezarriko balira ere". Hala ere, Etxeberriak azaldu du etorkizunean muga 20.000 biztanleko herrietara jaitsiko balitz ere kutsadura jaisteko neurrietan lanean dabiltzala, eremuok jartzea derrigorra izan ez dadin: "Espero dugu etorkizunean beharrik ez egotea horrelako eremu bat izendatzeko, baina, legeak derrigortuko bagintu, aurrelanketa bat, behintzat, eginda daukagu".

Emisio Gutxiko Eremua Bilbon



etiketarik gabe sartu. "Oraingoz, araua hausten duten gidariak informazio-jakinazpenak jasoko dituzte. Martxoaren 14tik aurrera, ordea, isunak jartzen hasiko gara", adierazi du Yarzak. Bigarren fasea 2028tik aurrera hasiko da, eta, aldi horretan, B etiketa duten ibilgailuak ere ezin izango dira sartu zehaztu-

tako eremuetan. Donostian IGE-ren inguruan zalantzak argitzeko bulego bat ere zabaldu dute, eta hau da bertako telefonoa: 010 - 943 48 10 00.

Bestalde, bai Donostiako Udalak bai Bilbokoak IGEren inguruko webguneak dituzte eta bertan aukera ematen dute autoaren matrikula sartu eta ibil-

gailua eremu mugatuan sartu daitekeen edo ez argitzeko.

Gasteizera ere badator

Emisio Gutxiko Eremua indarrean jarriko duen hurrengo euskal hiriburua izango da. Hain zuzen, Udalak aurreikusten du martxoan onartuko dela, gutxi gorabehera, eremuak arautzen dituen ordenantza. Hemen ere, epeka egingo da eremuen ezarpena. Indarrean sartzen den unetik, hiru hilabeteko epea irekiko da bertara sartu nahi dutenen erregistroa osatzeko, eta, ondoren, hiru hilabeteko egokitzapen aldia hasiko da.

Uda ostean, ordea, isunak jartzen hasiko dira. Lehen fasea hasiko da momentu horretan, eta bertan Erdi Aroko hirigunea zein Zabalguneko zati bat mugatuko dira, eta soilik egoiliarrak zein bestelako baimenak dituztenak sartu ahaliko dira eremu horretara. Bigarren fasean, 2027tik aurrera, debekatuta egongo da hirigunera ingurumen-etiketarik ez duten ibilgailuak sartzea, eta, 2030etik aurrera, B etiketadunak ere ezingo dira sartu. Hala ere, egongo dira ere-

mura sartzea baimenduta edukiko duten salbuespen batzuk. Horiek Gasteizeko Udalaren webgunean kontsultatu daitezke, baita Herritarren Postontziaren bidez ere.

Lapurdi eta Iruñea

Iruñea eta Lapurdi urrunago geratzen dira Debagoienetik, baina horietan ere badaude kontuan hartu beharreko neurriak. Iruñea, hain zuzen, Euskal Herrian neurri horiek jarri zituen lehen hiriburua izan zen. 2023a ezker, alde zaharrean baimendutako

200 EURO ARTEKO ISUNAK JARRI DITZAKETE

IPARRALDEAN, EREMUAK HAINBAT HERRI HARTUKO DITU

MATRIKULA-IRAKURGAILUAK ERABILIKO DITUZTE

ibilgailuak soilik sartu daitezke, baina ez da ingurumen-irizpideen arabera jarritako neurria. Irizpide horiek oraintxe ari da lantzen Udala, eta laster argitaratzea espero da.

Lapurdin, ordea, ez dute Hego Euskal Herrian erabilitako formula baliatu. Ibilgailu kutsatzaileen zirkulazioa hirien erdialdean edo eremu jakin batzuetan mugatu beharrean, Hendaiaetik Baionaraino izango da ibilgailu horientzat zirkulazio debekua. Beraz, bederatzi herritan egongo da zirkulazio mugatuta: Hendaian, Urruñan, Ziburun, Donibane-Lohizunen, Getarian, Bidarten, Biarritzen, Angelun eta Baionan.

Derrigorra izango da eremu osoan etiketa jarrita dagoela zirkulatzea, eta, esan bezala, Hego Euskal Herrian atera beharreko etiketak ez du balio. Ipar Euskal Herriko balio duen etiketa ateratzeko, Frantziako Gobernuak zabaldu duen webgunera jo beharra dago: www.certificatair.gouv.fr atarira. 4,91 euro balio du. Apirilaren 1etik aurrera egongo dira martxan murrizketak.

Adam, Errenteria
24/11/18 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero
sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko
lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.



Joxu Arana, Nerea Madariaga, Gorka Lazkano eta Xabi Bastida. S.L.

Miguel Altunak lanean ere euskara du eredu

Lanbide Heziketa euskalduntzeko egindako lanagatik Euskararen Urrezko Bikain Ziurtagiria jaso du Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroak. Euskararen erabileraren aitortza hori egindako eta egiten ari diren lanaren emaitza da

Sara Lanz Azpiazu BERGARA

Lanbide Heziketa euskalduntzeko egindako lanagatik, Euskararen Urrezko Bikain Ziurtagiria jaso du Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroak. Joxu Aranak, Miguel Altuna ikastetxeko zuzendariak, adierazi du euskararen erabileraren aitortza hori "urte askoan eta langile askok egindako lanaren bidean mugarri bat" izan dela. 2016an Zilarrezko Bikain Ziurtagiria jaso zuten, eta aurten urrezkoa jaso dute.

Ez dira Lanbide Heziketa zentro asko sari horrekin EAEn: Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak (2013) eta Lea Artibai Ikastetxeak (2018) lehenengo,

eta Miguel Altunak orain (2024).

Horrelako errekonozimendu bat jasotzeko aurrera begira lanean jarraitzeko "indarra" ematen duela esan du Aranak.

Ikastetxeko egoera soziolinguistikoaz hitz egiterako orduan, "gizartean dagoen errealitatearen isla" dela azaldu du Nerea Madariagak, hizkuntza normalizazio proiektuko kideak. Horregatik, ikastetxean euskara sustatzeko hainbat erronka martxan dituzte: sentsibilizazio-kanpainak, lehiaketak, Euskararen Eguna, euskararen inguruko ekimenak eta abar. Horrekin batera, herriko euskaltegiarekin koordinatuz euskara eskolak ematen dituzte arratsaldeetan.

Euskalduntzeko bidea

Euskararen ikuspuntutik begiratuta, Miguel Altunak bailarako eta bailatik kanpoko hainbat enpresarekin du hartu-emana, eta harreman horren %80 bat euskaraz izaten da. Ikastetxeak badauka lehen eta azken hitza euskaraz egiteko sistematika. Gorka Lazkano da enprekin harremanetarako pertsona, eta horrek sarian izan duen eragina aipatzekoa dela nabarmendu nahi izan du.

Xabi Bastidak, hizkuntza normalizazioko kideak, azpimarratu du erronkak behar bezala betetzen jarraituz gero emaitzak epe laburrean jaso ahal izango dituztela.

"Harrera-familiak behar dira Saharako haurrendako"

LAIDA BENGEOA OPORRAK BAKEAN PROGRAMAKO KIDEA
Martxoaren 15era arte dago zabalik izen-ematea

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Urtero bezala, Oporrak Bakean programak Saharako haurrei uda Euskal Herrian igarotzeko aukera eskaintzen die. Ekimen horren helburua da haurrei atsedenaldira ematea, osasun-arreta bermatzea eta elikadura egokia eskaintzea. Aurten, Debagoiengan sei familia prest daude jada –bost Oñatin eta bat Bergaran–, baina oraindik harrera-familia gehiago behar dira. Laida Bengoa, programako harrera-gurasoa eta Oñatiko arduraduna, jendea parte hartze-ara animatu nahi du.

Interesa duenak nora jo behar du?

Informazioa jaso nahi duena lasai jar daiteke gurekin harremanetan; bi bide dituzte: Oporrak Bakean ekimen orokorrek harremanetan jartzea edo nirekin zuzenean.

Noiz bukatzen da izen-ematea?

Izena emateko garaia martxoaren 15era arte dago zabalik; oraindik badago denbora.

Garrantzitsua da informazioa jasotzea eta zalantzak argitzea?

Bai, noski. Lasai asko deitu dezakete; lehen pausoa informatzea da, eta zalantzak argitzea. Askotan, kafe bat hartuz lasai hitz egiten dugu, gauzak lasai azalduz. Beti daude zalantza eta beldur asko.

Zer da zuretzat horrelako programa batean parte hartzea?

Azkenean, bertako haur bati hango beroetatik irteten laguntzen diozu. Opor polit batzuk eskaintzeaz gain, mediku azter-



Laida Bengoa, Oñatin. GOIENA

ketak, jaki aldetik hemen gabeziak ekiditea... Horrekin batera, gizarte bat zer den ere erakusten zaie, kultura bat ezagutzen dute. Gainera, euren errealitatea zabaltzea edo ezagutzera ematea ahalbidetzen da; nik horri esker sakon ezagutu ahal izan dut Saharako herria.

Lehenengo urteetan zein izan daiteke erronka handiena?

Egoera bera ondo egotea; hasieran, normala da haurra triste edo beldurtuta egotea. Baina,aldi berean, oso polita da nola egokitzen den ikustea.

Nola azalduko zenituzke programak dituen onurak?

Esperientzia aberasgarria da; horri esker haurrek opor duinak pasa ditzakete, guretzat ere bizi aparta baita. Aukera paregabea da elkartasunaren bidez Saharako haurren bizitzan aldatzea positiboan egiteko.

Industria-politika "proaktiboa" aldarrikatu du Iriartek Bergaran

EH Bilduko ordezkaria ehun industrialeko eragileekin abiatutako bilera-txanden baitan izan da bailaran

L.Z.L. BERGARA

Gipuzkoako ehun industriale osatzen duten eragileak entzuteko bilera-txanda abiatu du EH Bilduk, eta Bergaran izan zen atzo Gipuzkoako bozeramaile Maddalen Iriarte. "Ekonomiaren

inguruan azken hilabeteotan ezagutzera eman diren hainbat txosten eta adierazpenek kezkarako zantzu batzuk utzi dituzte. Begirada zabaldu egin behar dugula uste dugu, eta horrela koetan garrantzitsua da egune-

ro ari direnei galdetzea", esan zuen ordezkari politikoa.

EH Bilduren ustez, ez da autokonplazentziarako garaia, eta politika industrial proaktiboa egin behar dela aldarrikatu du Iriartek: "Eskualde honetan lan oso garrantzitsua egiten da; gaur, Bergaran lanean ari diren eragileekin elkartu gara, eta lehen eskuko informazioa jaso dugu".

EH Bilduko Gipuzkoako bozeramaileak azpimarratu du lurraldearen egoera ez dela "katakastrofiko", baina esan du



Maddalen Iriarte, atzo, Bergaran. G.A

etorkizuna ziurtatzeko eta garaiko erronken aurrean eraldaketa sakonak egin behar direla: "Ezinbestekoa da politika industrial proaktiboa egitea, eta ehun industrialaren sustapena egitea".

Bilerak bailara guztietan

EH Bilduren helburua da herrialdeko eskualde guztietan egotea "neurri, espezializazio eta askotariko izaera duten eragileengandik lehen eskuko informazioa jasotzeko". Bilerak egingo dituzte bailara guztietan.



ikastolenelkartea



ikastola
biharko herria eraikitzen



Aurrematrikula

Otsailak 3 - 14





ZABALIK

UNAI ETXENASIA

Zoriontasuna eta existentzia

Giza existentziaren zentzua izan da filosofiaren muina mendeetan zehar, eta bizitzaren helburuaren eta zoriontasunaren bilaketaren inguruko galderak eragin ditu. Zoriontasuna, askotan, giza bizitzaren helburu nagusi bezala aurkeztu da, baina posible al da benetan zoriontsu izatea? Zoriontasunaren definizioa gizartearen, kulturaren eta historiaren arabera aldatzen da.

Aristotelesek *eudaimonia* izendatu zuen zoriontasuna, bertuteen bidez bizitzan betetasuna lortzea, eta plazer hutsa baino zerbait gehiago zela uste zuen. Bizitza oso bat burutzeko zen harentzat zoriona, non pertsonak bere potentzial osoa lortzen duen.

Orduan, berriro sortzen da galdera: zer da benetan zoriontasuna? Bizitzaren zentzuak, batzuetan, ez du erantzun

EZ GARA HAIN GARRANTZITSUAK, KASUALITATEZ GAUDE HEMEN, ETA HORI OSPATU BEHAR DA

oinarritzea planteatzen dute. Horien arabera, benetako zoriontasuna ez da beti helburu nagusia, baizik eta nork bere existentziaren zentzua aurkitu behar du, besteen ongizatearekin eta bizitzaren ulermen sakonarekin lotuta.

Ez dira filosofoen artean ados jartzen, ez dut nik teoria bat idatziko: ez naiz hain harroa. Suposatzen dut denetarik behar dugula gizakiok, eta norbanako bakoitzak bere konplexutasunean. Norbaitek beharko du babesten duen inguru bat, besteak fedea, eta azkenak ez du ezta horretan pentsatuko ere. Dena den, nik neuk bai uste dut existentziaren eta zoriontasunaren zentzua ez dela gauza bakarrera mugatzen, baizik eta bizipenean bertan, kontzientzian eta benetako giza loturan datza.

Ez gara hain garrantzitsuak, kasualitatez gaude hemen, eta hori ospatu behar da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Aroztegia

MAIDER GALARDI F. AGIRRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/JIBMN](https://labur.eus/jibmn)

Periodikoa irakurtzen duenak badaki aurreko astean zutabegile batek baino gehiagok aipatu genuela Angela Davisek Lur planetako itxaropentsuoi egin zigula deia ingurura begiratzeko eta baieztatzeko inbestidura bat baino gauza interesgarri gehiago gertatzen ari dela orain momentuan han eta hemengo munduko zokoetan. Baliagarria izango zaigu, halaber, han eta hemengo zokoak begiz jota izatea, noizbait norabait ihes egin behar badugu nora joan jakiteko. Etxe Zuriari nola,

azken boladan sare sozial *mainstream*-ei homofobia, faxismoa, negozio ilunen airea eta misoginia usain jasangaitza darie, eta zortea dugu gutako askok ihesbidea badugulako, mundu erreala bezain egiazkoa den mundu birtual horren oldarkortasunetik ihesi. Ezkutaketa jolasa algoritmoen basoetan.

Eta hezur-haragizko ihesaldiak abiatu behar baditugu? Irudikatu al duzu zure babeslekua? Non dago zure basoa? Imajinatu al duzu Davisen esperantzaren diziplinari heltzen dion leku hori, herria duintasunez altxatzen dena, berea defendatzen duena, babesgune bat dena ekosistema osatzen

dugun elementu guztiontzako. Arnasgune bat euskararentzako. Leku seguru bat etsaitasunez betetako mundu honetan iraun ahal izateko. Ihesbide baino bizitoki dena (jada) askorentzat. Aroztegia izan daiteke horietako bat, eta hain ongi dakite hori, ezen suntsitu nahi baitute luxuzko *resort* erraldoi bat eraikitzeke, eta bizitzaren aldeko militanteak ito nahi dituzte espetxe zigor eta isun ekonomikoekin. Ez gaitzezen gu begira geratu, gero eta leku seguru gutxiago geratuko baitzaizkigu han eta hemen, eta, bere txikian, inbestidura batek baino inpaktu gehiago izango baitu gurean Baztan aldean gertatzen ari denak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
 Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria
 Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantzabal.
Eduki zuzendari
 Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube,
 Larratiz Zeberio.

Zuzendari komertziala
 Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendari
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
 Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
 Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
 Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
 Amaia Mundiñano.

Administrazioa
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA



Adak Mendoza, Arrasaten. JONE ARRUABARRENA

"Nikaraguako iraultzak asko markatu dit bizitza"

ADAK MENDOZA

Jone Arruabarrena ARAMAIO Adak Mendoza (Chinandega, Nikaragua, 1983) Nikaraguakoa da berez, baina Hego Amerikako hainbat herrialdetan bizi izan da Euskal Herrira etorri aurretik; mediku lanak egin ditu Amazoniako oihanean zein Haitiko lurrikaran, besteak beste. Hamarkada bat darama Aramaion bizi izaten. **Zer duzu gustuko Nikaraguatik?** Nire herrialdetik gehien gustatzen zaidana borrokarako daukan kemena da. Bestalde, asko gustatzen zait jendeak maitasuna adierazteko duen erraztasuna: besarkadak ematekoa, elkar maitatzekoa... **Hautzaroan nola eragin zizun Nikaraguak bizi zuen gatazkak?** Iraultzak asko markatu dit bizitza. Nire familia oso iraultzailea izan da beti, oso ezkertiarra; gerrillariak izan

dira asko. Ama gerrillako buruzagi militar garrantzitsua izan zen; gerrillaria izan zen 12 urte zituenetik, eta 10 urte nituenean ezagutu nuen. Aita, berriz, 14 urte nituela, gerraosteko egoera zela eta. Amonak hazi ninduen. Gure familiak baliabideak bazituen, baina gose eta miseria handia zegoen. **Nola aldatu zitzaizun bizitza liberalek agintea hartu zutenean?** Gogoan dut 80ko hamarkadan, umea nintzela, gaueko hamabiak arte egon nintekeela kalean, lasai asko. Nire amona ez zen kezkatzen. Batzuetan, motxila hartzen nuen, eta kilometroak egiten nituen bakarrik. Eta jendeak etxera eramaten ninduen gero, ezagutzen ninduelako. Baina liberalismoa sartu zenean, segurtasunik eza ere iritsi zen: prostituzioa, zorrak, hiperkontsumoa, El

Salvadortik, Hondurastik eta Guatemalatik etorritako gaizkile-taldeak... **Zer ikasketa egin zenituen?** Beka bat lortu nuen, eta Kubara joan nintzen, Medikuntza ikastera. Han egon nintzen zortzi urtez. Gero, Nikaraguako urrutiko eremu batean ibili nintzen mediku lanetan. **Zer egin zenuen gero?** Hondurasko iraultza hasi zenean, Erresistentzia Popularreko Fronte Nazionala babestera joan nintzen hara, estatu kolpea eman zutenean. Herria babestera joan nintzen, martxetan parte hartuz.

"MUGIMENDU SOZIALEN BURUZAGIAK ARTATZEN GENITUEN OSPITALE BATEAN"

Hala ere, laster irten behar izan nuen, Hondurasko armadako polizia jarraika hasi zitzaidalako. Mugimendu sozialen buruzagiak artatzen genituen ospitale batean; ospitale arruntetara joaten baziren, atxilotu egiten zituzten. Ondoren, Haitira joan nintzen.

Zer egin zenuen Haitin?

Haitiko lurrikara izan zen garai hartan, eta han laguntzen ibili nintzen, bi urtez. Kolera ere agertu zen garai hartan Haitin, eta lankide kolonbiar bat eta biok izan ginen gaixotasun hori Haitin diagnostikatzen lehenak. Horren ondoren, Argentinara joan nintzen, eremu gatazkatsuetan bizi ziren gazteei arreta ematera. Amazonian ere izan nintzen lanean, eta Ekuadorren gero; beti laguntza humanitarioaren baitan. Han ezagutu nuen gerora nire bikotekidea izango zen neska euskaldun bat.

Harekin etorri zinen Euskal Herrira?

Lehenengo, El Salvadorrera joan nintzen denbora batez, eta gero, Nikaraguara. Nikaraguan urtebete egin genuen batera, eta, azkenean, Euskal Herrira etortzea erabaki genuen.

Nolakoak izan ziren zure lehen hilabeteak Euskal Herrian?

2014 inguruan iritsi nintzen hona, eta gaixorik zegoen gizon bat zaintzen ibili nintzen lehenengo hilabeteetan, paperak egin bitartean. Elkar asko maite genuen arren, ez genuen ezkondu nahi, baina egin behar izan genuen, paperak lortu eta mediku lan egin ahal izateko. Azkenean, mediku titulua baliozkotu egin zidaten, eta DYAn lan egiten hasi nintzen. Nire lehenengo soldata hemen izan nuen, ordura arte boluntario egiten bainuen lan. Mantenuerako beharrezkoak ziren baliabideak ematen

"AMAZONIAN ETA EKUADORREN IZAN NINTZEN LANEAN, LAGUNTZA HUMANITARIOAN"

zizkidaten, normalean, boluntario lanetan. Baina pozik bizi nintzen; beharrezkoa zen guztia neukan, eta lagun asko. Ez nuen gehiagorik behar. **Asko bidaiatu izan duzu Hego Amerikan zehar; nolakoak izan zen aldaketa Europara iristean?** Aldaketa handia izan zen. Gogoan dut oporretara etorri nintzela lehenengo, Bartzelonara, lagun baten etxera. Haren bizilagun batekin elkartu ginen atartean, eta nor zen galdetu nion. Erantzun zidan ez zekiela, duela bost urtetik haren aurrean bizi zen arren. Asko harritu ninduen, hori Hego Amerikan gertatzea pentsaezina da eta.

Euskaldunak: elkartasuna eta zintzotasuna, bertute nagusiak

Euskaldunei dagokinez, harritu egin zuen Mendoza maitasuna adierazteko moduak: "Niretzako, arraroa zen hasieran jendeari besarkadarik ez ematea, Nikaraguan guztiz ohikoa delako". Hala ere, uste du euskaldunak "oso leialak" direla: "Zailagoa da hemen lagunak egitea, baina, behin euskaldun baten laguna eginda, oso lotura estua eta leiala sortzen da. Gainera, gehien gustatzen zaidan gauzetako bat euskaldunen zintzotasuna da, batzuetan mingarria egin zaidan arren". Bestalde, euskara mantentzeko euskaldunek egindako lana miresten du hark: "Nire herrialdean, adibidez, nahuat eta subtiaba izeneko gure hizkuntzak galdu egin ditugu, eta euskara bizirik mantendu dute, izan dituzten oztupo handien gainetik". Azkenik, euskaldunek beste herrialde batzuekiko daukaten elkartasuna azpimarratu du: "Gauza handia da".

Ekainera arteko ekintzak prest Emakume Txokoan

Hamaika ikastaro, bi tailer eta gune iraunkorrak egongo dira otsailetik ekainera arte, "emakumeen ahalduntze prozesuak, sareak eta begirada eta hausnarketa feministak sustatzeko"; Jabetze Eskolako izen-ematea otsailaren 3tik 7ra egongo da zabalik

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Emakume Txokoak otsailetik ekainera arteko egitaraua aurkeztu du; Jabetze Eskolako ikastaroek, tailerrek eta topaguneek osatzen dute. Horien bitartez, emakumeen ahalduntze prozesuak, sareak eta begirada eta hausnarketa feministak sustatu gura dituzte. "Horretarako, Jabetze Eskolako proposamenetan nagusi izango dira elkar zaintza, ahizpatasuna eta konfiantzazko giroa", diote Emakume Txokokoek.

Era berean, prestakuntza eta topaguneak eskaintzen ditu Jabetze Eskolak, "emakumeon* askotariko errealitate eta zapalkuntzak abiapuntu bezala hartuta, horiei erreparatzeko eta elkarrekin ahaldundu eta eragiteko aukerak lantzeko".

Hainbat esparrutan adituak diren formatzaileek ikuspegi feministatik lan egingo dute, "genero aginduek eta botere harremanek emakumeengan* sortzen dituzten indarkeriaz eta zapalkuntzez ohartzeko, eragiten dizkiguten ondorez lantzeko eta eraldaketarako bide kolektiboak urratzeko". Horrekin batera, diote, emakumeen* autonomia eta parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko helburuarekin lan egingo dutela.

Askotariko ikastaroak dituzte

Ikastaroei dagokienez, gorpuzaren eta osasunaren lanketarako, esaterako, dantza, txi

kunga, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, gorputz eta sexu ahalduntzerako ikastaroa eta beste-lakoak egingo dituzte.

Norberaren zaintza emozionalerako ikastaroek eta sormen tailerrek, halaber, emozioak kudeatzeko tresnak eskainiko dituzte. "Jendaurrean hitz egiteko tekniken ikastaroak eta kantuan aritzeko ikastaroak, tresnak emango dizkigute gure ahotsa indartzeko, lotsari eta beldurrei aurre egiteko eta dagokigun espazioa hartzeko eta disfrutatzeko".

Sendabelarren ikastaroan eta eskalada ikastaroetan autonomia sustatzeko tresnak lortuko dituzte parte-hartzaileek, antolatzailen esanetan. "Jakintzak eta hausnarketak partekatuko ditugu eta elkarrekin ikasiko dugu. Irrintzia ere praktikatuko dugu eta eskalada gorputz agertoki komun eta askotariko gisa lantzeko aukerak izango ditugu". Horrez gain, emakume migratuen topagunea eta irakurketa feministaren gunea ere egongo dira. "Horiek garrantzi berezia dute eskolaren baitan, aukera eskaintzen baitute gune

HAINBAT ESPARRUTAN ADITUAK DIREN FORMATZAILEAK ARIKO DIRA LANEAN, FEMINISMOTIK

iraunkor bezala lan egiteko eta arnas luzeko lanketak egiteko", diote.

Izena emateko, hainbat bide

Jabetze Eskolan izena emateko epea otsailaren 3tik 7ra izango da, eta hainbat bide daude horretarako: Emakume Txokora bertara joanda, emakumetxokoa@arrasate.eus helbidera idatzita, 943 79 41 39 telefono-zenbakira deituta edota 618 20 62 33 zenbakira idatzita.

Antzerkia, filmak, hitzaldiak...

"Genealogia feminista egiteko eta hausnarketa kolektibo feminista eragiteko", hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte; besteak beste, zinema-emanaldiak, antzerki-emanaldiak, hitzaldi-solasaldiak, errezitaldiak eta liburu-aurkezpenak.

Irrintzi eta *Euskal emakumeak* film laburren emanaldiarekin hasiko dute egitaraua, otsailaren 26an, Kulturaten. "Mirentxu Loyarte zinemagilearen lana berrikusi eta genealogia feminista ariketa bat egingo dugu, Arantza Santesteban zinemagile eta zinema adituak dinamizatuta".

Era berean, Martxoaren 8arekin bat egiteaz gain, *Emakumeak protagonista* solasaldia berreskuratu dute apirilean, Bea Egizabalen eskutik, eta Maialen Lujanbioren *rr* errezitaldia izango da hurrengo hitzordua, maiatzaren 15ean.

Herribusean pintaketak egin izana deitoratu du Udalak

Bizikidetzaren batzordeak adierazpen bateratua kaleratu du, joan den astean egin zituzten ekintzak gaitzesteko

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udaleko Bizikidetzaren batzordeak adierazpen bateratua kaleratu du, joan den astean "aurpegia estalita zeramatzen gazte batzuek" egindakoa gaitzesteko. "Aldarrikapenak zilegiak izan badaitezke ere, moduak ez dira onargarriak", adierazi du batzordeak. "Aurpegia estalita zeramatzen gazte horiek Arrasateko herribusa geldiarazi zuten, barnean bidaiariak zeudela. Autobusa geldituta eduki zuten, kanpoaldean euren aldarrikapena jasotzen zuen pintaketa egin

bitartean", azpimarratu du. "Gertakari horien aurrean, adierazi nahi dugu ez gaudela ados moduekin. Bide batez, gertakari horiek zuzenean bizi izan zituzten udal zerbitzuko langile eta herritarrei gure babes guztia helarazi nahi diegu". Azkenik, zera zehaztu du batzordeak: "Gure konpromisoa elkarbizitza osasuntsu eta positibo baten alde lan egitea da. Adierazpen askatasuna defendatzen badugu ere, eskubide hori herritar guztien arteko elkarbizitza ahalbidetzen duen bideetatik garatu beharra dago".



Herribusa, pintaketekin. GOIENA

Musakolan, Erguinen eta Txaetan izango da ludoteka ibiltaria

Bihar, zapatua, abiatuko dute ludoteka ibiltaria, urtero moduan, Musakolan. Institutuko patioan egingo dute, 11:30etik 13:30era, eta ludoteka zerbitzuaz gozatzeko aukera izango dute 3 eta 12 urteko haurrek, baita haien guraso edo arduradunek ere. Horretarako, Txatxilipurdiko hezitzaileak egongo dira, eta "askatasunez jolas egiteko

gune" gisa deskribatu dute egitasmoa antolatzaileek.

Ekintzei dagokienez, parte-hartzaileekin adostutakoak izango dira, eta euskaraz. "Aisialdi hezitzaile euskaldunaz gozatzeko aukera paregabea da ludoteka ibiltaria. Sormena garatzea, harremanak egitea, parte-hartzea sustatzea, naturarekin harremanak eta beste hainbat helburu hezitzaile ditu egitasmoak".

Aurtengo berrikuntza da San Andresen ordeztu izango den Txetaen izango dela zerbitzua (Ikus Goiena.eus).

Aurretiazko doluz ariko dira Kulturaten martitzenean

Amaitasun elkartearen eskutik, *Aurretiazko dolua* hitzaldia egingo dute Maite Urzainek eta Iñaki Olaldek otsailaren 4an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan. "Pertsona hil baino lehen egiten dugun dolua da. Pertsona hori gurekin egon daiteke, baina harekin geneukan harremana ez; adibidez, Alzheimerren kasuan", dio Urzainek.

Sinadurak batzen ari dira, pentsio duinak bermatzeko eskatzeko

Arrasateko Pentsiodunen Mugimendua sinadurak batzen ari da egun hauetan, herritar guztiek pentsio duinak bermatuta izan ditzaten. Joan den astean, Portaloian eta Arimazubi plazan egon ziren, besteak beste, eta aste honetan, Etxaluzen. Halaber, ohi moduan, datorren astelehenean, otsailak 3, Herriko Plazan elkartzeko dira, 12:00etan.



Maitena Monroyekin egindako saioa, Emakume Txokoak antolatuta. GOIENA

Gurasoentzako tailerrak, hezkuntza ardatz hartuta

Gurasoen hezkuntza-lanari babesa emateko helburuarekin, haien seme-alaben heziketaren inguruan zenbait tailer egingo dituzte, otsailean hasita; seme-alaben adinaren arabera, gai ezberdinak landuko dituzte, adituekin. Izena eman daiteke jada

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Gurasoentzako tailerrak antolatatu ditu Udalak, helburu nagusi batekin: "Gurasoekin seme-alaben heziketaren inguruan hausnartzea eta gurasoei egunero-kotasunean sortzen zaizkien kezka eta zailtasunak partekatzeko guneak eskaintzea".

0 eta 2 urte arteko seme-alabak dituztenentzat, haziera eta haur masaje tailerra egingo dute, haurraren jarrerak ulertzeko eta guraso moduan nola hobetu ikasteko, otsailaren 12an hasita, Itziar Rosadoren eta Jon Urdinetaren eskutik. Lau saio egingo dituzte, eguaztenetan, Txiki-txokoa, 10:00etatik 11:30era, haurraren garapena ezagutzeko edota gurasoen eta haurren arteko harreman eta loturak aztertzeko.

2 eta 6 urte arteko seme-alabak dituztenentzat, bizipen tailerrak izango dira Arizmendi Ikastolako Olarte gunean zein Arrasate Herri Eskolaren Erguin gunean. Olarte guneari dago-kionez, otsailaren 5ean, martxoaren 5ean, apirilaren 2an eta maiatzaren 14an izango dira saioak, 17:00etatik 19:00etara. Erguinen, aldiz, otsailaren 12an, martxoaren 12an, apirilaren 9an eta maiatzaren 21ean, horiek ere 17:00etatik 19:00etara. Saio



Leyre Cano psikopedagoak dinamizatuko du tailerretako bat. GOIENA

horiek guztiak Itziar Rosadok dinamizatuko ditu.

Era berean, 6 eta 11 urte arteko seme-alabak dituztenekin guraso abileziak garatzeko trebakuntza praktikoa egingo dute, Kulturateko Garibai gelan, 17:30etik 19:30era. Sei saio egingo dituzte: otsailaren 20an eta 27an; martxoaren 20an eta 27an; apirilaren 10ean eta maiatzaren 15ean. Leyre Canok dinamizatuko ditu tailerrak.

Azkenik, 12 eta 16 urte arteko seme-alabak dituztenentzat, *Nerabezaroa, erronka bat norentzat?*

izeneko tailerra egingo dute, Agipad elkartearen eskutik. Zortzi saio izango dira: otsailaren 5ean eta 26an; martxoaren 5ean eta 26an; apirilaren 2an eta 30ean; eta maiatzaren 21ean eta 28an. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dituzte guztiak, 18:00etatik 20:00etara.

Izena emateko bi bide daude Udal webgunean eman daiteke izena dagoeneko *-izenemateak. arrasate.eus/eu/-*, baita BAZera deituta ere, 943 25 20 00 telefono-zenbakira.



NIRE USTEZ

JOSEBA EZPELETA

Kontzientzia antifaxista

Faxismo hitza askotan darabilgu azkenaldian, dela Trumpen itzulera egatik, dela hainbat lekutan izaten ari diren emaitza elektoralengatik edo dela berau borrokatzeko antolatzen diren mobilizazioengatik. Faxismoaren ezaugarri batzuk dira, besteak beste, mugimendu antidemokratikoa dela, indarkeriaren erabilera sistematikoa egiten duela, oposizio oro etsaitzat hartzen duela eta mugimendu populista dela.

Eta, urrunekoa barik, hobe genuke gertuko hainbat jokabide aztertzea eta konpontzea. Kontzientzia antifaxista hedatu eta faxismoaren aurka mobilizatu eta borrokatu behar dugu baina baita gertuko jarrera eta ekintza faxisten aurka ere.

Faxismoa borrokatu eta garaitu behar dugu, beti, eta inoiz ezin dugu jarrera faxistarik zuritu edo/eta faxismoaren aurrean epel azaldu. EH Bildutik faxismoa borrokatu dugu, borrokatzen dugu eta borrokatuko dugu, pertsonen askatasuna eta berdintasuna iparrorratz izanda. Faxismoari aurre egingo diogu, herritarrekin eta herri mugimenduekin elkarlanean, *justizia* eta *elkarbizitza* balioak landuz.

GORA ETA BEHERA



Zaborrontzi berriak jarri dituzte Udala auzoan



Herritar batek begi onez ikusi du zaborrontzi berriak jarri izana: "Lehenagoak zaharkituta zeuden; orain, gainera, plastikoendako ontzi handi bat ere jarri dute".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.



%15eko deskontua* eta ez ordaindu apirilera arte**

ARRASATE Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22



*Promoioa 2025/01/01etik 2025/02/28ra bitartean baliokoa da, baina Auzoentzako zerbitzuaren zehaztasunaren arabera. Beste deskontu eta promozio batzuk ere izan daitezke. Kontuak zure tratamenduaren tarifak zure Vitaldent klinikari. Tratamendua preskribitzaio medikua izan behar du. Erregistro zenbakia: C04076. **Finantzaletan Babesari Consumer Finance S.A.U.-ren enpresaren mende dago. 2025/01/02 eta 2025/02/28 artean emaitzak eta ordaintzeko finantzaletan formalizatuko dira eta 2025/03/01etik aurrera ordaintzen hasiko dira. Adibidez, tratamendu bat ordaintzen izan 1.700€. 3025eko urtarikoa kontratatu: 10 hilabeteko epean, 48 hilabete kuota 42,40€, TIN %7,45 - TAE %8,73, irakiteko-konbinazio %2-34%, kudeatzen finantzetan. Kredituaren kuota osoa: 325,48€, interes gutxiakoa: 305,48€. Kredituaren gutxiako zehaztasunak: 1,734€. Epeak ordaintzeko prezio osoa eta zehaztasunak: 1.025,48€. 3025eko urtarikoa kontratatu: 48 hilabeteko epean, 48 hilabete kuota 41,10€, TIN %7,45 - TAE %8,77, irakiteko-konbinazio %2-34%, kudeatzen finantzetan. Kredituaren kuota osoa: 323,20€, interes gutxiakoa: 189,20€. Kredituaren gutxiako zehaztasunak: 1,734€. Epeak ordaintzeko prezio osoa eta zehaztasunak: 1.023,20€. Demakidatzen dituzten interesak amortizatu behar diren kapitalarik gabe izan daitezke. Baita kredituaren araberako erabil daitezke eta kontsumoak diren kasuetan, IRPE 45-2.

Berrituta dator eskea, tradizioa eguneratzeko

Santa Ageda bezperara begira "ahalegin berezia" egin dute aurten ere adin eta genero guztietako arrasatearrak batzeko. Otsailaren 4a martitzena izatera, ez dute iazko jende kopururik espero, baina dei egin diete herritarrei "ahal duten heinean" batu daitezten

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE Aspaldiko tradizioari eutsiz, Santa Ageda abesbatza kantuan eta eskean irtengo da otsailaren 4an. Eta hirugarren urtez jarraian, "ahalegin berezia" egin dute adin eta genero guztietako arrasatearrak batzeko, horrela ospakizunaren etorkizuna bermatzeko. Agerraldia egin dute asteon udaletxean, arrasatearrei parte har dezaten eskatzeko, Udaleko ordezkariarekin batera.

Dirua, Arrasateko Caritasi

Santa Ageda abesbatzako Juan Bautista Agirre, Susana Roa, Luis Okina eta Agustin Aranburu izan ziren agerraldian. "Harro" daude azken urteetan "bide berri bat" ireki izanarekin: "Entseguak urtearekin batera hasi genituen, eta gazteak eta helduak batera aritu gara. Aurten, martitzena izanda, zazpi gazte aterako dira beterranoekin batera, baina badira lehenengoz aterako diren heldu asko ere, gehienak emakumeak, eta pozgarria da hori guretzat".

Agirreren arabera, garai batean ondo abesteari ematen zitzaion lehenetasuna: "Gaur egun, ezagurri hori ez da horren zorrotz betetzen". Bestalde, Agirrek gogora ekarri zuen iaz 4.200 euro inguru batu zirela eta dirua Ca-



Aranburu, Agirre, Fernandez, Morras, Roa, Okina eta Arratibel, asteon, udaletxean. J.B.L.

ritasera bideratu zutela, 80ko hamarkada ezkerre egiten duten moduan: "Gazteek besterik esaten ez duten bitartean, dirua Caritasera bidaltzen jarraituko dugu. Hori bai, hasieratik baldintza bezala jarri genuen dirua Arrasaten beharra dutenei bideratzea, eta horrela egin da orduetik. Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkiegu urtero ateak parez pare zabalik hartzen gaituztenoi".

Bi taldetan banatuta

Urtero moduan, bi taldetan banatuko dira otsailaren 4an,

08:00etan. Goizeko batzean talde batek Musakolarako bidea hartuko du eta beste taldeak, berriz, Bedoñarako bidea. Bi taldeak 14:00ak bueltan batuko dira udaletxean, eguneko kantaldi berezienerako. Ondoren, denek batera, 65 lagun, bazkalduko dute Leintz elkartean. Arratsaldeko batzerako ere bi taldetan banatuko dira, 16:00etan hasita; bi taldeak herrigunean arituko dira Santa Ageda eskean, eta 21:00etan Herriko Plazan denak elkartu eta azken kantaldiarekin egun berezia borobilduko dute.

Iazko batzea inflexio puntua izan zen

2024ko otsailaren 4ko Santa Ageda batzea inflexio puntua izan zen, inoizko gazteena, parekideena eta jendetsuena izan zelako; 100 bat lagun aritu ziren eskean, egun osoan. Are gehiago, eguneko kantaldirik berezienean, udaletzeko saioan, lehen aldiz emakumeek bakarrik abestu zuten, Goikobalu Gazteko zuzendari Maialen Gonzalezen gidaritzapean. Historikoa izan zen.



Belaunaldi berrien talde argazkia Herriko plazan, iaz. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

Uarkapen 246 panel fotovoltaiko jartzeko lanak hasi dituzte

Plaken aurretik, oinarrizko egitura ari dira jartzen; udal eraikinetara bideratuko da sortuko duen energia guztia

J.B.L. ARRASATE

Uarkapeko frontoiko eraikinaren sabaian 246 panel fotovoltaiko jartzeko lanak hasi ditu Udalak. Han sortuko den energia guztia udal eraikinen kontsumora bideratuko da; batez ere, Uarkape frontoira eta inguruan dauden azokara, Amaia antzokira, Kulturatera eta argiteria publikora. Uarkapeko instalazio berriak 137,76 kW-ko eremu fotovoltaikoa sortuko du; Udaleko zinegotzi Kepa Urteagaren arabera, 46 etxebizitza inguruk kontsumitzen duten energia kopurua.

Lau hilabeteko exekuzio-epea

Plakak jarri aurretik, oinarrizko egitura ari dira jartzen orain. Behin plakak instalatuta, moduluak elkarren artean konektatuko dira, serie elektrikoaren planoan zorrotz jarraituz: "Lan delikatua da, konexioak ondo eginda egotea ezinbestekoa izango baita energiaren aprobetxamendurako". Iniciativas de Tecnología y Sostenibilidad SL enpresak egingo ditu lanok, 110.924 euroko aurrekontuarekin –BEZa barne–. Lau hilabeteko exekuzio-epea dauka proiektuak.



HASIER LARREA

Ordenagailuak, Saharara bidean

Biziklanet proiektuaren baitan, 104 ordenagailu eramangarri bidali ditu asteon Sahararako kanpamenduetako eskoletara Arizmendi Ikastolak, Saharaldeba elkartearrekin eta Fronte Polisarioarekin lankidetzan. Aljeriako Tinduf lurraldean daude kanpamentuok eta lehen hezkuntzako eskoletan gela informatikoak martxan jartzeko abiapuntua izango da ekarpena.

Buru-hausgarriak erretiratuentzat, etzi, Musakolako etxean

Puzzlekaxa proiektuko kideek –argazkian– erretiratuendako hiru dimentsioko puzzleen eta buru-hausgarrien saioa antolatuko dute domekarako, Musakolako erretiratuen etxean, 17:00etatik 20:00etara. "Bakardadeari aurre egitea eta harreman berriak bultzatzea izango da helburua", diote Puzzlekaxako kideek. Sarrerara doakoa izango da.



Sheila Merino eta Ander Yuste. PUZZLEKAXA

ELKARLANEAN ERAIKITAKO ESKOLA ANITZA



MATRIKULAZIOA otsailaren 03tik 14ra

Guztion eskola, guztion artean



baikara

Zaintza integrala bermatua ikasturte osoan



**Arrasate
Institutua**

ARRASATE HERRI ESKOLA

ATEAK ZABALIK:

Urtarrilaren 25ean, larunbata, 9:00etatik 13:00etara
Musakolan, Bedoñaben eta Erguinen.

HITZORDUA HIRU ERAIKINETARAKO HARTZEKO:
zuzendaria@arrasatehe.eus

ARRASATE INSTITUTUA

ATEAK ZABALIK:

Otsailaren 5ean, 18:00etan
Institutuan

Otsailaren 6an, 17:00etan
Aramalon

ARRASATE

Bideoa
ikusgai:



Mugen gordina umoretik lantzera dator 'Arizona'

Txalo Produksioak konpainiaren 'Arizona' antzezlanak Amaian ikusi ahalko da domekan (19:30); obren ondorioz, edukiera erdia dauka antzokiak, 450 eserleku, eta sarrerak berehala agortu ziren. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola ditu protagonista

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE Ikusmin handia piztu du domekan Amaia antzokira (19:30) helduko den Txalo Produksioak konpainiaren *Arizona* obrak, eta, edukiera erdiaren bueltan badago ere Amaia -450 sarrera saltzen dira egun-, sarrerak salgai jarri eta berehala agortu izana da horren adierazle. George (Jon Plazaola) eta Margaret (Aitziber Garmendia) ditu protagonista Juan Carlos Rubioren antzezlanak, eta, Garmendiaren arabera, "garai perfektuan" datorren obra da, "zoritxarrez. Duela bizpahiru urte eskaini zidaten obra hau antzetzeko aukera, baina beste bira batzuekin eta Madrilera joateko asmatan nengibilen. Orduan, hor geratu zen; iaz, beste saiakera bat egin zuten, baina ordurako Madrilengoen... Baina orain bai, 2025ean estreinatzea erabaki dugu. Eta entseatzeko ari ginela ikusten genuen Trump ze bidetatik zetorren; gure artean komentatu genuen: 'Ziur dena batera datorrela!'. Eta halaxe izan da: astelehen batean sartu zen Trump Etxe Zurian eta guk ostiral hartan estreinatu genuen".

Barrea eta gogoeta eragin nahi Komedia bat da, baina barreaz gain gogoeta ere eragin nahi



Aitziber Garmendia (Margaret) eta Jon Plazaola (George). TXALO PRODUKZIOAK

duena. "Testua oso gogorra da, baina errealtatea gogorragoa da, akaso. Gogoeta eragin nahi dugu, eta, horretarako, umorea baliatzen dugu, komediatik gaiak beste era batera sartzen direlako", dio Garmendiak.

Esandako moduan, Garmendia Margaret izango da Amaia antzokiko oholtzan. "Ikaragarri motzak dira Margaret zein George, bi errepublikano amorratu. Itsu-itsuan Trump jarraitzen dute, eta hark esandako guztia barruraino sinistu. Hori bai, une bat iritsiko da Margaret galderak

egiten hasiko dena, eta hori ez zaio batere gustatuko Georgeri; Georgek oso barneratuta dauka ezin duela zalantzarik egin gauzatu beharreko proiektuarekin. Trump eta bere immigrazio politikak ekarriko dizkigu gogora orain, baina Juan Carlos Rubiok

"GOGOETA ERAGIN NAHI DUGU UMOREA BALIATUTA; TESTUA OSO GOGORRA DA"

AITZIBER GARMENDIA, AKTOREA

testu hau duela urte batzuk idatzi zuen, George W. Bush-en garaiko *Minuteman* proiektua inspiratutaz hartuta; herritarrek jarri ziren AEB eta Mexiko arteko mugan, Arizonan kasu honetan, mexikarrik ez zedin pasatu. Ur-putzuak pozoitu egin zituzten, tiroketak izan ziren... mexikar batzuk hil egin zituzten. Mundu honetako basakeria bat gehiago izan zen; halakoetara ohituta gaude, tamalez".

"Arizona asko" oso gertu

Jon Plazaolarekin itzuliko da oholtzara Garmendia: "Ederra da Jonekin lan egitea; bi obrarekin aritu izan gara lehenago. Egia da *Arizona* planteatu zitzaigunean *Losers* bira amaitzen ari ginela, eta horregatik pentsatu genuen apur bat atzeratzea, publikoak ere arnasteko. Bi urte hauek elkarrekin antzetzeko gabe egotea ondo etorri zaigu; ez dugu publikoa nazkatu nahi...".

Garmendiak dioenez, AEBetako Arizona estatuan kokatzen da antzezlanak, baina beste hainbat lekutan ere errealtate bera aurki daiteke: "AEB eta Mexiko arteko mugaz ari gara oraingoan, baina hausnarketa ireki nahi dugu muga guztietara. Ez dugu urrutira joan beharrik, hor ditugu Ceuta eta Melilla edo Behobia bera. Zoritxarrez, muga pilo bat ditugu oso gertu".

Barakaldon estreinatu zuten *Arizona*, bigarren Berrizena izan zuten eta Arrasatekoa hirugarrena izango da: "Gogoeta bagenuen publikoari erakusteko. Harrera espero genuena baino beroagoa izan da, oso pozik gaude". Otsailean beste bost emanaldi izango dituzte eta martxorako sei emanaldi dituzte aurreikusita; Debagoieneko bakarra, oraingoz, Arrasatekoa da.

Izen-ematea zabalik Arrasate literatur lehiaketarako

AEDren Arrasate literatura lehiaketan 38. edizioan izena eman daiteke, martxoaren 16ra arte. Debagoieneko gazte guztiek parte har dezakete, LH-5etik hasi eta batxilergoko edo erdi mailako heziketa zikloetako bigarren mailara arte; hiru lehiaketa izango dituzte aukeran, adinaren arabera. Argibide gehiago: arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com.

Maia Zaitegiren film berria Amaian, bihar eta otsailaren 3an

Maia Zaitegi protagonista duen *Sin instrucciones* filma Amaia antzokian ikusi ahalko da bihar, otsailak 1 (19:30) eta astelehenean, hilak 3 (19:30). Marina Sereskyk zuzendu duen komedia dramatikoko protagonista da gazte arrasatearra; Paco Leon eta Silvia Alonso izan ditu bidelagun, "asko gozatu duen" haren ibilbideko bigarren lan luzean.

Koiltur Ostegunak: Marte Lasarte taldea otsailari ekiteko

Otsaileko egueak ere beteta datoz gaztetxean, Koiltur Ostegunak ekimenari esker; kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta sarrera zazpi euro da. Otsailaren 6an, Marte Lasarte taldeak joko du; hilaren 13an, Mejillon Tigre kolektiboa etorriko da; hilaren 20an, Eraso! taldeak joko du; eta hilaren 27an, azkenik, Micky And The Buzz taldeak.

Zatoz gu ezagutzera

Eskola txikiak,
familia giroan

Dohainik

Deitu hitzordua
hartzeko.

Arrasateko
HAURRESKOLAK



MUSAKOLA haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Haur, gazte zein nagusi kantuan, santa-eskean irteteko egindako entseguetako batean. LARRAITZ ARRIOLABENGOA

Belaunaldi ugari elkarrekin santa-eskean

Bihar, zapatua, irtengo dira, 10:00etan, Bizente Goikoetxea plazatik, santa-eskean joateko. Baserriz baserri arituko dira goizean, bi taldetan banatuta, elkarrekin bazkalduko dute, eta arratsaldean Ibarra jarraituko dute guztiek batera abesten

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO 2013an hasi zuten formatuari jarraipena emango diote aurten ere Aramaion bihar, zapatua, santa-eskean irteteko. Izan ere, ordura arte, Bizente Goikoetxea abesbatzako kideak ateratzen ziren kantuan, eta 2013an antolakuntza-erleboia hartu zioten herriko beste talde hauek: Papargorri abesbatzak, Bertso Eskolak, Alaiak kantu taldeak eta Trikitixa Elkarrekin. Orduetik hona, haur, gazte zein nagusi, baserritar jantzita, guztiak batera irteten dira kantuan, baserriz baserri, santa-eskean.

Papargorri abesbatzako zuzendari Larraitz Arriolabengoak, hain justu ere, hori azpimarratu du, "belaunaldi askotako jendea elkarrekin" irteten dela santa-eskean orain: "Bertso Eskola, abesbatzak eta trikiti eskola horri buruz hausnartzen hasi ginenean, helburua zen jende berria erakartzea ekimenera, eta, elkarte horiek umeak eta umeen familiak erakartzen

dituztenez, ekimena gaztetzea lortu dela uste dut. Nerabeak ere etorriko dira. Gainera, herri moduan elkartu gaitezkeen modu onenean elkartzen gara: kantuan eta bazkarian".

"Indartzen" doan ekimena Arriolabengoak gaineratu du "indartzen" doan ekimena dela: "Herri ekimen hau urtetik urtera indarra hartzen dabil. Aurten, astebetean bete ziren bazkarirako lekuak; Iturrieta sagardotegian 60 lagunendako lekua erreserbatu genuen, eta, azkenean, 69 izango gara".

Bi entsegu egin dituzte, batez ere, ekimenean parte hartuko duen jende berriarendako. Izan ere, urtero abesten dituzten

BASERRIZ BASERRI BERTSO PERTSONALIZATUAK ERE ABESTUKO DITUZTE BIHAR

Santa Agedako kantua eta kolplak kantatuko dituzte aurten ere, baserriz baserri.

Bi taldetan banatuta Bizente Goikoetxea plazan elkartuko dira bihar, 10:00etan. Eta talde-argazkia atera ostean, bi taldetan banatuko dira eta bakoitzak ibilbide bat egingo du: talde bat Matxinkalera eta Eguzkierripa ingurura joango da, eta bestea, berriz, Zalgo, Errotabarri eta Arragarantz. Gero, guztiak bazkaltzeko elkartuko dira sagardotegian, eta arratsaldean kalean jarraituko dute kantuan.

Bertso Eguna ere bai Aurten, herriko hiru talde aurkeztu dira Arabako Bertso Kuartilla Arteko Txapelketara, eta horietako bat den Bañera FT taldeko bertsolarien aurkezpen egun bezala baliatuko dute santa-eskeko eguna. Hala, bertsolariak baserriz baserri bertsotan jardungo dute.



NIRE USTEZ

JESUS ARREGI BENGOA

Itsaraz 'ez-parkea'

Argindar ekoizleek, Diputazioari zergak eta BEZa ordaintzeko orduan, beraien jardura identifikatzerakoan *energia elektrikoaren produkzioa* edo antzerako zerbait erabili behar dute. Ordea, lantegi horiek mendietan eta jarri nahi dituztenean *parke* (eolico, fotovoltaiko) deitzen diete. Gurean eraiki gura zutenak izena ere arrotza zuen; baina, jakina, ez zen hori Aramaio Bizirik arduratzen zuena. Beste kezka larri asko genituen, eta Aramaio Udal Gobernuarekin batera errekurso sendoa aurkeztu zuen. Arrazoi genuen, eta aitortu egin digute. Ezingo dute Itsaraz lantegia eraiki. Pozik gaude.

Sarritan entzun behar izan dugu borrokan egiten gurea *parkea* ez gurea *lorategian* nahi *-not in my backyard* ezaguna-. Ez, arrazoi gurea gurea aurrerapena beste era batera ulertzen dugulako egin genuen borrokan, eta segituko dugu. A! Nik aspaldi dut argindarra sortzeko lantegi fotovoltaikoa: *in my roof*.

Energia-komunitateei buruzko jardunaldia eguaztenean

Energia-komunitatea sortzeko prozesuari ekin zioten orain dela hilabete batzuk, eta hamar laguneko lantalde batek interesa du prozesuan parte hartzeko. Udalak inguruko herrietan martxan diren energia-komunitateen esperientziak ezagutzeko mahai-ingurua antolatu du eguaztenerako, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. Hizlarien artean egongo dira Goienerreko Oier Etxeberria, Aramaio-ko argindar banatzaile Iraia Jauregi eta hainbat energia komunitatetako ordezkari hauek: Elgetako Ibai Larrañaga, Eskoriatzako Nestor Arana, Otxandioko Santi Uribe eta Urarteko Nick Gardner.

'Vidas irrenovables' dokumentala gaur arratsaldean

Aramaio Bizirik taldeak antolatuta, *Vidas irrenovables* dokumentala proiektatuko da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean. Ikus-entzunezkoa zuzendu duen Francisco J. Vaqueiro bertan egongo da aurkezpena egiteko. Landa-munduaren biziraupenari buruzko lana da eta bertan hainbat testigantza erakutsiko dituzte.

Eskolako aterpea txukuntzeko proposamenak

Eskolako aterpea eraldatzeko prozesua antolatzen dabil horretarako elkartu den batzordea, eta, hain zuzen ere, herritarren laguntza behar dute, aterpe txukuntzeko ideiak behar dituztelako. Aterpean irudiak, grafiak eta esaldiak jarriko dituzte, errespetuzkoak izan behar dute, euskaraz, ingurunearekin bat egin beharko dute eta "denok batzen gaituena"; horiek dira irizpideak. Proposamenak jasotzeko epea otsailaren 9an bukatuko da. Ideia horiek Aramaio Herri Eskolako helbide honetara bidali beharko dira: aramaioeskola@aramaioeskola.eus. Bestela, kultura etxean edo eskolan entregatu beharko dira.

Bilera deitu dute Martxoaren 8a antolatzeko

Eguaztenean, otsailak 5, kultura etxean elkartuko dira, 18:00etan, aurtengo Martxoaren 8a antolatzeko, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Interes duen edozein herritar dago gonbidatuta bilerara; hain zuzen, egun horri buruzko hausnarketa egiteko aukera izango dute, eta egunean bertan egingo diren ekintzei buruz jardungo dute.

Mirari Altube ARETXABALETA

Ez da ezagutzen dantzaren jatorria, ezta esanahia ere. Baina Aretxabaletan ez dago Aratusterik Txino dantzarik gabe azken 50 urteetan. Izan ere, 1975eko otsailaren 9an berreskuratu zuten, urte askoan egin barik egon ostean. Urteurren horrekin akordatu dira Loramendi txistulari taldeko kideak, eta hura gogora ekarri eta ospatzeko aitzakia polita topatu dute. "Orduan legez, aurren ere egun hori domeka izango da. Eta erabaki genuen ezin genuela eguna pasatzen utzi ezer egin barik", azaldu du Jokin Antxia txistulariak.

Lagunarteko ekitaldi "xumea"

Txino dantza, bere historia izena jarri dioten ekitaldia egingo dute domekan, hilaren 9an, 13:00etan, udaletxe zaharrean. Asmoa da orain dela mende erdi dantzan egin zuten mutil haiek elkartzea eta sasoi hartako kontuak gogora ekartzea. Bukatzeko, *Beste 50 baietz!* topa antolatu dute Durana kalean. "Ekitaldi xumea izango da. Dantzan egindako hamarrek hura identifikatzea zen asmoa, eta, behin hori eginda, deialdia bidali diegu; dantza, musika eta bestelakoak izango ditugu hizpide haiekin, lagunartean. Eta dantzatzera ere animatuko dira, seguru asko", dio Antxiak. Entsegurik ez dute egingo alde aurretik, baina horren beharrik ere ez dela izango dio.

Aurretik, astelehenean, 40 bat argazkirekin osatutako erakusketa zabalduko dute Arkupe kultur etxean, eta hilabete osoan egongo da ikusgai: "Lehenengo urte hartakoak izango dira bospasei, eta gainerakoak, ondorengokoak. Egon argazki mordo dago, baina aukeraketa bat egin dugu".

Dantza taldetik kintoetara

XX. mende hasieran dantzan egiten zela jakinekoa da, adineko hainbat herritarrek etxean entzuna dutelako Aratusteetan harizko kamisoiak jantzi eta *txin, txin* egiten zela dantza; orduan, orain moduan, kintoen kontua izan ohi zen. Nondik datorren eta zein esanahi duen ez dago garbi. Batzuek diote zenbait dokumentutan agertzen denez mendian ikatza egiten zebiltzanek dantzatzeko zutela, eta horregatik belzututako aurpegiak. Dantza kontuetan adituak



Dantzariak Durana kalean barrena dantzan. ARGAZKIAK: ARETXABALETAKO ARGAZKI ARTXIBOA

Txino dantza: 50 urte, eta aurrera

Otsailaren 9an beteko dira 50 urte Aretxabaletako ezaugarri den dantza berreskuratu zenetik, dantza taldeari eta, bereziki, Ramon Erañari esker; hori gogoan, erakusketa zabalduko dute astelehenean eta ekitaldi berezia egingo dute hurrengo domekan

direnek azaldu izan dute Bergara eta Antzuola aldean sortutako sorgin dantzaren aldaera bat izan litekeela.

36ko gerrak Aratusteak eten zituen, eta horiekin batera Txino dantza ere bai. Eta ondoren

etorri zen diktadura garaian, ospakizuna zein dantza debekatu egon ziren.

70eko hamarkadaren hasieran ohitura zaharra berreskuratzeko ahaleginetan hasi ziren aretxabaletar batzuk. Loramendi

dantza taldeko Ramon Eraña izan zen bultzatzaile nagusienera, eta horren bueltan beste hainbat elkartu ziren: Juan Jose Garziaetxabek pausoak, janzkera eta melodiaren transmisioa egin zituen eta Demetrio

Iriarte txistulari eta konpositoreak, musika. Dantzaren doinuak hitzak ere bazituen, baina gaztelaraz ziren horiek, eta Erañak euskarara itzuli zituen: *Txin, txin, txin, txin, mahatsa heldu gabe dago; txin, txin, txin, txin, baina helduko da; Txiribito ta Andrea, joan ziren jatera, Txiribitok hasarretu ta bota zuen lapiko.*

Dantza taldeko hamar mutiko elkartu zituen Erañak lehenengo saio hartarako; 13 eta 17 urte artean zizutzen honako hauek izan ziren hautatuak: Luis Mari Ezkurra; Roberto Urteaga; Lorentxo Gorroño; Andoni Altube; Jesus Arregi; Imanol Galfarso-ro; Jesus Aizpurua; Migel Perez; Sabin Urreta; eta Ricardo Uribealago. Txistua Erañak berak jo zuen eta haren alboan atabala, Fidel Iturbek.

Sasoi bateko janzkerari kasu egin zituen, eta halaxe jantzi ziren: ehunezko tunika zuria, buruan kapela edo zapi koloretso bat, hanka bakoitzean galterdi ezberdina eta abarkak edo alpargatak. Aurpegi-inguuruak, ostera, ikatzez zikinduta. Halaxe, 40 urteren ondoren, Txino dantza kalera itzuli zen, eta herritarren artean ikusmin handia sortu zen.

Dantza lizuna

Aurrerago, kintoek berreskuratu zuten dantzan egiteko ardura; soldadutzara joatekoak ziren mutilek, hain zuzen ere. Eta 1998an emakumezkoak ere hasi ziren dantzan parte hartzen, nahiz eta 2008a arte kinto mutilen taldera ez batu.

Janzkerak legez, dantzak ere ez du izan aldaketa handirik urteotan: lehen zatian, bi ilaratan banatuta salto txikiak ematen dituzte, altxatzen duten hankaren aldeko eskua ere jasota, hatz erakuslea goian dela; beste eskua, ostera, bizkarrean izaten da. Bigarren zatia geldirik dantzatzeko da, aurrez aurre jarrita. Bikoteek elkar agurtzen dute eta zirikatzekeo keinuak egin: parekoari soinekoa jasotzen eta bularraldea ukitzen ahalegindu, esaterako, eta besarkada

**LEHENENGOZ
DANTZAN EGINDAKO
KIDEAK ELKARTZEA
DA ASMOA, KONTU
KONTARI JARDUTEKO**

Ramon Eraña, bultzatzailea

Ramon Eraña Gallastegi (Aretxabaleta, 1950-2015) kultur eta kirol eragilea izan zen, eta herriko ekimen askoren sustatzaile. Txistularia eta dantzaria, besteak beste, Loramendi Dantza Taldea zuzendu zuen, eta haren ekimenez berreskuratu zen Txino dantza. "Pena da gure artean ez egotea; hari entzundakoak kontaktuko ditugu", dio Jokin Antxiak.



Ramon Eraña, txistuariarekin, haren aurrean dantzan dabiltzala.



Dantzariak dantzan, herritarrek adi-adi begira dituztela.

batekin bukatu. Hain zuzen ere, azken mugimendu horiek direla eta, lizuntzat jo izan da dantza. Ibilbidearen bukaeran fandangoa eta arin-arina dantzatzan zituzten sasoi batean.

Transmisioari eutsi

Berrogeita hamar urteren ostean, ohiturak osasuntsu jarraitzen du, eta ezinbesteko dantza da Aratuste-domeka eguerdian ospakizunei hasiera emateko. Hogei kinto elkartzan dira horretarako –aurten, 2006an jai-

takoak– Udalak gordeta izan ohi duen soinekoarekin jantzita. Aratuste-martitzenean, osteran, ikastetxeetako neska-mutikoei egiten dute dantza hori Herriko Plazan –eguraldiak laguntzen duenetan–, transmisioa bermatzeko aldera. Batzuek "husteria bat" dena beste batzuek dako "altxorra" da, besteak beste Aretxabaletan bakarrik dantzatzan delako. Eta herritarrek ez dute ehun urtetik gora dituen tradizioa galtzen uzteko asmorik.

"Aratusteen indartzean Txino dantzak bere ekarpena egin zuen"

JESUS ARREGI BENGOA DANTZARI OHIA

Loramendi dantza taldeko kidea izan zen, eta lehenengoz dantza egin zuen hamar lagunetako bat da. 16 urte zituen orduan, baina ondo gogoratzen du egun hura.

Ramon Erañaren esanetara dantzan zeniharduen zuk?

Bai, Loramendi dantza taldea lehenik zetorren, baina nik uste dut indarra galtzen ari zela, orduko partaideen adinagatik edo. Ramon Erañak bultzatu zuen taldearen indarberritzea, neskatila-mutiko gazteak animatuz.

Zelan oroitzen duzu egun hura?

Dantza taldean izan nintzen urteen oroitzapena oso polita da; baina Txino dantzarena, bereziki. Batetik, dantzaren berreskurapena zelako, eta horrek nolabaiteko protagonismoa eskaintzen zigun; eta, bestetik, dantzagatik



JESUS ARREGI

beragatik: ez zen teknika zaindu behar, ia ez zen ikasi eta entseatu beharrik, zati batzuetan inprobisatu ere egiten zen pixka bat... Aratuste giroa bistakoa zen. Guretzat transgresio txiki bat bezala zen.

Zelan hartu zuten herritarrek?

Aretxabaletan Aratuste-igandeak indar handia hartu zuen hasieratik, eta horretan Txino dantzak egin zuen bere ekarpena. Jendeak oso ondo

hartu zuen eta janzkera eta abar lagungarri izan zirela uste dut. Gizarteak garai hartan askoz ere gehiago zaintzen zituen formak eta itxurak esparru horietan, eta Txino dantzak erabat hausten zuen hori. Aratustea zen!

Ordutik asko aldatu dela esango zenuke?

Ez zait iruditzen aldaketa handirik egin duenik eta horren beharrik duenik ere. Agian, protagonismoa galdu du, ondoren izaten den desfileak indar handia duelako, baina zalantzarik ez dut iraungo duela osasuntsu.

Altxor txiki bat da?

Bai, zalantza barik. Horrelakoak herri baten idiosinkrasiari forma ematen diote, bereizgarriak dira, aingura modukoak. Urteen buruz, agian, desfileak indarra galduko du, baina orduan ere, Aratuste-igandeko 12:00etan Txino dantza egingo da, arratsaldean Santa Ageda neska-mutilek dantzaldia egingo dute, eta jendeak jakingo du Aratuste garaia dela.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen emate epea: otsailaren 3tik 14ra
Hitzordua hartzeko, deitu.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

 619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria





2006an jaiotako hainbat gazte, joan den egubakoitzean pilotalekuan, dantza entseguari ekiteko gertu. MIRARI ALTUBE

Santa-eskeari ekiteko gertu 2006ko gazteak

Kintoak auzorik auzo ibiliko dira martitzenean, Santa Ageda bezpera, eta Aretxabaleta Abesbatzak eta Basotxoko kantu taldeak herria girotuko dute; hurrengo egunean, oster, gazteek lehenengo dantza saioa egingo dute plazan, kalean eskean ibili eta gero

Mirari Altube ARETXABALETA

Urtarrilarekin batera ekin zioten dantza entseguari 2006an jaiotako neska-mutilek, eta egubakoitz gauean elkartu dira, Iturrigorri pilotalekuan. Entsegu nagusia, txistulariekin batera, bihar goizean egingo dute, eta azken gomendioak haiek emango dizkiete, usadioari eutsiz ondo pasa dezaten.

80 gazte kantuan eta dantzan

Nerabearoa atzean utzi eta helduaroan barneratuko dira herriko 80 bat gazte, Santa Agedaren bueltako ohiturari jarraituz. Otsailaren 4an, auzorik auzo eta baserrikerik baserri ibiliko dira, Siziliako santuaren bizitza oroitzuten duten koplak abestuz eta makila kolpeekin lurrari esnatzeko esanaz. "06:15ean abiatuko gara plazatik. Trikitilariak izango ditugu lagun eta txoko guztietara iritsi ahal izateko bitaldetan banatuko gara", adierazi dute. Eguerdian atseden hartuko dute, Ibarra tabernan

bazkalduta, eta arratsaldean berriz ekingo diote lanari, iritsi ez diren baserrietatik pasatzeko.

Hurrengo egunean, eguaztenean, talde txikiagoetan banatuko dira, herriko enpresa, taberna, denda, ikastetxe eta etxe gehienetatik pasatu ahal izateko. Eta iluntzean, 19:00etan, lehenengo dantza saioa egingo dute plazan, herriarren aurrean. Horren ondoren, beste hiru domekatan egingo dute dantzan, eta, ohitura den legez, Aratus-te-domekan bukatuko dute.

Hain zuzen ere, Aratuste domekan egin zuen dantzan lehenengoz hiru neskek aurtengo kintoak jaio ziren urtean. Eta handik bi urtera, 2008an, dantzan bakarrik ez, eskean eta kantuan

**AURTENGO KINTOAK
JAIO ZIREN URTE
BEREAN HIRU NESKAK
LEHENENGOZ EGIN
ZUTEN DANTZAN**

ere mutilekin batera jardun zuten, eta, ordutik, gazte guztiek hartzen dute parte.

Neska-mutilak jaiari ekiteko gogotsu daude: "Umetako ilusioa da ospakizun honetan parte hartzea askorendako". Udalak ez diela aparteko baldintzarik jarri adierazi dute: "Errespetuz eta arduraz jokatzeko eskatu digute, eta elkarbizitza sustatzeko".

Abesbatza eta Basotxo ere bai

Santa Ageda bezpera egunez beste bi abestaldek ere girotuko dituzte kaleak. Aretxabaleta Abesbatzako kideak Herriko Plazan elkartuko dira, 18:00etan, eta GSR zaharren egoitzan egingo dute lehenengo geldialdia. Handik udaletxera joango dira, eta plazara itzuli; eguraldiak lagun eginez gero, Durana kalean ere abestuko dute.

Basotxo erretiratuen elkarte-kantu taldeak ere kalerik kale abestuko ditu Santa Agedaren omenezko koplak; 18:30ean abiatuko dira, Ilargi plazatik.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROABE IDIGORAS

Bioaniztasuna galtzen

Institutuan prestatzen ari garen proiektu batean landare espezie mehatxatuak lantzen aritu gara eta ikusi dugu gure inguruetako bioaniztasuna abiadura handian galtzen ari dela. Klima larrialdia dugu prozesu honen oinarrian, baina, horrez gain, gure inguruan ditugun altxorren gaineko ezagutza faltak eragiten du espezieen galera.

Ez gara horretaz konturatu berriak, baina ez diogu behar besteko garrantzirik eman nahi, antza. Adibidez, Aretxabaletako tomaterik ez genuke izango bere garaian norbaitek jaso, gorde eta landatzen jarraitu izan ez balu. Horrela, gaur egun irailen aste bat dedikatzen diogu gure altxorri, baina salbuespena dela esango nuke.

Euskal Herrian baditugu endemismoak diren hainbat landare. *Armeria euscadiensis* eta *Festuca vasconensis* espezieek, esate baterako, haien izen zientifikoan harro erakusten dute jatorria, baina biak ala biak galtzeko arriskuan daude, oso populazio gutxi eta ale gutxiok baino ez dira mantentzen. Espezie bat galtzen denean, gure herriaren ataltxo bat betirako desagertzen da.

Yaakarrek Senegalgo proiektuaren berri eman die ikasleei

Senegalgo Mbam udalerrian martxan duten proiektua aurkeztu diete Yaakar elkarte kideek Kurtzebarri institutuko DBHko lehen mailako 80 ikasle ingururi. Bide batez, eskola-materiala erosteko dirua biltzeko laguntza eskatu diete, aurreko urteetan legez. "Adi-adi jarraitu dituzte gure azalpenak, eta, oraindik datarik zehaztuta ez egon arren, ekitaldi bat antolatzeko asmoa dute", adierazi dute Yaakarrekoe, pozik.

Laguntza-ekitaldi edo jaialdi horretan Laboral Kutxak emandako mahai gaineko hiru Fujitsu ordenagailu berregokitu zozketatuko dituztela aurreratu dute elkarteek.

'Cónclave' eta 'Robotia' filmak, otsailean barneratzeko

Helduek *Cónclave* (Erresuma Batua, 2024, 115 minutu) filma izango dute Arkupeko Zariaia aretoan gaur, egubakoitza, 22:00etan; bihar eta etzi, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Aita Santu baten aukeraketan sortutako sekretu eta konspirazioak ditu ardatz. Umeek *Robotia* (Espainia, 2024, 84 minutu) izango dute zapatuan eta domekan, 17:00etan.

Gazteen ongizate emozionalaren lanketa, aurkeztar

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek 2024ko ekainean abiatu zuten gazteen ongizate emozionalaren gaineko diagnostikoaren lanketa. Hori osatzeko, galdetegiak bidali zituzten, eta herriarren foroak antolatu. Jasotako erantzunak 900 baino gehiago izan direla adierazi dute, eta foroetan 100 lagunek baino gehiagok parte hartu dutela.

Behin emaitzak batuta eta aztertuta, herriarrei aurkeztu gura dizkiete horiek. Otsailaren 12an, eguaztena, izango da aurkezpen-ekitaldia, Arkupeko Zariaia aretoan, 18:30ean. Horretarako, izena alde aurretik ematea eskatu dute, galdetegi bat beteta.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Lehen irteera egin dute Erraldoien Topaketara

Bartzelonako Castellbisbal udalerrian izan dira 'Rita' eta 'Demetrio', han ospatu duten 34. Erraldoien Topaketan. Baztango konpartsak eroan ditu Andoitz eta Txarli Gomez aretxabaletarrak, eta beste hamaika konpartsatako erraldoiekin batu dira han

Imanol Beloki Unamuno

ARETXABALETA

Egubakoitzean Bartzelonara iritsi eta pixka bat deskantsatu ostean, zapatu goizean herria ikusi eta arratsaldean kalean jardun zuten dantzan aretxabaletarrek eta baztandarrek, gonbidatu. Gauean, berriz, hango *dragoen ikuskizuna* ikusi zuten. Egun handia domeka izan zuten; izan ere, hainbat herritatik joandako hamabi konpartsa elkartu ziren bertan, 27 erraldoi guztira.

Andoitz Gomez aretxabaletarra pozik dago han bizitako esperientziarekin, eta Aretxabaletako erraldoiekin egindako lehenengo irteera ez dela azke-



Baztandik eta Aretxabaletatik joandakoak, erraldoiekin. ARETXABALETAKO ERRALDOIAK

na izango nabarmendu du: "Dantzatzen dugun gehienok lagunak gara, eta, Bartzelonako Castellbisbalen herrikoei galdetu genien ea beste herri batekoekin joan ahal ginen. Arazorik ez ziguten jarri, eta, beraz, baztandarrekin batera joan ginen. Guztira, hogeit lagun. Aretxabaletan andramaixetan eta sanmigeletan aritu gara, baina Aretxabaletatik kanpo egin dugun lehenengo irteera izan da. Oso ondo aritu gara, eta motz samarra egin zaigu irteera".

Konpartsa sortzeko bidean

Aretxabaletako konpartsa sortzeko ideia ere badutela buruan dio Gomezek, eta lan horretan urratsak egiten ari direla. "Laster egingo dugu bilera bat dena antolatzeko. Jendea gerturatu da, eta zortzi lagun inguru ari gara prozesu honetan. Erraldoiekin kalera irten aurretik probatu ere egin behar dira, eta praktikatzen ari gara... Etorkizunera begira, berriz, taldea sortzea ezinbestekoa izango da, eta gero iritsiko dira irteera gehiago".

Aratusteetarako lokalak erabiltzeko eskaera-epea ireki dute

Urtero moduan, Aretxabaletako Udalak lokalak jarriko ditu Basabe poligonoan kuadrillen esku, mozorroak eta karrozak presta ditzaten. Dagoeneko zabalik dago eskaerak egiteko epea, baina arau batzuk bete beharko dituzte erabiltzaileek. Besteak beste, talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko beharko du, 21:00etatik aurrera ezingo da lokala erabili... Giltzak jasotakoan, arau guztien berri izango dute erabiltzaileek.

Horrekin batera, Aratuste-domekan pilotalekuan egingo den bazkari *golfo*-rako sarrerak gaur jarriko dituzte salgai, 21 eurotan, Inauterietako lokalean, 18:00etan. Bihar, berriz, kiroldegiko bazkarirako sarrerak jarriko dituzte salgai, 09:00etan, Arkupen -helduen menua 26 euro eta umeena 13 euro-. Kuadrillak eman behar da izena, bi bazkarietan. Bestetik, zapatu honetan, 12:00etan, mozorroen eta osagarrien bigarren eskuko azoka egingo dute, Herriko Plazan.

Bihotzez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA

haur eta lehen hezkuntza
(2-12 urte)

IZENA EMAN:
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
 943 89 91 46

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 3tik 14ra

Irakurketa eta ikasketa gela berria bibliotekan

Isiltasunean irakurri edo ikasteko espazio berria ireki dute Eskoriatzako bibliotekan, hainbat fasetan egindako obren ostean. Lanak egitera, lasaitasunez irakurtzera edo ikastera joan nahi duten herritarrentzat atondu dute gunea, euren eskaerei erantzunez

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako udal bibliotekako helduen esparrua, irakurtzeko eta ikasteko erabiltzen dena, kristalezko pareta batekin ixteko lanak egin dituzte. Azaroan hasi zituzten eremua ixteko lanak, erabiltzaileek espazio erosoagoa eta aproposagoa izan dezaten; lanak joan den astelehenean amaituta, erabilgarri dago gune berria.

Hainbat fasetan egin dira bibliotekako lanak. Lehenengo fasean, liburutegiko espazio berria bereizteko, kristalari eusteko pladurra jarri zuten. Lehenengo faseko lan horiek iaz, azaroan, egin zituzten, eta hiru egunez itxi zuten biblioteka, obrak burutzeko. Gabon aurretik lan horiek eginda, joan den astelehenean, urtarriaren 20an kristala eta atea jarrita, espazio berria erabilgarri dago. "Aurreikusten genuen urtea amaitu aurretik, abenduan, amaitzea lan guztiak, baina joan den astean amaitu

zuten kristala jartzen. Lehen zegoen gela ixtea erabaki da, eta ikasketarako eta irakurketarako isiltasunean lan egiteko eremua bihurtu, eta dagoeneko hasi dira herritarrek erabiltzen", adierazi du Olaia Benitok, Eskoriatzako udal langileak.

Herritarren eskaera

Herritarren eskaera batetik sortutako lana izan dela gaineratu du Eskoriatzako Udalak, eta egin beharrekoak egiteko 8.300 euro bideratu dituztela azaldu du Xabi Uriartek, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak. Gaineratu duenez, egindako lanen emaitzarekin pozik daude, eta isiltasunean lan egin nahi du-

UDAL BIBLIOTEKAKO GUNE BERRIA EGITEKO 8.300 EURO BIDERATU DITU ESKORIATZAKO UDALAK

tenen espazioa bermatzen dela azpimarratu.

Haurtxotekan ere aldaketak

Egindako lanekin batera, irakurzaletasuna sustatzeko zenbait ekintza ere martxan daude Eskoriatzako bibliotekan; irakurketa klubak eta literatura solasaldiak, esaterako. Eta horiekin jarraitzeko asmoa izateaz batera, gaztetxoek irakurzaletasunera bultzatzeko saiakerak ere egin nahi dituzte. Hain zuzen ere, haurtxotekako gunean eragin nahi dute, eta hasi dira horretan ere. "Haurtxotekako eremua aldatzen ari gara, txukuntzen... Puf batzuk jarri ditugu... Asmoa da haurtxoteka eremu erosoagoa izatea", adierazi du Benitok.

Zalantzak argitzeko bidea

Udal bibliotekako arduradunek adierazi dutenez, edozein zalantza edo kontsulta egin nahi duenak 674 11 19 55 *whatsapp*-zenbakia erabilgarri dauka.



Iaz, Kintada Egunean, 2007an jaiotako eskoriatzarren erretratu. ITZIAR BENGOA

Dantzan eta eskean aritzeko prest daude 2007an jaiotakoak

49 neska-mutil arituko dira aurten Santa Ageda kantuan, eskean, dantzan eta festa giroan

I.B. ESKORIATZA

2007an jaiotako eskoriatzarren txanda izango da aurten Santa Ageda neska-mutil aritzeko. 49 lagun dira urte hartan jaiotakoak, eta prest daude kantu-eskean aritzeko, dantza egiteko eta festarako.

Egitaraua zehaztuta dago

Datorren martitzenean, otsailaren 4an, baserriz baserri arituko dira kantu-eskean. Eguaztenean, otsailaren 5ean, berriz, ikastetxeetara joango dira, eta, Santa Ageda Eguna izanda, arratsaldeko zazpietan dantzak egingo dituzte, Fernando Eskoriatza plazan, bertaratzen diren herritar guztien aurrean. Lehenengo saioaren ondoren, otsailaren 9an, domekan, berriz egingo dituzte dantzak jendaurrean. Tartean, otsailaren 8an, Kintaden Egunean bazkaria egingo dute 2007an jaiotako herritarrek;

hain zuzen ere, Itzartu Gazte Asanbladako kideek antolatutako Manuel Muñoz kiroldegian egingo den herri bazkaria baturako dira, herriko beste hainbat kintadarekin batera.

Entsegu ugari egin dituzte

Herritar guztien aurrean dantzak egiteko entseguen buru-belarri izan dira iaztik, eta esperientzia aberasgarria izaten ari dela nabarmendu du 2007an jaiotako Itziar Bengoa eskoriatzarrek. "Abenduaren 23an eta 26an eta urtarriaren 3an eta 5ean egin genituen lehenengo entseguak, eta, haien ostean, astelehenean eta eguenean batu gara entseguak egiteko. Maider Otamendi eta Aiora Diaz de Gereñu eskoriatzarrek aritu dira irakasle, eta, azken hiru entseguak txistulariekin eginda, azken bi entseguak frontoian egingo ditugu, espazio handiagoa ohitzeko".

Astunera eskiatzera joateko irteera antolatu dute

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, otsailaren 22an eta 23an Astunera eski-irteera izango da. 220 euro izango da asteburu-pasaren prezioa, eta autobusa, gau baterako mantenu-erdia eta bi eguneko forfaita daude barne. Izena eman nahi duenak otsailaren 8a aurretik egin beharko du, Namas-te belar-dendan.

Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldearen ikuskizuna domekan

Oñatiko Ikusi Makusi erretiratu taldeak *¿Cuántos años tiene amama?* antzezlanaren egindako ikuskizuna domekan, Eskoriatzako Zaldirar antzokian, 19:00etan. Asun Arzuagak zuzendu eta idatzitako obra da, eta ikusleek umorezko emanaldi batez gozatzeko aukera izango dute. Sarrerak alde aurretik egongo dira, salgai bost eurotan, kiroldegian.



Eskoriatzako bibliotekan isiltasunean ikasteko eta irakurtzeko egin duten eremu berria. OLAIÁ BENITO



Erabilera askotariko espazioaren eskuinaldean dago eremu berria, Jakioneko bulegoa zegoen tokian. IMANOL BELOKI

Zerbitzu ugari eremu berrian

Gatzagako Hautesle Elkarteko kideek erabilera askotariko espazioa jarri zuten martxan iaz: batetik, liburutegia dago eskolako zegoen tokian; Jakioneko bulegoa zegoen alboko lokalean, berriz, herriko eragileentzako zenbait zerbitzu eskaintzen dituzte

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako erabilera askotariko udal lokala egokitze lanen barruan, eraikinaren alde batean –eskola zena– ludoteka, liburutegia, euskaltegi zerbitzua eta hitzaldi edo aurkezpenetarako eremua daude. Alboko lokalean, hau da, Jakion enpresaren bulegoa zegoen tokian, berriz, bilera-gela bat, podologia, ile-apaindegi eta fisioterapia zerbitzuak eta kultura taldeentzako bilgunea ahalbidetzen dituen gunea.

Egin beharreko lan guztiak iaz amaituta, ordutik hona martxan izan dituzte zerbitzu guztiak. Guztira, 51.140 euroko aurrekontuarekin egin dituzte lokaleko lanak, eta diru kopuru horren 25.365 euro Europar Batasunetik jasotako laguntza izan da; 6.341 euro, berriz, Eusko Jaurlaritzaren laguntza.

Elkarteentzako bilgune

Herriko taldeek batzarrak egiteko lokala Gurel Guraso Elkarteko kideek, Sorginak Emakume Elkarteko kideek, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kideek eta Toki Eder Erretiratuen Elkarteko kideek erabiltzen dute. Horrekin batera, komuna dute, behar izanez gero ordenagailua...

Zerbitzuak ere martxan dituzte. "Podologia eta fisioterapia zerbitzuak guk kudeatzen ditugu. Fisioterapia zerbitzua hileko azkenengo asteko astelehenean izaten da, hitzordua Labidean hartuta, eta podologia,

PODOLOGIA ETA FISIOTERAPIA ZERBITZUETARAKO TXANDAK LABIDEAN KUDEATZEN DITUZTE

berriz, bi hilean behin, ostiral batean izaten da, eskaria ere Labidean eginda", adierazi du Perico Orobengoak, Toki Eder Erretiratuen Elkarteko kideak. Gaineratu duenez, garbitasunaz profesional bakoitza arduratzen da, eta garbiketa orokorra ere egiten dute aldiro.

Profesionalak, gustura

Ile-apaindegi zerbitzuaz Ainhoa Barandiaran gatzagarra arduratzen da: "Eguazten arratsaldeetan egoten naiz, baina, normalean, aurrez eskatzen dute hitzordua, telefonoz. Pozik nago orain artekoarekin...". Fisioterapia zerbitzua, berriz, Ibai Agirreurreta gatzagarra eskaintzen du: "Herriarren egoera baloratzen dut, autonomoagoak izaten lagundu, indarra hartzeko lanketa ariketak prestatu, eta, minik badago, tratamenduetara bideratu...".



Herriko taldeek batzarrak egiteko eremua. IMANOL BELOKI



Ibai Agirreurreta fisioterapeuta gatzagarra. AIKE NUTRIKIROL



Ile-apaindegi zerbitzua eskaintzeko prestatutako gunea. IMANOL BELOKI



Erabilera askotariko espazioaren komuna. IMANOL BELOKI

Hamalau lursail erostea onartu du udalbatzak

Biodibertsitatea zaintzeko ekimenak sustatzen jarraitzeko 18 hektarea erostea onartu zuten aho batez astelehenean; bestalde, herritar batek Venezuelako hauteskondeen bueltan aurkeztutako mozioa ez zuten onartu: EH Bilduk aurka bozkatu zuten; EAJk, alde

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Astelehenean egin zuen Bergarako udalbatzak urteko lehen osoko bilkura. Udal Gobernuko bederatzi zinegotzik eta EAJko sei ekiztabaidatu zituzten gai-zerrendan jasotako gaiak –PSE-EEko Alberto Alonso ez zen osoko bilkuran izan–; besteak beste, aho batez onartu zuten Bergaran lursailak erostea, bertako biodibertsitatea zaindu eta areagotzeko ekimenak sustatzeko.

60.000 euro 14 lursail erosteko
2012an onartutako *Biodibertsitatearen aldeko konpromisoa* egikartzeko hainbat proiektu eraman ditu aurrera Bergarako Udalak azken urteetan. Esaterako, 2023ko urrian emandako dekretuaren bidez erabaki zen 30.000 euro garrantzi berezia duten eremuetako lursailen erosketara bideratuko zela, eta beste 30.000 euro lurzoru emanorra zaindu eta babestera. Hala, lehen kasurako, mendi-lursailen 34 eskaintza jaso dituzte, eta bigarrenarako bat ere ez. Horregatik, 60.000 euro bideratuko dituzte garrantzi berezia duten eremuetako lursailen erosketara, eta, behin-behingo, hamalau lursail erostea onartu dute.

EH Bilduko bozeramaile Maitte Usabiagak nabarmendu zuen asmo komertzial barik harago egingo direla erosketak horiek, eta balioa eman zien Kukubasoren auzolanari eta, urrutira joan gabe, domekan Askatsun egin zuten bertako 500 zuhaitzen landaketari: "Azkenaldian garatzen ari garen estrategia da bertako espezie autoktonoak landatzeko, beste asmo komertzial batzuetatik harago eta biodibertsitatea zaintzeko. Estrategia bat da, herritarrekin batera eramaten ari garena, eta bidelaguna den Kukubasok eramaten ditu aurrera landaketak".

Jeltzaleak alde agertu ziren, lursail horiek erosteak daukan

"helburu positiboagatik", baina salatu zuten Udalaren jabetzakoak diren hainbat lursail ez daudela "behar bezala kudeatu eta edo mantenduta".

Venezuelaren gaineko mozioa
Alabaina, eztabaida sortu zuen gaia izan zen, gai zerrendatik kanpo, Bergaran bizi den venezuelar batek aurkeztutako mozioarena. Hark eskatzen zuen Edmundo Gonzalezek urtarriaren 10ean egindako deialdiarekin bat egitea, baina udalbatzak ez zuten onartu, EAJk alde bozkatu arren EH Bilduk aurka bozkatu zuelako. Mozioak hau jasotzen zuen: "Nicolas Maduroren erregimenak burututako giza eskubideen urraketak gaitzestea; erregimenak bahitutako askapena; adierazpen askatasuna errespetatzea; biolentzia, tortura eta beldurra arma politiko gisa erabiltzen ari diren goi-karguak nazioarteko giza

60.000 EURO BIDERATUKO DITUZTE GARRANTZI BEREZIA DUTEN EREMUETAKO LURSAILAK EROSTERA



Aurtengo zuhaitz landaketa Udalak erositako Askatsu lursailen. KUKUBASO ELKARTEA

eskubideen auzira eramatea; eta larderiazko erregimenak kontrolpean dituen Venezuelako kontsulatu eta enbaxaderefluxiatu estatusa duten venezuelarrei arazo politikoengatik zailtasunak jartzen dizkietela salatzea".

EH Bilduk hartu zuen hitza, eta esan zuen jakitun dela egoera ez dela batere erraza, baina uste duela Venezuelako herriari dagokiola gatazka politikoa geratzeko. Bilduren ustez, ez da konfrontazioa elikatzeke unea, eta mozioak hori bilatzen zuela. Dena den, Venezuelako herriari elkartasuna erakutsi zion eta gatazka modu eraikitzailean konpontzeko dei egin zuen. Usabiagak gaineratu zuen "beti" egon direla "prozesu demokratikoen alde eta giza eskubideak urratzen dituztenen kontra".

Harriduraz hartu zuen EAJk EH Bilduren ezezkoa. Jeltzaleek salatu dute Maduroren Gobernuak ez dituela argitaratu hauteskondeen "emaitza zuzenak" eta Gonzalez Urrutiak irabazi zituela hauteskondeak. EAJko bozeramaile Mikel Leteren ustez, ez da "eskuin edo ezker" kontua.



Hainbat ikasle, Herri Ekimen Legegilearen alde sinatzen, Miguel Altunan. I.U.

Herri Ekimen Legegilearen aurkezpena kartzela zaharrean

HEL aurkeztu eta sinadurak bildu dituzte Bergarako pentsiodunek San Joxepen eta Miguel Altunan

I.A.A. BERGARA

Herri Ekimen Legegilearen aurkezpenak eta sinadura-bilketak egin ditu aste honetan Bergarako Pentsiodunen Mugimenduak, San Joxepen eta Miguel Altuna Lanbide Heziketan. Bihar, kartzela zaharrean izango dira, Gazte Mugimendurekin, 11:30ean.

Joan den astean egin zuen Duintasuna Elkarteko Jesus Soubisek hitzaldia, Herri Ekimen Legegilearen xehetasunak emateko. Lanbide arteko gutxieneko soldataren %100en balioidea eta gutxieneko pentsioetan dagoen

genero-arrakala murrizteko ekimena da. "Hamahiru artikulutan azaltzen da ze baldintza bete behar diren hori kobratzeko. Gizarte Segurantzako gehigarriak jasotzeko behar diren baldintzak dira, gutxi gorabehera", dio Soubiesek. 10.000 sinadura behar dituzte Legebiltzarrean eztabaidatu eta onar dezaten, eta, dagoeneko lortu arren, gehiago nahi dituzte.

Bestalde, otsailaren 20ra arte eman diote Espainiako Gobernuari pentsioak igotzeko dekretua indargabetzeko. Hori gertatu ezean, otsailaren 22rako mobilizazioak deitu dituzte.

1,9 milioi eurokoa da EAJren aurrekontu-proposamena

Jeltzaleek atzo aurkeztu zizkieten Udal Gobernuari 2025eko aurrekonturako 22 proposamenak

I.A.A. BERGARA

Bergarako EAJk 2025eko aurrekonturako 1,9 milioi euroko 22 proposamen aurkeztu dizkio Udal Gobernuari. "Aurrera jarraitzeko behar-beharrezko proposamenak" dira, aurrekontuaren %5. Pertsonak, zaintza, etxebizitza, sustapen ekonomikoa eta energia dituzte ardatz.

Proposamen horiek arlo hauetan banatu dituzte: gizarte zerbitzuak (315.000 euro), energia (260.000 euro), kirola (50.000 euro), auzoak (320.000 euro), obra eta zerbitzuak (133.000 euro), gazte-

ria (5.000 euro), hirigintza (125.000 euro), etxebizitzak (600.000 euro) eta sustapen ekonomikoak (115.000 euro).

Jeltzaleen proposamen horietatik nabarmendu dituzte etxebizitza gabeziari aurre egiteko plana garatzea (600.000 euro); Eguneko Arreta Zerbitzua eta etxez etxeko zerbitzuak uztartzeko lizitazio bateratua ateratzea (150.000 euro); eta, azkenik, energia berriztagarrien partida mantentzea (170.000 euro) eta ibilgailu elektrikoendako karga-puntuak jartzea (90.000 euro).

"Laguntza handia izan dut, Udalean eta herrian"

ESTEPAN PLAZAOLA UDALEKO EUSKARA SAILEKO TEKNIKARIA (1990-2025)

Martxoan erretiratuko da Plazaola, teknikari izateaz harago euskalgintzari bizitza eskaini dion euskaltzalea. Oñatin bizi den Ane Albisu donostiarrak hartuko dio lekukoa

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Ohi bezain jator eta gertuko hartu du Estepan Plazaolak (Arrasate, 1961) GOIENA Bergarako udaletxean. Martxoan erretiratuko da 1990a ezker lantoki izan duen Euskara Sailetik. Atzera begiratzeaz gain, aurrera begira ere jarri da: "Udaleko lana amaituko da, baina euskalgintzarekin lotura ez dut galduko bizi naizen artean".

Hasteko, zer moduz zaude?

Ondo. Lan-bizitzako azken txanpan, ordezkoa izango denari erreleboa ahalik eta ondoen emateko gogoz. Martxoan hartuko dut erretiroa, eta pozik nago, ze ordezkoa dagoeneko gurekin lanean dabil eta pentsatzen dut helburua ondo beteko dugula.

Erretiratu osterako zein asmo duzu?

Ez daukat aparteko asmorik: etxekoei tarte handitxoagoa eskaini, ariketa gehitxoago egin, euskararen edo gertuko historiaren inguruan lantxoren batzuk egin... Eskulanean eta konponketetan ere gustura jarduten dut... Denborak esango du.

35 urte egin dituzu Bergarako Udaleko Euskara Sailean; mugarririk berezirik azpimarratuko zenuke?

Izan dira une bereziak. Laneko lehen urtean, adibidez, oso garrantzitsua izan zen Jardun euskara elkartearen eta *Berrigara* aldizkariaren sorrera. 1995ean, Udaleko Erabilera Plan Pilotua jarri genuen martxan, Antzuolarekin batera. Oraintsuago, 2022an, enpresetan euskara bultzatzeko *Harixa* programa jarri genuen martxan... Baina garrantzitsuena urte hauetan guztietan finkatu den ibilbidea da. Udal Gobernuan edozein talde egonda ere, euskara sustatzeko adostasun sendoa egon da, eta horretan udal langileek ere izan duten protagonismoa azpimarratuko nuke.

Euskara teknikari hutsa izateaz harago, Bergarako euskalgintzaren erreferente bat izan zarela uste dute askok; ados zaude?



Estepan Plazaola, asteon, 1990a ezker lantoki duen udaletxea atzean duela. J.B.L.

"AKTIBAZIO-ARIKETA ITZELA IZAN ZEN JARDUNEN SORRERA, EGUN ERE EREDUTZAT HARTZEKO MODUKOA"

Nik beti esan izan dut zorteko izan naizela gustuko lana izan dudalako. Lana pasioz bizi izan dut, lanera gogoz eta ilusioz joan izan naiz, eta batzuetan sufritu baina beste askotan gozatu ere egin dut. Laguntza handia aurkitu dut bai Udalean, bai herrian. Ez dakit erreferentea izan naizen, baina egindakoa jende askoren elkarlana da, eta haiei denei eman nahi dizkiet eskerrak eta animoa aurrera jarraitzeko.

Nola oroitzen dituzu Jardun sortu eta osteko lehen urrats haiek?

Nire ibilbideko pozik handientako bat izango zen. Lanean hasi eta lau hilabete pasatxora, Jardunen sorrera-ekitaldia izan genuen, eta 250-300 lagun elkarrekin UNEDeko aretoan. Benetako aktibazio-ariketa bat izan zen, gaur egun ere eredutzat hartzekoa. Jardun bezalako elkarte bat izatea sekulako indar-

gunea da; pozik nago urte hauetan guztietan izan dugun eta egun ere dugun lankidetzagatik. **Goiena Komunikazio Taldearen sorreran ere izan zinen; nolako izan zen bateratze-prozesu hura?** Oso ariketa polita izan zen. Debagoieneko euskara elkarteek, tokiko hedabideek eta udalek bat egin genuen, eta Euskal Herri mailan erreferente den proiektu bat jarri genuen abian.

2000tik 2013ra izan zinen Goienako presidente; nola ikusten duzu Goienak gaur egun egiten duen lana?

Oso lan garrantzitsua da. Horrelako komunikabide-talde bat euskaraz edo erdaraz izateak ikaragarri baldintzatzen du arlo askotako hizkuntza-jarduna: merkatariena, kultura arlokoa, kiroltako, udal-politikarena... Informazio hutsetik harago, sormenerako eta gozameneko plaza garrantzitsua ere bada. Adibidez, umeentzako Kantari programak ehunka ume jartzen ditu euskarazko kantuekin gozaten. Antzeko zerbait gertatzen da Danbakarekin. Etorkezunean ere oso garrantzitsua izango da umeak, gazteak, familiak... Goienaren komunitateko partaide aktibo izatea.



NIRE USTEZ

EIDER NAJERA

Otsoak yateetan

Erdaratik ekarritako esamoldeari aurre eginez, ez, ez gaude denok barku berean. Batzuek yate erraldoietan hartzen dute atsedean, beste batzuk barku txiki edo txalupetan ari dira arraunean edota marearen pe, eta beste asko, La Mantxako kanalean, Mediterraneo itsasoan edo Bidasoa ibaian ito dira. Norbaitek noizbait txalupan zure ondoan dagoena zure etsaia dela sinestarazi nahi badizu, egin ihes. Baditut froga nahiko argelotasun hori kutsakorra dela esateko. Ez utzi gorroto-diskurtsoei fokua desbideratzen. Arazoa ez dira etorkinak edo errefuxiatuak, arazoa ez dira gauez kutzazainetan babes hartzen duten pertsonak, arazoa ez dira denontzat diren zerbitzu eta eskubideak defendatzen dituzten talde edo manifestazioak. Arazoa da gure bezalakoa desberdintzat ikustea, eta diskurtso hori sinestarazi nahi diguten horiei lekua eta legitimitatea ematea, ideia aberastasunaren, tolerantziaren eta pluralismoaren defentsan. Kontuz ibili benetako etsaia edota mehatxua zeintzuk diren gaizki identifikatzearekin, ondo dakite ezkutaketan jolasten eta, ardiz jantzita, baina beti yateetatik begira.

OHARRAK

Bergara Kantuan, Santa Ageda bezperan

Jardunek, musika eskolak eta Udalak kantuan irteteko dei egin dute; otsailaren 4an izango da, San Martin plazatik (19:00). San Joxepeko korua eguerdian irtengo da kantuan, eta Alaiberri taldekoek kalejira Mizpirualdetik abiatuko dute, 18:00etan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots: sarrerak

Martxoaren 1eko *Ostirala iritsi da!* ikuskizunerako sarrerak otsailaren 5ean jarriko dituzte salgai, 18:00etatik 20:00etara Seminarixoko leihatilan eta 19:00etatik aurrera *seminarixoa.eus*-en. Sei sarrera erosi ahalko dira, gehienez, sei eurotan.

Mintzapraktika-saioak: hiztun berrien bila

Udalak eta Jardunek martxan jarri dituzte euskararen erabilera eragitea helburu duten saioak: irakurketa-saioak, guraso-lagun taldeak, hika-lagun taldeak, berbalagun ibiltariak eta ortulagun ekimena. Izena emateko, Jardun elkartera jo.

Miguel Okinaren pinturak ezagutzen

Okinaren jaiotzaren mendeurrenaren bueltan, otsailaren 8an Sagarpe elkartera joango dira, hango koadroak ezagutzera. Beart elkarteak antolatuta du bisita gidatua: 613 44 82 17.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altxariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Enpresa Registrada N°99/025

Emakume eskalatzailen komunitatea saretzen

Domekan egingo dute Bergarako Neska Eskalatzailen I. Topaketa, Labegaraietan; ekimenaren helburuak dira elkarren arteko harremanak sendotzea, komunitatea indartzea eta ikusaraztea herrian badirela emakume eskalatzaille erreferenteak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Azaroan ideia zena errealitate bilakatuko da domeka goizean; izan ere, Bergarako Neska Eskalatzailen I. Topaketa egingo dute Labegaraietako rokodromoan. 16 urtetik gorako emakume eskalatzaille bergararrei zuzenduta dago. Maddi Mujika eta Jone Agirrezabal dira antolatzaileetako bi, eta biek adierazi dute urtean zehar antolatzen diren bi eskalada-topaketetan –Mokoloblok eta rokodromoko topaketa– "oso neska gutxi" agertu izan direla beti. "Herri mailako azken topaketan ez zuen emakume batek berak ere parte hartu", azpimarratu du Mujikak.

Arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen taldean hausnartzen hasi, eta hainbat arrazoirekin egin zuten topo, baina atera zuten ondorioetako bat izan zen Bergarako emakume eskalatzailen artean gutxi ikusten dutela euren burua halako formatu batean. Horregatik, "oztopoak" identifikatu eta beste formatu bateko topaketa antolatzea erabaki zuten, "parte hartzaileak eroso egon zitezten espazioa sortuta eta guk geure buruarekiko dauzkagun hainbat aurreiritzi apurtzeko erraztasunak jarrita".

Begarako Udalak emakumeen eta kirolaren arteko gaiari eutsi



Antolakuntzako kide Maddi Mujika, Amaia Osa eta Amaia Etxebarria rokodromoan. I.A.A.

dio, eta, testuinguru horretan, Pol-Pol mendi elkartearen izenpean zabaldu dute domekako proposamena.

Helburu nagusiak

Jolas giroan Bergarako emakume eskalatzailen harremanak sendotzea, komunitatea indartzea eta herriko eskalatzailen artean emakumezko erreferenteak ere badirela ikusarazi nahi dute ekimenarekin. Agirrezabalen iritziz, askotan ikusi dute emakumeen profila indartzeko beharra eskaladan, eta horren atzean,

besteak beste, emakumeen irudia, kirolarekiko jarrera eta ziur ez sentitzea egon daitezkeela dio. Egoera horiei buelta ematen hasteko aukera egoki ikusi dute topaketa.

"Herri mailako topaketetako emakumeon parte hartzea txikia izanik, Bergaran emakume eskalatzailerik ez dagoela eman dezake, eta hori hausteko modu aproposa iruditu zaigu domekako jaia antolatzea. Ideia horri forma eman ahala eta hausnarketarako aprobeztatuz, indibidualak ziruditen testigantza

asko partekatzen ditugula ohar-tu gara", gehitu du Mujikak.

Goiz-pasa rokodromoan

"Jai" moduan planteatu dute antolatzaileek domekako topaketa. 10:00etarako egin dute elkartzeko deialdia, eta 10:30ean hasiko dute topaketa. Rokodromoan "zintzilikatu" aurretik, beroketak egingo dituzte, eta horren ostean hasiko dira, taldeetan, antolatzaileek prestatu dituzten eskaladako ariketak praktikatzan. Goiza rokodromoan pasa ostean, luntxa egingo dute, eta antolakuntzakoek partaideei eskatu diete jateko zerbait eramateko.

Maila ez da aitzakia

Antolatzaileek adierazi dute asko beldur direla duten mailagatik, baina argi utzi dute ez dabiltzala eskalatzaille profesionalen bila: "Goiz-pasa hori ez da txapelketa bat izango, elkar ezagutzeko aitzakia baizik, eta maila guztietako eskalatzailentzako saltsa egongo da. Guk guretako antolatutako jaia da, eta erronkak asmatuko dituen taldea parte-hartzaileen profil antzekoa izango da".

Izen-ematea zabalik dago

Bihar itxiko dute izen-ematea, baina dagoeneko 35 emakumek eman dute izena. Zalantza zeukaten hogeitaz lagunera iritsiko ote ziren, baina Mujikak aurreratu du izen-ematea zabaldu eta bi egunean hogeitaz eskalatzaille bazirela: "Orduan ohartu ginen jendeak zeukan interesaz, eta 30-40 bitarte izan gintezkeela pentsatu genuen". Horren harira, Agirrezabalek nabarmendu du argi geratu dela herrian uste dutena baino neska eskalatzaille gehiago daudela.

Hain zuzen, Agorrosinen, rokodromoan edo labur.eus/3od-wA webgunean eman daiteke izena. Dena den, aurreratu dute domekan izenik eman ez duen inor agertzen bada ez dutela kanpoan utziko, baina antolatzaileen lana zailduko lukeela: "Askok eskertuko genuke aurrez izena ematea".

Jarraipena datozen asteetan

Kontziente dira eskalada probatu edo horretan hasi nahi dutenak kanpo geratzen direla, eta, horregatik, haiendako lau saio antolatu dituzte otsaileko eta martxoko asteburuetarako: "Inoiz eskalatu ez duten emakumeentzako aukera izango da. Baita euren kabuz eskalatu baino taldean trebatu nahiago dutenentzat". Agirrezabalek uste du emakumeendako saioak bakarrik izanda "bestela animatuko ez litzatekeen jendea animatuko dela, eta inguru seguru eta polita sortu daitezkeela".

Alabaina, bigarren edizioaz galdetuta, atea zabalik utzi dute. Mujikaren ustez, behar batetik sortutako topaketa denez, behar hori dagoen bitartean eutsi egin behar litzaioko: "Domekako eta hurrengo topaketen ostean egin beharreko hausnarketa izango da, eta jendearen interes eta konpromisoak ere zeresan handia izango du". Agirrezabalek espero du egitea: "Gure artean elkartu, eskalatzaille berriak ezagutu eta komunitatea ahalduzko aitzakia ona da".

DATOZEN ASTEETAN LAU SAIO EGINGO DITUZTE, ESKALADA PROBATU NAHI DUTEN EMAKUMEENDAKO

Euskal Ligako igoera jokoan

Goizper BKE Gipuzkoako txapeliduna izan da, ID Trans Bidasoa Iruni 23-26 irabazita. Gaurtik domekara jokatu dute, Labegaraietan, Euskal Ligako igoera faseko partidua Bergarak, Errotabarrik, Ereintzak eta Elgoibarrek, eta hauxe da bergararren egutegia: Errotabarri-Bergara (gaur, 19:00); Ereintza-Bergara (bihar, 19:00); eta Bergara-Elgoibar (etzi, 13:00).



BERGARAKO ESKUBALOI SAILA

Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa Agorrosinen

Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa jokatu dute, zapatuan eta domekan, Agorrosingo igerilekuan, infantil, junior eta absolutu mailetak 200 igerilarik. Bi egunetan, goizez 10:00etan hasita eta arratsaldean 16:30ean hasita izango dira jardunaldiak.

Begarako 24 igerilarietaz gain, Oñatitik, Irundik, Azkoititik, Azpeititik, Legazpitik, Eibartik,

Hernanitik, Lasartetik eta Donostiatik etorriko dira. Bergarako igerilarien helburua da norbere markak hobetzea, Euskal Herriko eta, ahalko balitz, Espainiako txapelketarako sailkatzeko. Ane Alberdi da horietako bat, eta duela pare bat aste GOIENARI adierazi zion crawl eta bizkar modalitateetako 100 metrokoan Espainiarako gutxieneko marka lortzea dela haren helburua; 50 metrokoan badu gutxieneko marka hiru modalitateetan.



Bergarako Buztinzale Elkartearen erakusketa Aroztegin. LUKEN UGARTEBURU

Urtean zehar egindako piezak ikusgai Aroztegin

Begarako Buztinzale Elkarteko hamabost kideren 30 bat lan ikus daitezke, domekara arte, Aroztegi aretoan jarri duten erakusketan; 38 kide ditu elkarteak eta izena eman gura duenak elkarteko kideren batekin harremanetan jarri besterik ez du

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Begarako Buztinzale Elkartek, urtero moduan, erakusketa jarri du Aroztegin, urtean egin dituzten lanak herritarrei erakusteko, eta domekara arte egongo da ikusgai, honako orduetegi honetan: gaur, 18:00-20:30; bihar 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta etzi, 12:00-14:00. Hala, elkarteko hamabost kideren 30 lan inguru ikus daitezke; batik bat, tornuarekin egindako lanak –katiluak, platerak...– eta eskulturak.

Buztin-motei dagokienez, Buztinzale Elkarteko kide Alicia Garciak adierazi du tornurako gehien erabiltzen dena buztin gorria dela, merkeena delako. Alabaina, eskulturen kasuan, txamota duen buztina izaten da, errazagoa baita moldatzeko, eta, erakusketan ikus daitekeenaren arabera, gehienak zuriak eta beltzak dira. Horren gaineko azalpena eman du; izan ere, bi modu daude buztinarekin egindako lanak egosteko: labe baxua –tenperatura baxuan egosten

duena– eta labe altua –tenperatura altuan egosten duena–. "Labe baxuan buztin gorria egosten da; tenperatura altuan buztina lehertu ez dadin, txamotarekin nahasten da", azaldu du.

Alicia Garciak aurreratu du "maila oso ezberdinetako" lanak ikus daitezkeela: "Batziek urteak daramatzate buztzingintzan, eta maila handia daukate; beste batzuk, berriz, duela gutxi hasi dira, eta igartzen da".

38 kide elkarte

40 urte baino gehiago daramatza Bergarako Buztinzale Elkartek, eta egoera aldatu egin dela dio Garciak, garai batean ez baitzegoen "ia-ia bazkiderik", eta "orain booma" izan duela uste du. Iaz

BESTEAK BESTE, KATILUAK, PLATERAK ETA ESKULTURAK JARRI DITUZTE ERAKUSKETAN

antolatu zuten tailerlean jende askok eman zuela izena adierazi du. Gaur egun, 38 kide dira elkartean: "Herrian interes berezia daukan arloa da, baina asko, izena eman arren, ez dira etortzen. Norbera nahi duenean joaten da. Askotan, bakarrik etortzen gara, eta, azkenean, jarraipena izatea ez da horren erraza. Sarritan, gainera, ez dago mugimendu handirik".

Zabalotegin Bergarako Udalaren lokalean elkartzen dira, eta "arazoekin" dabilzala adierazi du Garciak, labe bat matxuratu egin baitzaie. Dena den, berria erostekotan dira.

Dagoeneko 38 kide izan arren, jende gehiago hartzeko ateak zabalik dituzte, eta interesa duenak elkarteko kideren batekin harremanetan jarri behar du: "Gugana etorri eta izena eman dezala. Ditugun baliabideak, lokala eta arauak erakutsiko dizkiogu, eta aurrera. Ez dago beste filtrorik. Urtean 65 euroko kuota daukagu".

'Bilintx'-en bizitza, haurrei kontatutako antzezlanean

'Moko' obra egingo du Gorakada antzerki taldeak bihar, Seminarixoa; sarrerak salgai daude, lau eurotan

I.A.A. BERGARA

Gorakada antzerki taldeak 6 urtetik gorako haurrentako *Moko* antzezlanea taularatuko du bihar, Seminarixoa, 18:00etan. Eneritz Artetxe, Gaizka Chamizo eta Maren Basterretxea dira aktoreak, eta eurekin batera txotxongiloak izango dira oholtzan, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* euskal poeta eta bertsolariaren bizitza kontatzeko.

Enpatia eta tolerantzia

Estreinatuta berri duten obra da, eta enpatiaz, errespetuaz eta

tolerantziak hausnartzen du: "Beste edozein ume bezalakoa zen. Jolasean aritzen zen, sugandilak, txoriak eta arrainak harrapatzen. Alai, bizi eta ausarta zen. Hain ausarta, ezen bere abenturetako batean altuera handi batetik erori eta kolpeak aurpegia desitxuratu baitzion, betirako. Hala, munduaren begietarako munstro bilakatu zen. Bakarrik geratu zen. Izena galdu zuen. Orduetik aurrera, *Moko* deitzen zioten denek. *Moko*-k ume bat gehiago izan nahi zuen, lagunak eduki, maitatua sentitu".

Mikosis eta Hiuzz taldeen kontzertuak bihar gaztetxean

Gernikako eta Iruñeko taldeek argitaratu berri dituzten diskoak aurkeztuko dituzte, 22:00etan hasita

I.A.A. BERGARA

Oztoporik ez! kolektiboak urteko lehenengo kontzertuak antolatuta ditu biharko. Gernikako Mikosis eta Iruñeko Hiuzz taldeak dira urteko lehen gonbidatuak, eta argia ikusi berri duten bi disko aurkeztuko dituzte, 22:00etan hasita, kartzela zaharrean. Sarrerak zortzi euro balio du.

Mikosis Gernikako rock taldea da, eta post-punketik eta musika alternatibotik ere badu euren musikak. Argitaratu berri duten *Kontrol barik* diskoa da euren

lehen lana, eta horixe aurkeztuko dute kartzela zaharrean. Antolatzaileek adierazi dutenez, "hirukoteak zuzenean eskaintzeko daukan potentziala eta dinamismoa dabilzala inguruko hainbat gaztetxe eta txokotan oholtzaratzen".

Hiuzz, berriz, 2021ean Iruñean sortutako hirukote bat da, eta pop-rockaren bueltan sortzen dituzte abestiak, "melodia argi eta soinu zikinak landuz". *Esperoan* da kaleratu duten azken proiektua, eta euren ibilbideko lehendabiziko lan luzea da.

Kontzertu asko Txapa Irratiaren 40. urteurrena ospatzeko

Txapa Irratiak 40 urte beteko ditu aurten, eta, hori ospatzeko, kartzela zaharrean izango diren hainbat kontzertu iragarri ditu: lehena Aitor Escobarren emandua izango da, otsailaren 23an, 12:00etan; martxoaren 9an, Martxantereekin elkarlanean antolatuta, Anarik joko du, 19:00etan; martxoaren 13an, 21:00etan, Mejillon Tigieren txanda izango

da; eta martxoaren 21ean, 22:00etan, Juan Pablo Balcazar Trio izango da Bergaran. Antolatzaileek aurreratu dutenez, kontzertu batzuetan sarrera kobratuko da eta egunean bertan jarriko dituzte salgai.

Txapa Eguna martxoaren 29an egingo dute, eta irratikide ohiekin bazkaria egingo dute, Pertxa elkartean: "Jai giroan ospatu nahi dugu urteurrena, eta 40 urtean ibili denak ateak zabalik dauzka". Aurrerago, ekintza gehiago egingo dituzte.

"Neskon aukerak geroz eta handiagoak dira"

OLATZ INSAUSTI ETA LEIRE GALEANO PILOTARIAK

Binakako Txapelketako partiduak jokatuko dituzte etzi Antzuolan, Ados Pilota klubak bultzatuta, eta han izango dira bi antzuolarrak. Txapelketaz eta pilotaz jardun dute

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Pilota entrenamendua hasi baino ordubete lehenago egin du GOIENAK hitzordua Olatz Insausti (Antzuola, 2008) eta Leire Galeano (Antzuola, 2007) pilotariekin, udal pilotalekuan. Han elkartu ohi dira ia martitzenero entrenatzeko, "ahal duten guztietan", eta horrela izan da aste honetan ere. Ados Pilota klubaren ekimena den Binakako Txapelketan dihardute egun, eta Antzuolara iritsiko da orain, pilota jaialdia izango baita etzi, otsailaren 2an, 11:30ean hasita. Han izango dira bi pilotariak: Promozio Mailan arituko da Insausti eta Lehen Mailan, berriz, Galeano. Sarrerak bost euroko kostua du.

Pilotalekuan elkartu gara gaur; zer da espazio hau zuendako?

Leire Galeano: Txikitzen hemene hasi ginen pilotan. Nire kasuan, 8 urterekin hasi nintzen, eta hemen jokatu nituen nire lehen partiduak. Orain, ordea, ez ditut horrenbeste jokatzen etxean, eta horretarako aukera dudanean, horrenbestez, poza sentitzen dut. **Olatz Insausti:** 8 urterekin hasi nintzen ni ere, eta kariñoa diot frontoi honi. Egund, ez daukagu aukera handirik, baina polita izaten da hemen jokatzea.



Insausti eta Galeano, martitzenean, pilotalekuan. A.R.K.

Pilotan hasi zinetenetik denbora igaro da; egun, nolako garrantzia du pilotak zuen bizitzetan?

L.G.: Pilotan ez ezik, futbolearen, eskola kirolean, solfeoan, trikitian... hasi nintzen, eta, pilotak inportantzia izan arren eta asko gustatu, gainontzekoekin ere gauza bera gertatzen zitzaidan. Halere, aukeratu beharra izan nuen, ikasketengatik, eta pilotaren alde egin nuen; garrantzia handia du nire bizitzan.

O.I.: Kirol asko egiten hasi nintzen ni ere hasiera hartan, baina, ikasketekin denbora gutxi

dugunez, pilotan zentratzea erabaki nuen.

Binakako Txapelketan diharduzue egun: Olatz, Promozio Mailan zabilta, eta Leire, Lehen Mailan; nola zabilzate?

L.G.: Eneritz Arrieta da nire bikotekidea, eta bi partidu jo-

"PILOTAREN ALDE EGIN NUEN; EGUN, GARRANTZI HANDIA DU NIRE BIZITZAN"

LEIRE GALEANO, PILOTARIA

katu ditugu. Aurrez, behin bakarrik geunden elkarrekin arituta, eta lehen partidua, horrenbestez, elkar gehiago ezagutzeko aprobetxatu genuen; bigarrenetik aurrera hobeto moldatu gara. Txapelketan, luzea denez, inportantea da partidu onak egitea, bikote guztiak oso onak direlako, eta, horrez gain, irabaztea edo, behintzat, tanteo ona izatea. Erregularra izatea ere garrantzitsua da.

O.I.: Nire kasuan, hiru partidu jokatu ditut: lehenengoan, nire bikotekidea [Nahia Vertiz] ezin izan zen etorri; beste pilotari batekin aritu nintzen, eta galdu egin genuen. Gainontzeko biak, ordea, irabazi egin ditugu.

Domekako partiduei dagokienez, ba al daukazue aurreikuspenik?

O.I.: Guk jokatu dugu domekako aurkariaren kontra [Iriarte eta Sotil], eta, lehen partidua nahiko parekatua izan arren, aurreratu egin ginen, azkenean. Dena den, gogorra izango da partidua bien aldetik, aurrelariak joko asko baitu, eta atzelariak ez du hutsik egiten; lan handia egin beharko dugu.

L.G.: Partidu guztiak gogorrik dira, eta domekakoa ere seguru horrelakoa dela; laurok [Ruiz de Larramendi eta Aranburu izango ditu aurkari, Arrieta bikotekide duela] ondo ibiliz gero, asko luzatu daiteke. Ea nolako partidua egiten dugun, baina espero dut gure aldeko eguna izatea eta irabaztea edo, behintzat, puntu hori erdiestea. **Ba al daukazue helburu jakinik txapelketa honetan?**

O.I.: Hasiara batean, txapela erdiestea dut asmozat. Azkenengo aldiz jokatu nuenean txapeldunordea izan nintzen, eta badut arantzatzko hori kentzeko gogo. Halakorik ezin bada

izan, partiduak ondo jokatzea eta eskuko minik ez edukitzea nahiko nuke.

L.G.: Nire helburua partidu bakoitzean ahalik eta ondoen jokatzea da, eta geroz eta hobeto ibiltzea pixkanaka, baita nire bikotekidearekin ere. Ea puntu batzuk lortzeko gai garen eta txapelketa polita egiten dugun. **Gerora begira, pilotan jarraitzeko asmotan al zaudete?**

L.G.: Txapelketak hor daude beti, baita berriak ere; entrenatzen jarraitzeko asmoa dut, txapelketa gehiagotara joateko.

O.I.: Leirek aipatu bezala, partiduak jokatzen jarraitu nahiko nuke, ahalik eta gehien. Denbora eduki artean, behintzat, gozatzen jarraitu nahi dut, ahal den bitartean aukerak aprobetxatzen. Gaizki pasatuz gero, beste kontu bat da...

Ados Pilota klubaren eskutik etorri da txapelketa hau; zer-nolako garrantzia dute horrelako ekimenek?

O.I.: Gu hasi ginenean ez zegoen nesken txapelketarik, beti jokatzen genuen mutilekin, baina orain neskok ditugun aukerak geroz eta handiagoak dira: txapelketa asko daude, eta hori polita da. Beti ikusten ditugu mutilenak, baina neskenak ez dira horrenbeste nabarmentzen. **L.G.:** Neskendako aberasgarria da. Lehenago ez zegoen horrelako aukerarik, baina geroz eta gehiago dabilta zabalitzen egun. Bada, ea horrelako aukerekin neska txikiak ere gehiago hasten diren pilotan jokatzen.

"AHALIK ETA PARTIDU GEHIEN JOKATZEN ETA GOZATZEN JARRAITU NAHI DUT GERORA"

OLATZ INSAUSTI, PILOTARIA

210 sinaduren langa gaintitu dute Antzuolako pentsiodunek

Jaurlaritza herri ekinaldi legegilea gauzatzera bultzatu nahi du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak

A.R.K. ANTZUOLA

Sinadura bilketa martxan du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, gutxieneko soldata eta pentsioak parekatzeko aldarriarekin, herri ekinaldi legegilea gauzatzera bultzatu

nahi baitu Eusko Jaurlaritza. Antzuolako kasuan, herriko pentsiodunek helburu zuten 210 sinadura lortzea, eta langa gaintitu dutela jakinarazi dute. Hala ere, ez dira geldituko, sinadura gehiago biltzeko asmoa

dutela jakinarazi baitzuten astelehenean, hilaren 27an, eginiko elkarretaratzean.

Sinatzeke egunak

Herriko Plazan izango dira sinadurak biltzen, bi egunetan: astelehenean, 12:00etatik 12:30era; eta egubakoitzetan, 11:00etatik 12:30era; horrez gain, egubakoitzetan Zurrategi plazan izango dira, 19:00etatik 20:30era.

Bitartean, asteleheneroko elkarretaratzeekin ere jarraituko dute: 12:00etan, Herriko Plazan.



Pentsiodunen mugimenduak astelehenean eginiko elkarretaratzea. A.R.K.

Olaran, bi astean behin, dantzaleku bilakatuta

Landtxoperen eskutik, dantzarako espazio izaten da zapatuetan, hamabostean behin, Olaran, 17:30etik aurrera. Espazioa "irekia" dela adierazi dute, adinak berdin duela, eta "edozein" dantza egin daitekeela; hara joateko dei egin diete herritarrei

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Dantzaleku bilakatuko da, bi astean behin, zapatuetan, Olaran kultur etxeko beheko aretoa aurrerantzean, Landtxope jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak antolatuta dantzaldiak egiten hasi baitira arratsaldeetan. Lourdes Arenaza da hara joaten den dantzazaleetako bat, eta adierazi du espazio "irekia" dela: "Martitzenetan ikasteko elkartzen gara ikastaroan, baina zapatuetako deialdia zabalagoa da, dantza egin eta ondo pasatu nahi duten herritar guztiei zuzenduta baitago".

Urtarrilaren 11n egin zuten lehen saioa, eta, gaur-gaurkoz, bi egin dituzte, joan den zapatuan, urtarrilaren 25ean, izan baitzen bigarrena. Aurrera begira, gehiago egiten jarraitzeko asmoa dute: datak zehaztuta, otsailaren 1ean eta 15ean, eta martxoaren 8an eta 22an izango dira hurrengoak, gehiagoren esperotan.

Parte-hartzaileek, batik bat, saltsa eta bachata egin dituzte orain arteko zapatuetako dantza saioetan, hori ikasten baitabil-tza martitzenetako ikastaroetan; hala ere, Arenazak azpimarratu du edozein dantza egin daitekeela: "Udalak eman zigun lokala saio zabalak egiteko, ez



Herritar batzuk dantzan joan den zapatuan, hilaren 25ean. MIREIA BIKUÑA

OTSAILAREN 1EAN ETA 15EAN EGINGO DITUZTE SAIOAK; MARTXOKOAK ERE ZEHAZTUTA DAUDE

bakarrik gure dantzekin osatua, baizik eta datorren horrek egin nahi duenarekin; esate baterako, norbaitek trikitia egin nahi izanez gero, ez dago arazorik; hori egingo dugu! Asmoa dantza egin denbora pasatzea da".

Lotsak albo batera uztea

Egindako lehen bi saioetan sei-zazpi dantzazale elkartu dira, eta ekimeneko parte-hartzaileek kezka dute ea jende gehiagorik ez ote den animatuko; hala, horretarako dei egin diete herritarrei. Haien hitzetan, adinak ez du axola, eta lotsak bazterrean uztea da bideetako bat: "Ez lotsatu eta etorri!".

17:30ean irekitzen ditu ateak Antzuolako dantzaleku berriak, eta nekatu arte aritzen dira dantzazaleak gorputza mugitzen, ez baitute ordu-mugarik.

Martitzenetan, Torresoroan

Landtxope elkarteak 2023-2024ko ikasturtean antolatu zuen lehenengo aldiz areto-dantzak egiteko ikastaroa, Udalarekin elkarlanean, eta han dihardute, hain zuzen ere, zapatuetan elkartzen direnetako dantzazale batzuek. Bi talde egiteko asmoa zuten ikasturte honetan, hasiberriena eta arituena, baina, azkenean, ez da posible izan, Lourdes

Arenazaren hitzetan: "Hala, irakasleak esan zigun batzuek itxaron egin beharko genuela, eta besteek, berriz, martxa pixka bat hartu beharko zutela; azkenean, guztiok batera gaude, elkarrekin egiten dugu dantza".

Hain zuzen ere, Estitxu Bravo dantza-irakaslearen gidaritzapean egiten dituzte martitzeneko saioak, 17:00etatik 18:30era bitartean, Torresoroa

aretoan; hala ere, gidaria ez da bakarrik aritzen ikastaroan, sarritan alboan izaten baititu Uxue eta Naroa Martin irakasleak eta, era berean, alabak.

Urriaren 1ean ekin zioten ikasturteari, eta maiatzaren 27ra arte iraungo du. Ondoren, ikasten duten guztia praktikara eramango dute zapatuetako dantza saioetan, hala nahi duenak horretarako aukera izango baitu.



NIRE USTEZ

ALAZNE JAUREGI ALKORTA

FOMO

Whatsapp zabaldu duzu: Irailaren 6an Zetak Illunben, egin zerrrenda eta nik hartuko ditut sarrerak. Sagardotegira martxoaren 23an; bihar azkeneko eguna izena emateko. Maiatzeko zubian zerbait egin nahi badugu mugitu beharra dago, prezioak gora doaz.

Momentu batean pentsatu duzu: ume bat behar dut, edo bikotekide bat Salamancakoa; neure izena zerrrenda guztietan ez idazteko auto-onarpena emango didan pisuzko arrazoi bat.

Pribatutik iritsi zaizu mezua: Bizi honetan ezin da ezer inprobisatu.

Zerrrenda guztietan idatzi duzu zure izena, nahiz eta bezperan erdietara ez duzula joan nahiko jakin badakizun.

Instagram zabaldu duzu, eta eguneko limitera iritsi aurreko algoritmoak reels batean erakutsi dizu: FOMO. Fear of missing out. 50 segundotan azaldu dizu zer den: ingurukoek esperientzia ederrak dituzten bitartean norbera ez egotearen beldurra.

Eta halako batean pentsatu duzu: neuk baino gehiago ote daki honek nitaz?

Udalak salgai ditu Inauterietako bazkarira joateko txartelak

Otsailaren 24a da eskuratzeko azken eguna, eta hiru menu daude aukeran: ohikoa, beganoa eta umeena

A.R.K. ANTZUOLA

Martxoaren 1ean ospatuko dituzte Inauterietako Antzuolan, eta Udalak salgai jarri ditu bazkarirako txartelak, *Entradium* plataforman: ohiko menuak – gildak, patatak txorizoarekin, sailheskia brasan eta pantxineta, kafea eta likorea barne– eta beganoak –gazpatxoa eta humusa, txanpiñoiak, seitan eta piper gorriak, gazta, menbrilloa eta intxaurrak, kafea eta likorearekin– 23 euroko prezioa du –ikasle eta gazteenak, 18koa–; 2-14 urte artekoenak –makarroiak,

txitxi-burruntzia eta browniea–, berriz, 14 eurokoa.

14:30ean izango da bazkaria, pilotalekuan, baina txartela erosten dutenek konpromisoa hartu behar dute mahaiak jartzeko eta jasotzeko; 11:00etarako egin dute deialdia.

Dantza-entseguak

Dantza-saioa egingo dute egun berean, eta Oinarin dantza taldeak iragarri du dagoeneko hasi direla entseguak: astelehenetan izaten dira, 19:00etatik 20:00etara, Torresoroan.

Santa Ageda eskean arituko dira martitzen arratsaldean kalean

Anelkar Elkartasun Taldeak antolatuta, Santa Ageda eskean egingo dute otsailaren 4an, Alboradak txistulari taldearekin eta abesbatzarekin. 18:00etan hasiko da, Herriko Plazan, eta antolatzaileek gazteei batzeko dei egin diete, euren beharra dutela jakinarazita. Jasotzen den dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuetara bideratuko da.



2024an santa-eskean. ANELKAR



Elgetako udaletxeko areto nagusia beteta Patxi Basauriren omenezko ekitaldian. I.A.

Aretoa beteta Basauriri egindako omenaldian

Udaletxeko areto nagusia txiki gelditu zen jeltzaleek Patxi Basauriren omenez antolatutako ekitaldirako. 31 urteko alkate ibilbidean egindako lana azpimarratu zuten, eta testigantza eman zuten Basaurirekin batera lan egindako hainbat lagunek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Urrian hil zen 31 urtez Elgetako alkate izandako Patxi Basauri Elkoro, eta hura omenezko ekitaldia egin zuten jeltzaleek udaletxeko osoko bilkuren aretoan hilaren 24an. Aintzane Oiarbidek eta Iker Lakak gidatutako ekitaldian, Basauri alkate izandako urteetan -1976-2007- Elgetak izandako bilakaera azpimarratu zuten.

Basaurirekin batera udaletxean -Gobernuan zein oposizioan- egondako taldekideak zeuden

ekitaldira joandakoen artean. Baita inguruko herrietako alderdikideak, egun legebiltzarkide diren bailarako Aitor Urrutia, Elena Lete eta Marijo Etxegoien eta Gipuzkoako Buru Batzarreko presidente ohi Joseba Egibar ere. Hainbat herritar eta Basauriren ostean Elgetako alkate izandako Oxel Erostarbe ere bertan ziren.

Musika eta hitzartzeak

Basauri Elgetako abesbatzako kide zen, eta bi kantu abestu zituen taldeak. Abesbatzako Lo-

rea Larrañagak kantatzea zenbat gustatzen zitzaion aipatu zuen, eta abestien artean *El camino verde* kantua gustatzen zitzaioela, bereziki. Hileta-elizkizunean kantatzeko eskatu zien Basaurik koruko kideei; orduan ez, baina omenaldian kantatu zuten. Ho-

BASAURIREKIN BATERA LANEAN ARITUTAKO HAINBAT LAGUNEK HARTU ZUTEN HITZA



Basauriren lantaldekoa izandako Kontxi Ibarluzea eta Aintzane Oiarbide. L.Z.L.



Elgetako abesbatza kantuan. L.Z.L.

rrekin batera, Elgetako ereserkia ere abestu zuten.

Garikoitz Mendizabalaren txistu-doinuak ere izan ziren ekitaldian, eta, horren ondotik, alkatetzan emandako 31 urteko ibilbidearen erreposoa egiteko hainbat lagunek hartu zuten hitza: Izaskun Larreak, Kontxi Ibarluzea, Joseba Egibarrek, Eduardo Zubiaurrek, Iñaki Ugarteburuk eta Vitoriano Gallastegik, hain zuten ere.

Larreak eta Ibarluzea eguneroko lanaren berri eman zuten. "Beti zeraman koaderno

txiki bat alkandoraren poltsikoan. Edozein unetan atera, eta notak jasotzen zituen", esan zuen Larreak. Joseba Egibarrek gaineratu zuen "talentu handiko" eta "arnas luzeko gizona" zela Patxi Basauri. Eduardo Zubiaurrek, berriz, Pagatzako industrialdea egiteko eta martxan jartzeko egindako lana azpimarratu zuen, eta Iñaki Ugarteburuk kirol arloan bulzatutakoak ekarri zituen gogora. Gallastegik esan zuen, besteak beste, Elgetak "zor handia" duela Basaurirekin.

Sinadura-bilketa, "pentsioak osatzeko sistema baten alde"

Herriko hainbat eragilek bat egin dute ekimenarekin; gaur eta domekan ipiniko dute mahaia, Ozkarbi aurrean

L.Z.L. ELGETA

Elgetako hainbat eragilek bat egin dute Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bulzatutako Herri Ekimen Legegilea babesteko ekimenarekin, eta herrian ehun bat sinadura

jasotzeko helburuarekin ipiniko dute mahaia gaur eta domekan. Ozkarbi elkarte aurrean izango dira: gaur 19:00etan eta domekan 12:00etan. Jon Maiak gaur Espaloian egingo duen kontzertuan ere egongo dira, 22:00etan.

Amantalak talde feminista - emakume pentsiodunen egoera bereziki zaugarria da- eta Xalbadorpe erretiratuen elkarte dira ekimena babestu duten herriko taldeetako bi. "Eskatera da pentsiodunen diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea -1.134 euro- eta horretarako pentsioak osatzeko euskal sistema bat sortzea", esan du Sebas Arantzabalek. Gazteak ere sinatzera deitu dituzte: "Gaurko borroka biharko pentsioak defendatzeko ere bada".



Sinadurak biltzeko ekimenarekin bat egin duten hainbat herritar. L.Z.L.

Basauriren omenaldiak tirabirak eragin ditu

Alderdi jeltzalearen adierazpen batzuek EH Bilduko Udal Gobernuaren haserrea eragin dute. "Ulertzea eman duzue herri omenaldi bat egiteko eskaintza egin zenigutela eta guk ezetz esan genuela. Eta hori gezurra da", esan du alkateak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkurako azken puntuan atera zuen gaia Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. Patxi Basauriri egindako omenaldiarekin lotuta EAJK GOIENAn egindako adierazpen hauek eragin dute ezinegon: "Herri omenaldi bat izatea nahi genuen hasieratik, baina Udal Gobernuak ez zuen ikusten".

Unzetabarrenetxeak esan du horrelakoek "min handia" eragiten dutela. "Hitz horiek gezurra dira (...) Baliatu duzue ekitaldia Udal Gobernu leku txarrean lagatzeko". Alkateak azpimarratu du eskaera bat egon zela EAJK antolatutako ekitaldi bat egiteko, baina ez zela inongo unetan Patxi Basauriren omenezko herri ekitaldi bat egiteko eskaintzarik egon. "Ez baduzue adierazpen hori zuzentzen, guk gurea egingo dugu, elgetarrei adierazteko zein den errealitatea".

EAJKo Iker Lakaren erantzuna izan da Basauri hil eta gutxira elkarrizketa bat izan zuela Unzetabarrenetxearekin, non galdetu zion ea Udal Gobernuak zerbait gehiago egiteko asmorik zuen, eta erantzuna izan zela ezetz. "Egia da Udalak eskela bat eta adierazpen bat atera zituela, eta hiru dola-egun izendatu zituela. Hiletara ere loreak eraman ziren (...) Gure asmoa zen Patxiri omenaldi bat egitea, eta alderdiaren ekimenez egin den ekitaldi ireki bat izan da. Gure helburua ez da izan, inondik inora, polemika sortzea (...) Akaso, ez da hitzekin asmatu".

EAJKo udal taldeko Mikel Larreak ere hartu zuen hitza: "Errealistak izanda, logikoena zen horrelako inizatiba bat Udal Gobernuarena izatea. Horren eza ikusi denean, gure taldeak hartu du inizatiba. Herritar askoren ikuspuntua hori da".

Udal Gobernu kideak ez dira iritzi berekoak: "Adierazpen horiek irakurrita ulertzen da



Ibon Unzetabarrenetxea alkatea eta EAJKo Iker Laka, eztabaidan. L.Z.L.

UDAL GOBERNUA MINDUTA AGERTU DA ETA ZUZENKETA PUBLIKOA ESKATU DIO ALDERDI JELTZALEARI

gurekin kontrastatu zenutela herri omenaldi bat egitea eta guk ez genuela ikusten uea zenik (...) Eta Udal Gobernu honetatik ez zen horrelako adierazpenik egin". Alkateak gehiago esan zuen: "Herri omenaldi bat egiteko eskaera heldu balitz, prest egongo ginen parte hartzeko eta laguntzeko, baina Udal Gobernu hau EH Bildurena da. Ez dagokigu guri Patxi Basauriri omenaldi bat egitea".

Euskara Plana, onartuta

Eztabaida sortu zuen puntura heldu aurretik, udalbatzak 2023-2027ko epealdirako Euskara Plana onartu zuen, aho batez. Euskara eta Kultura zinegotzi Maialen Arnedok eman zituen azalpenak: "Aurrera begirako helburuak eta lan ildoak finkatzeko beharrezkoa zen nondik abiatzen garen ikustea. Azter-

keta egiteko datuak UEMak jaso zituen, eta aplikazio batetik pasa behar zuten. Arazoak egon dira aplikazioarekin, eta horregatik onartu da plana 2025ean".

Finkatutako lan-ildoetara etorrita, Arnedok azpimarratu zuen Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea dela helburu nagusia, eta egitura aldetik plana bi puntu nagusitan banatzen dela: erabilera eta kudeaketa. Bakoitzarekin lotuta sei erronka azpimarratu dira: "Lan hizkuntza moduan euskara lehenesteko ahalegina jasotzen du planak: sortze-lanak euskaraz egitea, erabiltzen diren dokumentuak euskaraz egotea, langileek euskarazko gaitasuna edukitzea, langileen arteko ahozko komunikazioa euskaraz izatea, idatzizko komunikazioak euskaraz izatea, herritarrak euskaraz artatzea, baliabide informatikoak euskaratzea...".

Oposizioak esan zuen plan osatua dela, eta jarraipena egiteko egindako sistematizazioan jarri zuen arreta. Arnedok erantzun zuen pertsonalki hartzen duela parte UEMako teknikari Ibon Aginagarekin egiten diren jarraipen batzordeetan.

"Nire lanik pertsonalena da honako hau; Jon Maia da %100"

JON MAIA SORIA SORTZAILEA

'Kantu berri bat gara' aurkeztuko du gaur Espaloian

L.Z.L. ELGETA

Hamalau kantu eta poema bat ditu Jon Maiak (Urretxu, 1972) iaz kaleratutako *Kantu berri bat gara* disko-liburuak. Espaloian izango da gaur, 22.00etan. Sarrera 16,50 euro da.

Euskaldunak etengabe berritzen ari den kantu bat garela diozu; eskerak, ezta?

Zalantzarik gabe. *Kantu berri bat gara* abiatzen da *Bereterretxen khantoria* izeneko zubereazko balada herrikoi batetik. Eta 600 urte geroago jarraitzen dugu euskaraz idazten eta abesten. Uste dut gure izatearen eta biziraupenaren inguruko metafora polita dela. Txikia izanagatik, gure herriak jakin izan du belaunaldiz belaunaldi eta mendez mende bere hizkuntza eta bere kultura mantentzen.

Sortu duzun lanik handienaren aurrean ei gaude; 80 kontzertutik gorako bira egin ostean, zalantzarik gelditu zaizu?

Nire lanik pertsonalena da. Jon Maia da %100, eta buruan nuen funtzioa sobran betetzen ari da. Helburua zen antzintatik datorren identitate baten eguneraketa eskaintzea emozioaren eta edertasunaren bidez. Asko eman dut, baina jaso ere izugarri pila jaso dut. Herri askotan izan gara eta denetan bukatu dugu kontzertua jendea zutik eta txaloka. Hiru aldiz bete dugu Victoria Eugenia. Kursaal, Arriaga eta Euskalduna ere bete egin ditugu. Ez dut sekula jasotzen ari naizenaren pare emango.



Jon Maia. J.M.

Gaur, mila biztanleko herri batera zatoz.

Bai, eta *Kantu berri bat gara* lanarekin indar berezia jarri dugu horretan. Uste dut herri txikitara ere iritsi egin behar dela. Jakinik antolatzaileen baliabideak mugatuagoak eta aurrekontuak txikiagoak direla, ahalegin berezia egiten ari gara gauzak errazteko. Garrantzitsua da herri txikitara ere kulturatik horrelako inpaktuak jasotzea. Ataunen eta Oionen moduan, Elgetan ere izango gara.

Zein bidelagun izango dituzu Elgetako kontzertuan?

Gustatzen zait gonbidatuak edukitzea. Elgetan ere egongo dira, baina ez zait gustatzen aurretik iragartzea. Konturatzen naiz Elgeta bezalako herri txiki batean jende guztiak jakingo duela zeinek atera behar duen oholtzara, baina nik ez dut esango.

OHARRAK

'Ipuinen ordua' gaur

Ohiko saioa gaur, kontalari boluntarioen eskutik. Hiru saio izango dira. Orduetegiak: 17:30, 18:00 eta 18:30.

Intsektuen hotela

Intsektuendako hotelak diseinatzeako tailerra, zapatuan, 12:00etan. Umeendako zein familiendako saioa izango da, udaletxeko areto nagusian.

Zabalik dira kokobatzeko erakusketa eta izen-ematea

Mozorroen erakusketak zabalik ditu ateak buztin-gelan. Asteburu honetan egongo da ikusgai, eta, horrekin batera, zabalik da otsailaren 22an egiteko den kokobatzeko izen-ematea ere. Interesatuak izen-abizenak eta kontaktua ipini behar dituzte erakusketan jarrita dagoen izen-emate orrian. Mozorro guztiak aukeratzeko daude.



Olakuako putzua eraberritzeko egitasmoa jasotzen duen plano; ondoko zelaira luzatuko dute proiektua. OÑATIKO UDALA

Putzua parke bilakatu, izaera galdu barik

Olakuako urmaela putzu bako parke izango da. Hodien bitartez bideratuko dute ura eta lurrez beteko dituzte goiko eta beheko putzuak. Zubia mantendu egingo dute eta kirol kantxa aldera luzatuko dute proiektua, "orain arteko izaerari eutsiz"

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Olakuako putzuan ez da urik egongo laster. Inguru horretarako egin duen proiektua aurkeztu du Oñatiko Udalak astean. Ura hodian bitartez bideratu nahi da eta urmaela lurrez bete, eta maila diferentek sortu. Aurrekontua 100.000 eurokoa da eta Udalaren nahia da ekain hasieran ospatzen dituzten au-

zoko jaietarako bukatuta egotea. Parkea jolaserako eta atsedenerako guneez izaten jarraitzea da asmoa.

Ura arazo iturri

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzordeburu Xabier Igartuak azaldu du azken urteetan "txarrrera" egin duela putzuaren eta inguruaren egoerak, eta irten-

bide bat eman beharra ikusi dutela, "auzotarrek eurek" ere helarazi dietenez. Hainbatetan arazoaren iturri ura izan dela kontuan izanik, ur bako proiektua egin gura izan dutela azaldu du Igartuak: "Aurreko agintaldi batean egin zen guneez horretarako proiektua. Ura jasotzen zuen hark, baina, askotan, arazoa hori da, eta kentzearen alde

egin dugu. Ezin da bermatu ura egotea urte osoan, eta horrek zaildu egiten du mantentze-lana. Urak arratoiak ere ekartzen ditu berekin, eta hori ere saihestu gura izan dugu. Horregatik eskatu genuen ur gabe enfokatzeko proiektua".

Zubia mantendu egingo dute

Putzua desagerrarazita eta ura hodian bidez bideratuta, eremu berdea zabalduta eta aprobetxatzea erabaki dute, bi gune sortuz: maila ezberdinetan egongo diren eserlekuak anfiteatroa sortuko dute alde batean, eta beste aldeko espazioan landareak eta zuhaixkak landatuko dira. Gune bien erdian egongo zuba egongo da, Olakuako bizilagunei auzo identitatea ematen dien ikurretako bat. Auzotarrek helarazitako nahiari jarraituz, hain zuzen, betiko izaerari ahalik eta ondoen eusteko helburua izan du proiektuak, Igartuaren esanetan. Horrez gain, espazioa kirol pistak dauden eremuarekin bateratuko dute, ondoko zelaia ere integratuko da proiektu horretan, eta sarbide gehigarri bat ipiniko dute, irisgarritasuna bermatzeko: "Malda batzuekin eta maila barik egingo da hori, irisgarria izan dadin punta batetik bestera joateko".

Eremu osoaren hedadura 1.325 metro koadro da eta Izarraitze Lorezaintza SLL enpresak egin du proiektua; exekutatzeko 100.000 euro inguruko aurrekontua du. Lanen iraupena hilabete eta erdi edo bi hilabete ingurukoa izango da eta asmoa da ekainean ospatuko dituzten auzoko jaietarako amaituta egotea. Xabier Igartuak argitu du, ordea, ordurako bukatzeko aukerarik ikusi ezean, ez dituzte lanak hasiko jaiak pasa arte.

Lantegietara zabalduko dute sinadura-bilketa

Eusko Legebiltzarrerera eraman gura duten Herri Ekimen Legegilea atera du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak gutxieneko pentsioak osatzeko; pentsiodun bakoitzak pertsona bakarrek unitate ekonomikotzat hartzeko eskubidea izatea ere planteatzen dute. Oñatin ere badabilta sinadurak biltzen proposamen hori Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozka dezaten. Herriko pentsiodunek jakinarazi dute bi aste hauetan harrera ona izan duela sinadurak biltzeko kanpainak, eta, datozen asteetan Oñatiko plazan jasotzeaz gainera, lantegietara ere zabalduko dutela. Apirilaren 24ra arte jasoko dituzte sinadurak eta urriaren 30ean eramango dituzte Eusko Legebiltzarrerara. 18 urtetik gorako herritar guztiek dute Herri Ekimen Legegilea sinaduraz babesteko aukera. Gaineratu dute Oñatiko Udalarari ere eman diotela ekimenaren berri: "Behar dugun laguntza emateko prest azaldu da".

Herrigunean ibiliko dira kintoak etzi, santa-eskean

Ohiturari jarraituz, aurtengo kintoak ere santa-eskean aterako dira: herrigunean domekan, otsailak 2, eta landa-auzoetan hurrengo zapatuan, otsailaren 8an. Aurten 18 urte beteko dituzten neska-mutilak, 2007an jaiotako ehun bat gazte, ibiliko dira domekan herriguneko auzo eta kaleetan santa-eskean, koplak kantatzen.

Jarri nahi dituzten elementuen adibide batzuk


IRISGARRIRAKO HORMAK



LANDATZEAK



ESERLEKUAK



ELKARGUNERAKO ESPAZIOA



Lokarriak eta koplak San Blas eta Santa Ageda ospatzeko

San Blas eta Santa Ageda egunen ospakizuna egingo dute aurten ere Pake Leku eta Lagun Leku elkarteetako kideek. Aroña abesbatza, esaterako, kantuan ibiliko da herriko kaleetan, San Martin egoitzan hasita, martitzen goizean. Eltzian, berriz, bedeinkatutako lokarriak banatuko dituzte eta pintxo-pote berezia egingo da eguaztenean.

Busa hartzeko beste modu bat dute Olabarrietan

Olabarrietako geltokian Lurraldebus autobusaren zain dagoenak botoi bat zapaldu beharko du, aurrerantzean, gidariak jakin dezan gelditu egin behar duela. Markesina berriak ere jarri dituzte herriko beste hainbat geltokitan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Udalari dagokio autobus geltokien egoera zaintzea, eta, herri-tarren eskaera batzuk ere tarteko, azterketa egin dute, egungo geltokien egoerak aztertzeke eta hobetzeko. Horren ondorioa da Lurraldebuseko autobus geltokietako bitan markesinak ipintzea eta beste batean bat aldatzea, Olabarrietan jarri duten sistema berriaz gain.

Lehen ez eta orain bai

Lurraldebusen autobus geltokien gaineko azterketa eginda, hobetu beharreko hiru puntu ikusi zituzten 2024rako eta beste pare bat 2025ean gauzatzeko –Ulma Polimeroko geltokietakoak–. "Trantsizio energetikoaren bultzan ere, garraioaren aldeko apustua egin behar da. Ikusten da jende askok erabiltzen dituela autobusak, eta horrek eskatzen du markesinak eta lekuak moldatzea", azaldu du Zerbitzu eta Mugikortasun batzordeburu Xabier Igartuak. Horrela, geltokia egon arren markesinarik ez zegoen Garibai auzoko geldituen jarri dute Oñatitik Zubillagara bideko aldean. Pareko geltokian ere egin dute jartzeko ahalegina. Olakua auzoan, kendu egin dute Zumarragarako autobusak gelditzen diren gel-



Bus jartzen duen seinalea piztuta Olabarrietako geltokiko semaforoan. OÑATI UDALA

tokian daudeneko bat, eta berria jarri, hondatuta zegoelako orain artekoa.

Botoia zapalduta Olabarrietan

Jarri duten beste bat Olabarrietan auzokoa da. Lehen ez zegoen Udanarako noranzkoan dagoen autobus geltokian, eta orain bai. Olabarrietan, gainera, autobusa eskatzeko sistema berri bat ere jarri dute: botoi bat zapalduta, semaforo gainean Bus jartzen duen seinale argidun bat piztuko da, autobus gidariak jakin dezan norbait dagoela geltokian

autobusaren zain eta gelditu egin behar duela. "Olabarrietan, lehendik, auzoak egindako harrizko geltokia zegoen Oñatira bidean. Etxe bat tarteko, Udantatik zetorren autobus gidariak ez zuen ikusten geltokian norbait zegoen edo ez, eta, askotan aurrera jarraitzen zuen, gelditu barik. Bazegoen kezka auzoan. Sistema horrekin, gidariari abisatuko zaio gelditu egin behar duela, jendea dagoelako geltokian zain. Gauza bera gertatzen da Udana alderako bidean; hor ere botoia zapaldu behar da".

Eguaztenean egingo dute Euskaraldiaren lehen bilera irekia

Datorren eguaztenean, otsailak 5, egingo dute Euskaraldiaren lehen bilera irekia. Kultura etxean izango da, 18:00etan, eta modu batera edo bestera Euskaraldian parte hartu edo lagundu gura duen edonor joan daiteke.

Maiatzaren 15etik 25era egingo da aurtengo Euskaraldia, eta Oñatiko batzordea sortzeko

deialdia egin dago. Julen Agirre Lizarralde izango da Euskaraldiaren Oñatiko dinamizatzailea, eta harekin batera arituko da sortuko den batzordea Euskaraldiari begira lanean, izan hori ospatzeko ekitaldiak antolatzen, euskara saretzen edo txapak banatzen. "Euskara aktibatzean jarriko da ahalegina Euskaraldian, eta, batzorde horrekin, sarea zabaltzen hasiko gara", dio Agirrek. Norbana-koak eta eragileak joan daitezke eguazteneko bilerara.

Ekain Txouren ikuskizunak hasiko du otsaila gaztetxean

Arlote bat izeneko "pailazo jolasti baten bakarkako ikuskizuna" eskainiko du Ekain Txoku artistak domekan Antixena gaztetxean. Bi emanaldi egingo ditu, 17:00etan eta 18:30ean, eta hori izango da Antixena gaztetxean otsailean egingo dituzten ekitaldietan lehena.

Otsailean egongo diren kontzertuen artean, Oñatiko Leeko

re taldeak eta Zumaiako Hoben taldeak elkarrekin grabatu berri duten *Antifa Hardcore split*-a aurkeztuko dute, eta Rüdiger eta Madame Birrots ere entzungo dira; Azken Erromantikoak taldearen musika ere bai. Musikaz gain, txotxongilo emankizuna ere badute antolatuta, 23rako; sarrerak salgai daude Mizken eta Txokolateixan. Zaturako, hilak 1, Aroztegiren eta prozesu judizialaren kontra Iruñean egingo den manifestaziora joateko hitzordua egin dute, 12:00etan.

Astlehenean 08:30ean zabalduko dute kiroldegia

Argia kenduko dute astlehenean goizean, otsailak 3, Zubikoa kiroldegian, eta, horren ondorioz, 08:30ean zabalduko dute herri-tarren erabilerrarako. Programatuta dagoen argi-mozketa izango da, lanengatik, eta ordu-bete atzeratuko du kiroldegiaren irekiera: ohiko orduan, 07:30ean, zabaldu ordez, 08:30ean zabalduko dute astlehenean.

Argia kenduko dute Olabarrieta auzoan datorren astean

Oñargik erdi-tentsioko lineako mantentze-lanak egiteko, argia kenduko dute Olabarrietan, birritan, datorren astean: 09:00etatik 09:45era martitzenean, otsailak 4; eta 16:00etatik 16:45etara eguaztenean, hilak 5. Non: 44, 46, 62, 63, 64, 65, 66A eta B, 67, 68, 73, 74, 75A eta B, 76, 78, 79, 80 eta 93. atarrietan, ur deposituan eta bidegorriko argiterian.



OLABARRIETA AUZOAN

Oñatitik Zubillagara bidean markesina berria jarri dute. Beste aldean ipintzeko aukera aztertu dute, baina ez jartzea erabaki dute.



OLAKUA AUZOAN

Zumarragara aldeko markesina bat aldatu dute Olakuan. Teilatua zuen apurtuta, oso hondatuta zegoen, barruraino sartzen zen euria.



GARIBAI AUZOAN

Oñatitik Zubillagara bidean markesina berria jarri dute. Beste aldean ipintzeko aukera aztertu dute, baina ez jartzea erabaki dute.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Denboraldiko momentu garrantzitsuenerako prest

Liga erregularreko azkenengo jardunaldia jokatuko du asteburuan Construcciones Aloña Mendik, Legazpiko La Salleren aurka, Zubikoan (zapatua, 17:45). Dagoeneko ziurtatu dute igoera faserako txartela; orain, liga berria ondo prestatzea dute helburu

Julen Murua Mesonero OÑATI

Lehenengo faseko azken txanpan murgilduta dago Construcciones Ugarte Aloña Mendi taldea. Fasea amaitzeko azken jardunaldia jokatzea falta bazaie ere, sailkapeneko bigarren postua ziurtatuta dute oñatiarrek, eta igoera faserara begira jarri dira dagoeneko. Liga hasiera kaskarra egin ostean –bi partidu irabazi eta bi galdu egin zituzten–, txapelketari neurria hartu eta ez du oina azeleragailutik altxatu Iñaki Zabartek zuzentzen duen taldeak.

laztik aldaketak

Zabartek aitortu du laztiak "hobekuntzak" ikusi dituela "bai taldearen mailari dagokionez, baita jokalarik bakoitzaren arlo indibidualean ere", baina, era berean, denboraldi hasieran kostatzen zituzten aldaketengatik: "Laztiak zazpi jokalarik utzi zuten taldea, eta lau pabost jokalarik berri hasi ziren. Horrek eragiten du, oinarria sortuta egon arren, taldea berriro eraiki behar izatea. Hala ere, bigarren itzulian ikusi da taldeak baduela Gipuzkoako txapelketako goiko postuetan egoteko maila, eta, zergatik ez, Euskal Ligara igotzeko maila ere; izan ere, uste dut, beste hiru talderekin batera, gertuago gaudela Euskal Ligak duen mailatik Gipuzkoako Ligak duen mailatik baino".

Igoera faseari begira

Sailkapeneko bigarren postua ziurtatuta, Aloñakoak hasi dira igoera fasean aurrean izango dituzten taldeak zeintzuk izango diren aztertzen. Izan ere, multzo bakoitzeko lau talde onenek –guztira zortzi– jokatuko dute fasea, eta liga erregularreko taldeen aurka lortutako puntu kopuruarekin igaroko dira talde guztiak hurrengo faserara. Hala, beste multzotik sail-




Amaia Kortabarria, erasoan, denboraldiko partidu batean. J.M.M.

IGOERA FASEKO LEHENENGO SAILKATUA ZUZENEAN IGOKO DA EUSKAL LIGARA

katutako lau taldeen aurka jokatuko dute txantxikuarrek: Txingudi, Saieko, Ordizia eta Tolosa. Denboraldi bukaeran, lehenengo sailkatua zuzenean igoko da Euskal Ligara; bigarren sailkatuak, berriz, hiru talderen


arteko txapelketa jokatu beharko du mailaz igotzeko.

Hala, taldeko jokalarik Oihane Lazkanoiturburuk esan du Euskal ligarako igoera lortzea ez dela "erraza" izango, horretarako partida gehienak irabazi beharko dituztelako. Oñatiarrek dio helburua lortzeko ezinbestekoa izango dela "defentsan gogor eta erasoan buroarekin" ibiltzea; baina, mailaz igotzea lortzen ez badute ere, bizitako esperientziak "ikasten jarraitzeko" balioko diela onartu du.



IÑAKI ZABARTE
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Baditugu mailaz igotzeko aukerak; ez dago puntu tarte handirik taldeen artean. Hala ere, aurkari gogorrak izango ditugu aurrean, ziur".



OIHANE LAZKANOITURBURU
ALOÑAKO JOKALARIA

"Defentsan gogor eta erasoan zuhur ibili beharko dugu helburua lortzetik gertu egoteko, baina badakigu ez dela erraza izango".

"Asmoa da datozen urteetan ere lasterketa egiten jarraitzea"

ERIK MARTIN ALOÑAKO ATLETISMO SAILEKO KIDEA
130 korrikalari inguru batu ziren San Martingo krolean

J.M.M. OÑATI

Asteburuan egin zuten San Martingo lehenengo eskolarteko krosa. Giro haizetsua izan zuten, baina antolakuntza-lanetan ibili den Erik Martinek (Oñati, 1999) dio "gustura" bukatu zutela antolatzaileek eta korrikalariak.

Haize eta guzti, baina egin da eskolarteko krosa.

Bai; egia esan, beldurrez geunden, alerta horia laranja izatera igaro zitekeelako. Zorionez, baina, ez zen ezer gertatu eta goiz polita izan zen.

Gustura gelditu zarete?

Bai. Ez nintzen gauza askorekin konturatu, baina, esan didateenez, dena ondo joan zen, polita izan zen eta zirkuitua ere oso ondo egon zen; horrenbestez, pozik gaude.

Lokatx gutxi aukeran?


Ikusgarriagoa izateko, aukeran bai [Barre]. Gainera, oro har, neska-mutiek ere gehiago gozatzen dute lokatza dagoenean. Hala ere, ondo egon zen.

Gipuzkoa mailako krosa izan da; nondik etorri dira korrikalariak?

Bada, Donostiatik, Azpeititik, Tolosatik eta Arrasatetik etorri ziren neska-mutirik. Leku pila batetik.

Hortaz, deialdiak izan du oihartzuna ibarretik kanpo ere.

Federaziotik 132 korrikalari inguru genituen izena emanda, eta eskola kirolarekin beste 49 pertsonak eman zuten izena. Ez ziren eskola kiroleko guztiak etorri, baina Federaziotik gehie-



Martin, San Martingo krolean. O.E.G.

nak bai. Hala, 120 edo 130 pertsona inguru izan genituen.

Lasterketa antolatzeko ondo moldatu zarete?

Bai; izan ere, gurasoek ere asko lagundu ziguten, eta eskertzekoa da hori. Atletismoan ez gaude jende asko, eta emandako laguntza asko eskertzen da.

Lehenengo eginda, izango du jarraipenik?

Asmoa hori da, bai. Lehen ere egiten genuen, baina etxeko formatuan. Orain, Federaziora pasatu dugu formatua, eta ea urteetan mantentzeko aukera dugun. Federazioko kideek ere esan digute pozik daudela egindakoarekin, eta ea datozen urteetan lasterketa beste kategoria batzuetara hedatzerik dugun; alegia, helduagoak diren korrikalarien kategorietara. Ikusiko dugu aurrerago ea zer moduz ari garen.

Bihar zabalduko dute igoera bertikalerako izen-ematea

Ohiturarekin jarraituz, Aloñako Igoeraren XX. edizioaren aurretik, bost urtean behin jokatzen den Buetraitzeko igoera bertikala jokatuko da, apirilaren 25ean, 22:00etan. Hortaz, gauz atera beharko dute korrikalariak, Arantzazutik, Buetraitzeko tontorrera iritsi arte. Bertikalean parte hartzeko izen-ematea bihar 10:00etan zabaldu eta apirilaren

17an 20:00etan itxiko da –100 korrikalariaren kopurua gaindituz gero ere, itxi egingo da–; 15 euroren truke eman ahalko da izena.

Parte-hartzaileak 30 segundoan behin aterako dira irteera-puntutik –593 metroan– Buetraitzeko tontorrerantz –1.320 metroan–. Lasterketako hamar faboritoen artean minutu bateko tartea utziko da, eta probaren irabazlea Buetraitzeko tontorrean kronometroa azkarren gelditzen duen lasterkaria izango da.



Ixabel Agirresarobe ipuin-kontalaria. GOIENA

Ahozko ipuin-kontaketa, baita helduentzako ere

Otsailaren 12an, Oñatiko zinema-aretoan helduentzako ipuin-kontaketa izango da. Ixabel Agirresarobek hartuko du hitza, eta emakume ausart eta burujabeen istorioak eroango ditu. Ekimen hori ez da ohikoa, helduentzako saioak urriagoak baitira

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Oñatiko Udal Liburutegiak ipuin-kontaketa saio bereziak eskainiko ditu otsailean, baina arreta berezia jarri dute helduentzako ekimenean. Askotan, haurrentzako saioak izaten dira nagusi, baina oraingoan, Ixabel Agirresarobe narratzaileak helduei zuzendutako saio bat egingo du. *Babak eltzetik ateratzen* izenpean, emakumeek historian zehar izandako indarra izango da ardatza. Otsailaren 12an izango da, 19:00etan, Oñatiko zinema-aretoan.

Oñatiko liburutegiko ardura-dunak, Arantzazu Ibarrondok, nabarmendu duenez, ez da erraza helduentzako euskarazko ipuin-kontalariak topatzea: "Helduentzako euskal narratzaileak aurkitzea ez da erraza, eta, horregatik, oso aukera polita da Ixabel Agirresarobe gurean izatea". Oñatiko liburutegia helduentzako ipuin-kontaketa programazioan sartzen saiatzen da, baina saio gehienak gaztelaniaz

izaten dira, jende gehiago erakartzen baitute. Hala ere, euskarazko saioetan ere badago publiko fidel bat, 40 eta 60 entzule artean biltzen dituen.

Estiloa eta edukia

Ixabel Agirresarobek ahozko tradizioan oinarritzen du bere lana. Hauxe dio: "Nik beti ahoz jasotako ipuinak kontatzen ditut, eta publikoaren arabera egokitzen ditut erreferentziak eta ironia-maila". Haren hitzetan, haurrei eta helduei ipuin berak kontatzea posible da, ikuspegi eta amore desberdina emanda.

Agirresarobek Oñatin lehen aldiz egingo du helduen saio bat, eta ilusioz dago: "Oñatin beti izan dut harrera ona. Ber-

tako euskalkiarekin jolastea gustuko dut, eta publikoara gerturatzen eta konexioa lortzen lagundu dezake".

Emakumeen indarra

Helduentzako saioa *Babak eltzetik ateratzen* ipuin-sorta bat izango da. Ipuin horiek emakumeek historian zehar izandako indarra, autonomia eta burujabetza erakutsiko dituzte. Askotan, ipuinetan emakumeak bigarren mailako pertsonaiak izan dira, baina Agirresarobek istorio zaharren bertsio ezagun eta ezezagunak eramango ditu, beste ikuspegi bat emanda.

Hileko azken osteguna

Oñatin harrera ona izaten dute ipuin-kontaketek, eta espero dute otsailaren 12ko saioak arrakasta izango duela. Hilero bezala, *Ostegun kontalaria*-n ere Agirresarobe izango da ipuin-kontalaria, haurrentzako *Goizean porru salda*, *eguerdian azak* kontakizunarekin.

EMAKUMEEK HISTORIAN ZEHAR IZANDAKO INDARRA NABARMENDUKO, DA IPUINEN BIDEZ



Herriko txistulariak, Madrilén egindako egonaldian. AITA MADINA TXISTULARI TALDEA

Madrilgo Euskal Etxean izan dira herriko txistulariak

Aita Madina taldeko txistulariek Madrilgo Euskal Etxean jo zuten asteburuan, hango txistulariekin batera

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Duela hiru urte bezala, aurten ere irteera egin du Madrilgo Euskal Etxera Aita Madina txistulari taldeak.

Urko Urteaga oñatiarra txistu irakaslea da Madrilén, eta hark gonbidatuta joan dira. Zazpi lagun izan dira: lau txistulari, txistua ikasten ari diren bi eta legazpiar bat. "Urko Urteagarekin eta Esteban Urzelairerekin elkartu ginen; Esteban txistulari ibili zen Oñatin. San Sebastian Eguneko hurrengo domekan danborrada egiten dute Euskal Etxean, eta han izan zen gure

bigarren emanaldia", dio Lander Diaz de Gereñu txistulariak.

Asteburu betea izan dela eta hartu-eman horrekin jarraitzeko asmoa dutela gaineratu du Diaz de Gereñuk: "Ez da izango urtero egin ahal izango dugun irteera, baina ez dut uste hau azkena izango zenik".

Ohiko ekitaldiak

Madrilen hasi dute urtea, eta hemendik aurrera ohiko egutegia izango dute: Inauteriak, gero Oñatzekin egingo dituzten saioak eta herrian urtean zehar antolatutako beste ekitaldi batzuk.

Gaztelekuko hurrengo kontzertuak, 'matinee' formatuan

Oñatiko gaztelekuan Esanezin eta Izaki Gardenak izango dira protagonista, biak ere 'matinee' formatuan

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Oñatiko gaztelekuak hurrengo hilabeteetako programazioa iragarri du, eta musikazaleek bi hitzordu garrantzitsu izango dituzte: otsailean, Esanezin barkarkako proiektuaren txanda izango da; eta martxoan, ordea, Izaki Gardenak entzuteko aukera izango dute oñatiarrek.

Otsailaren 2an, 12:30ean, Ianire Aranzabek (Altzagarate, 1999) zuzentzen duen Esanezin egitasmoak publikoari bere doinu bereziak eskainiko dizkio. Aranzabe barkarkako emanaldiak

egiten hasi bazen ere, gaur egun laukote batek osatzen du taldea, Arri Iraetarekin, Iñigo Asensio-rekin eta Imanol Rubiorenkin batera. 2023. urtean, hamar kantuz osatutako lan luzea kalera-tu zuen Esanezin taldeak –euren bigarren lan luzea–, *Erretratu bat* izenpean. Sarrerak zortzi eurotan daude salgai.

Martxoaren 16an, berriz, Izaki Gardenak igoko da oholtzara. Bi emanaldiak *matinee* formatuan izango dira, igande eguerdian, musika esperientzia berezi bat eskaintzeko.

"Gipuzkoako kirolari min egin diezaioke epaiak"

IÑAKI UGARTEBURU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KIROL ZUZENDARI OHIA Duela bi hamarkada, Eskola Kirolaren eredia defendatzea egokitu zitzaion. Onartu du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak ezustean harrapatu duela

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko kirol teknikaria da, eta 2003tik 2011ra bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendaria izan zen. Garai hartan lurralde historiko barruan zeuden eragile boteretsu ezberdinei aurre egin behar izan zieten eskola kirolaren eredia defendatzeko. "Nahiz eta, pentsa, gu Foru Aldundia ginen". Hala ere, batekoekin eta bestekoekin lortu zituzten akordioak balioan jarri ditu, eta onartu du egunotako eztabaidak ezustean harrapatu duela.

Nola hartu duzu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpena?

Harritu egin nau, egia esan. Ez neukan salaketaren berri –Pasaia familia batek gaur egungo eskola kirolaren araudiaren aurrean jarritako helegitearen ondoren etorri da epaia– eta kontu honek ezustean harrapatu nau, bai.

Zein da Eskola mailako kirolean Gipuzkoan dugun eredia?

Gazteen artean kirol aniztasuna bermatu nahi duen eredia da. Gipuzkoan 90eko hamarkada amaieran kirol klubak genituen, horiek sustatzen ziren baina gauzak aldatzen joan ziren, eta ordura arte geneukan eredia zalantzan jarri zen. Gazteenda-



Iñaki Ugarteburu, aste barruan Goienako platoan. X.U.

ko zerbait aberasgarriagoa planteatu zen, kirol jarduera ezberdinak ezagutzea jarri zen mahai gainean eta horren aldeko apustua egin zen.

Zeri aurre egiteko?

Kirol munduan badaude haurrarekin kirol jarduera konkretu batean ahalik eta azkarren hasi behar dela defendatzen dutenak, trebetasun eta emaitza altuenak lortzeko helburuaz. Beste batzuk pentsatzen dugu, eta ni talde horren barruan nago, hobe dela haurrei estimulu ezberdinak ematea, espezializazio

goiztiarra saihestuz. Haurrek erabil ditzatela baloi handiak, baloi txikiak, eskuartearen izan ditzatela erraketak, praktika ditzatela hankak garrantzitsuak diren kirol jarduerak, baina baita eskuak gehiago erabiltzen diren kirol jarduerak, ibil daitzela uretan... 6 eta 12 urte bitartean umeak jasotzen baditu esperientzia horiek guztiak horrek mesede egingo dio, trebeagoa izango da denean, eta ondoren, nahi badu, egin dezala espezializazioaren bidea. Pentsatuta, helburu nagusia kirolari

laren aldeko maitasuna lortzea dela, disfruta dezatela kirola eginez, bizi osorako kirol ohiturak har ditzatela. Eredu horren helburu nagusiak izan behar du gazte horiek kirol-zaleak izatea, kirol ohiturak barneratzea.

Epaiaren aurrean Kirol diputatu Goizane Alvarezek eskola kirolaren onurak zientifikoki neurtuta dau dela nabarmendu du.

Bai, baina logikoa da, gainera. Kirolari moduan estimulu ezberdinak badituzu osoagoa izango zara. 5-6 urterekin soilik hanken arteko koordinazioa lantzen baduzu, zer gertatzen da gerritik gorako gainontzeko trebeziekin? Bada, ez direla behar den moduan garatzen. Kirol esperientzia zabala izateak abantaila handiagoak ematen ditu etorkizunean. Haurra hobeto garatuko da askotariko jarduerak egin baditu.

Goiz espezializatzeak baditu arriskuak?

Arriskueta bat izan daiteke azkar espezializatu direnak jostailu apurtu bilakatzea. Denok ezagutzen ditugu gure herrietan oso gazte hasi direnak kirol jarduera batzuetan nabarmen, elitera edo errendimendura begira dauden klubetara joan dira, espektatibak sortu dizkiete haurrei eta gurasoei eta gehienak bidean geratu dira, oso gutxi iristen dira goi mailara. Hamabost, hamasei edo hamazazpi urterekin gazte horri esaten diotenean bere bidea hor amaitzen dela... Hori kudeatzea ez da erraza, eta beste kirol jarduera batzuetara pasatzea zaila izaten da, lehen esan moduan, gaztetatik oso lan espezifikoa egiten ibili direlako. Horrekin batera, haur horiekin egiten den merkantilismoa ere hor dago, klub batzuen interesak handiak

direlako eta neska-mutikoak geroago eta gazteagotatik fitxatu nahi izaten dituztelako. Gaur egun planteatzen dena da infantil mailatik aurrera gazteak berak nahi duen kirol jarduera egin dezakeela, baina ordura arte multikirola ere egin behar duela.

Foru Aldundian kirol zuzendari moduan egon zinen 2003 eta 2011 urte bitartean. Araudi honek orduan ere bazuen kontrariorik?

Bai, eta kontra zeuden eragile batzuk boteretsuak ziren, gainera. Eta hori gu Foru Aldundia ginela, pentsa... Etapa gogorra izan zen, baina batekoekin eta bestekoekin berba egin behar izan genuen, akordioak lortu genituen eta etapa aberasgarria izan zen, argumentu asko entzun genituen eta ikuspuntu ezberdinak kontuan hartu.

Lurraldean bertan errealitate ezberdinak daude: leku batzuetan formazioa jaso duten gazteak dihardute eskola kirolean monitore moduan, beste leku batzuetan gurasoak dabilta... Egiten zaio jarraipena?

Jarraipena egiten zaio, besteak beste, eskola kirolaren sustatzaile nagusia Foru Aldundia bera delako. Debagoienean eredu ezberdinak ditugu eskola kirola kudeatzeko. Leintz aldean eredu bateratu bat dute, Oñatin beste eredu bat daukate; eta Elgetan, Bergaran eta Antzuolan gurea daukagu... Funtzionamendu ezberdina da. Eta Donostian hemen daukagunaren ezberdina da. Profesionalak dira gehienak,

"HAURRA HOBETO GARATUKO DA ASKOTARIKO KIROL JARDUERAK EGITEN BADITU"



Realaren eta Espanyolaren arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Espanyol norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua otsailaren 7ko asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 2a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin Goienakide eta Real ikusteko aukera izango duzue!

**goiena^{''}
kide**

Okm:
batzen gaituen distantzia

"Aldaketa bat egin gura nuen, eta pozik nago"

SERGIO RUIZ G-TXABARRI 'SERTX' MUSIKARIA

'Madarikatuak' bilduma bikoitza argitaratu berri du, eta bakarleri formatuan hirugarren lana du zarauztarrak; askotariko plataforma digitaletan dago entzungai

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Sergio Ruiz G-Txabarri *Sertx* (Zarautz, 1975) buru-belarri ari da Eraso!-rekin, baina proiektu pertsonala ere ondo zainduta.

Singleen garaietan gaude, eta zuk disko bikoitza atera duzu; ausarta.

Kantu gehiago ere banituen, baina nire ama-taldearen, hau da, Eraso! taldearen, agur-biran murgilduta gaude eta horrek ere denbora lapurtzen dit. Orain dela urtebete ateratzeko asmoa nuen *Madarikatuak*, baina luzatu egin dira grabaketa eta bestelakoak, eta egunerokotasunean elkar jo dute Eraso!-ren eta Sertxen lanek, baina pozik nago emaitzarekin.

Bosna kantu bildumako, akustikoa da lehenengoa; zelakoa?

Hamar kantuek sortze-prozesu bera izan dute. Sertxen aurreko bi diskoen prozesu bera eraman dute lehenengo bildumakoek; hau da, ekoizle berarekin [Eñaut Gaztañaga]. Eta lantzeko prozesua ere antzerakoa izan da; eroso nago Gaztañagarekin. Beharbada, aurreko lanekin alderatuz, gehiago landu dut ahotsa disko honetan; saiatu nahiz leunago abesten, tonu grabeagoan.

Doinu elektronikagoak eta instrumentu gehiagoko kantuak batu dituzu *Madarikatuak II* bilduman.



Sertx musikariak bilduma bikoitza argitaratu du. TXABER MIRABALLES

Hamar abesti, bi diskotan

Mina abiapuntu hartuta, *Madarikatuak* izeneko kantu-sorta berria argitaratu du Arrasaten bizi den musikari zarauztarrak. Hirugarren lana du bakarleri.

Disko bikoitza da: akustikoa eta intimoa da lehenengoa; eta doinu elektronikoen eta esperimentalagoa bigarrena.



Esperimentazioarekin hasi nizen diskoa da hori, beldur handiagoarekin eraikitakoa. Josu Montero Arrasateko ekoizlearekin jardun dut horretan. Bagenekien ez genuela gauza bera egin nahi, baina ez genekien nora heldu nahi genuen, eta horrek eragin digu polikiago joan izana. Aldaketa bat egin gura nuen, eta gitarra akustiko baten gainetik kantuak moldatzen hasi ginen; kantuak gehiegi janzten genituen puntura heldu ginen, eta lanketa izan da, beharbada, arropak erantztea kantuei. Ezberdina izan da lan-prozesua, baina egia da emaitzarekin oso pozik geratu naizela.

***Mina* da hitzen oinarriko kontzeptua; min hori arintzen lagundu dizute kantuek?**

Idazten hasi nintzenez, nire bizitza pertsonaleko pasarte batean minduta nengoen; nahiz eta min hori ez den osorik itzali, gaur egun ez nituen, beharbada, hala idatziko. Kantu bakoitzak bere momentua du eta niretzako ariketa zintzo bat da idazten dudanean, horrek abeste orduan emango didalako hori sinisteko indarra. *Mina* da, bai, oinarria kontzeptu moduan, baina badira beste detaile batzuk hortik aldentzen direnak ere.

***Bitxia* da ez duzula formatu fisikoan argitaratu; zergatik?**

Hori ere hausnartzeko aukera izan dut. Disko fisiko atera edo bideoklipak egin pentsatzen egon nintzen, eta, azkenean, bigarren-gotik egin dut. Dirua da, eta, balantza horretan, pentsatu nuen nahiago nuela dirua bideoklipetan gastatu, eta dagoeneko hiru argitaratu ditut. Ez dakit ondo egin dudanez, beharbada, hilabete batzuetara fisikoki ateratzea erabakiko dudanez. Kantuak aspalditik eginda nituen

eta ez nuen argitaratzea gehiago atzeratu gura.

Non entzun dezakegu *Madarikatuak* bilduma bikoitza?

Plataforma ezagun guztietan dago; esaterako, Apple eta Spotifyn, baita Youtuben ere.

Jendaurrean aurkezteko aukerarik izango duzu?

Ez ditut kontzertu asko lotu; lana argitaratu gura nuen lehenengo, jendeari entzuteko bidea eman, eta, ondoren, agenda lotzen hasi. Hilabete barru hasiko naiz Sertxen kontzertuekin; esaterako, Orozkon joko dut, eta, nola ez, badut Debagoienean aurkezteko asmoa ere. Eraso! taldearekin urtea bukatu bitartean kontzertu asko ditugu, baina bateragarriak dira bi proiektuak.

Eraso! taldera etorrita, zelan doaz agur-bira kontzertuak?

Oso ondo; egia esan, kontzertu askotan oso hunkituta. Jende asko etortzen da eskerrak ematera, eta denetik ikusi dugu, baita jendea negarrez ere. Uste dut denok ari garela hunkituta eta gogotsu Eraso!-ri agur duina ematen.

Arrasaten ere joko duzue.

Otsailaren 20an, Kooltur Osteunak ekimenaren baitan izango gara. Arrasaten jotzea berezia da guretzako; sei edo zazpi alditan jo izan dugu bertan. Ondoren, besteak beste, Oreretan eta Bilbon izango gara, eta azken kontzertua Tolosako Bonberenean izango da, abenduaren 27an, Eraso! Festa ospatuko dugu, taldeari betirako agur esateko.

"ASKO PENTSATUTA, FORMATU FISIKOAN ATERA BEHARREAN, BIDEOKLIPEN ALDEKO APUSTUA EGIN DUT"

Alba Lozanoren 'Utländsk' izan da Huhezinemako irabazlea

Zortzi sari banatu dituzte aurtengo jaialdian; izan ere, eman barik geratu dira Mundukide eta HAZI sariak

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Egubakoitzean Ana Goitiak aurkeztutako sari-banaketa ekitaldian zortzi sari banatu zituzten, MUko Ikus-entzunezko Fakultateak antolatutako Huhezinema euskarazko film laburren lehia-

ketan. Eman barik geratu ziren Mundukide eta HAZI sariak.

Aitor Oñederrak, Maitane Carballok eta Katty Pocheluk osatu dute aurten hamazortzigarren aldian izan duen ikus-entzunezkoen lehiaketako epai-

mahaia. 94 lan aurkeztu ziren, eta horietatik 29 proiektatu zituzten, Arkupe kultura etxean, eguaztenean hasi eta egubakoitza bitartean egin zuten Huhezinema jaialdian: hamahiru lan Bideoklip Sailean, zortzi film Ikasle Sailean eta beste zortzi ikus-entzunezko Sail Ofizialean. Hain justu ere, azken horiek proiektatu ostean, aretoan zeudenek izan zuten film bakoitzari buruzko xehetasun gehiago ezagutzeko aukera, aretoan ziren filmen egileen eskutik.



Hamazortzigarren Huhezinema jaialdiko irabazleak. IMANOL SORIANO



KANTARI



Bergara, Antzuola eta Elgeta 2025-01-25

Bergarako Mariaren Lagundia, San Martin Agirre eta Aranzadi ikastetxeetako eta Elgetako eta Antzuolako herri eskoletako ikasleek saioak grabatu zituzten Seminarixoan. Laster izango dira Goiena telebistan ikusgai. ARGAZKIAK: J. B.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasateko Garagartzza auzoa. Arrasateko Garagartzza auzoan etxea saltzan da. Etxeak sukalde-jangela bat, 4 komun, 4 logela, 2 balkoi eta terraza bat ditu. Txokoa, garajea eta sotoa ere baditu. 627 43 92 98

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Oñati. Pisu txiki edo apartamentu baten bila gabilzan Arrasateko bi heldu gara. Pertsona arduratsua gara eta lana daukagu. Ez dugu ez haurrik ez animaliarik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Arrasate. Alokairu bila gabilzan bi gazte gara. Lana daukagu. Ez haurrik eta ez animaliarik. 2 logela izatea gustatuko litzaziguke. Arrasaten eta Bergaran lan egiten dugu. 631 68 09 17

Bergara. Alokairu bila nabil Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltxan ari naiz lanean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87.

Debagoiena. Pisu txiki edo apartamentu baten bila nabilen pertsona arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 665 18 47 28

Oñati edo Aretxabaleta. Pisu bat alokatu nahi duen gazte oñatiarra naiz. Euskalduna, langilea eta arduratsua. 679 86 77 04 edo 609 48 65 12

Oñati. Oñatin pisu bila dabilen familia arduratsua naiz. Diru-sarrerak ditugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 99 67 42

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Arrasateko Kontzezio kalean garaje ibxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 83 07 82

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergarako Angiozar auzoa. Neska euskaldun baten bila gabilza, pertsona nagusi batzuen etxean garbiketa egiteko. Goizez, astean 4 orduz. Soziosanitario titulua eta kotxea izatea beharrezkoak dira. 655 73 10 54

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzeko presta dagoen emakumea. Soziosanitario titulua eta esperientzia dut, baita legezko agiriak ere. Astelehenerik ostiralerara 9:30etik 16:00etara bitartean lan egiteko aukera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 689 50 70 54

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Bergara. Bergarako neska gaztea goizetan haurrak zaintzeko edo ikastolara eramateko presta nago. Monitoretza titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 48 83

Bergara. Etxeko lanak, garbiketa edo pertsona nagusiak zaintzeko presta. Erabateko disonibilitatea dut. Legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 77 58 82

Debagoiena. Arrasaten bizi den 27 urteko gazte bat naiz. Asteburuetan edo astean zehar 15-20 orduko lanaldiko lan bila nabil. Esperientzia dut tabernetan, garbiketari, haurrekina... Interesatuok deitu telefono honetara: 662 47 28 88

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar gauzez lan egiteko nuke. Etxe zein ospitaletan. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko presta dagoen emakume esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 80 15 38

Debagoiena. Astelehenerik ostegunera goizez eta ostiral, larunbat eta igandetan egunean zehar lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua daukat. Pertsona zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko nitzuzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 624 09 84 65

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Arratsaldean lan egiteko nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 682 31 97 37

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko presta. Etxean bizi izaten zein orduka lan egiteko nuke. 642 37 01 92

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nitzuzke. Soziosanitario titulua dut. 672 55 67 35

Debagoiena. Emakumea pertsonak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbitzari lanak egiteko presta. Malgutasuna dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 49 05 35

Debagoiena. Emakumea, orduka, garbiketa lanak egiteko presta. Interesatuok deitu telefono honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Esperientzia duen pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke, baita ospitaletan txandaka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 58 27

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke, baita ospitaletan txandaka ere. Pertsona nagusiak zaindu edo paseatzera laguntzeko presta. Soziosanitario titulua eta esperientzia ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 56 62

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko presta dagoen emakumea. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 64 41 99

Debagoiena. Garbiketari egiteko edo eraikuntzan lan egiteko presta dagoen gizona. Malgutasun osoa. 671 25 12 09

Debagoiena. Garbiketari lanak egiten edo pertsonak zaintzen lan egiteko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 94 62 82

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta goimendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egiteko nuke. Astelehenerik osti-

ralera lan egiteko presta. 662 43 08 54

Debagoiena. Lan bila dabilen emakume heldua naiz. Edozein lan eta zerreginetara egokitu naiteke. Lan egiteko baimena daukat. 624 55 82 13

Debagoiena. Gidari-zerbitzuak eskaintzen baita garraiolari lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 17 89 88

Debagoiena. Lantegi batean peoi, argiketari, iturgin edo garbiketa lanetan aritzeko presta dagoen gizona. Esperientzia dut iturgintzan eta elektrizitatean. Deitu telefono honetara: 602 18 74 98

Debagoiena. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke. Legezko agiriak ditut. Deitu 662 02 45 80 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Ospitaletan zainketa lanak egiteko nitzuzke egunean zehar zein gauetan. Beste lan batzuetara egokitzeko gaitasuna. Orduka lan egiteko nuke. Soziosanitario titulua daukat. 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko nitzuzke. Bestelako lanak egiteko prestutasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 47 39 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu zein garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 10 52 18

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen gizonetara. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 643 65 28 27

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 87 78.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo paseatzera laguntzen lan egiteko nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka etxe zein ospitaletan. Esperientzia dut. Telefonoa: 614 11 43 60

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko nuke asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 91 39

Debagoiena. Pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egiteko presta dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 604 37 79 34

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasaten klase partikularak. Arrasaten, etxean bertan, Batxilergo lehenengo mailako ikasle bati klaseak emango dion pertsona bat behar dugu, batez ere ingeles eta matematika klaseak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 95 59 51

Bergara. Word-en erabileran espezializatutako pertsonaren batekin harremanetan jarri nahiko nuke, nire lanarekin lotutako zereginak egiteko laguntza jasotzeko. Eskertuko nuke, gainera, maketazioari buruzko ezagutzak izatea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

ZORION AGURRAK



ARRASATE

Izar Zubizarreta Velasco

Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak, izartxo! Egun earra pasau! Besarkada eta patxo erraldoiak familia guztiaren partetik.



OÑATI

Ekhi Erretolaza Agirre

Otsailaren 3an, 7 urte. Zorionak, Ekhi! Jarraitu orain arte bezala bizipozez eta beti jolasten! Familixako danok asko maitte zaittugu.



ARETXABAETA Haritz Salaberria Madinabeitia

Otsailaren 4an, 10 urte. Zorionak, artista! Laztan potolo bat etxeko danon partetik!

ARETXABAETA Ane Arejolaleiba Carrasco

Otsailaren 1an, 8 urte. Otxandio. Zorionak, etxeko preioxari! Eguna ondo-ondo pasatu eta musu haundi bat Atxabaltatik!



ARRASATE

Ibai Alonso Tena

Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasa zure egunian familia eta lagunekin! Asko maite zaitugu!



OÑATI

Jakes Aramendi Perez

Urtarrilaren 27an, 9 urte. Zorionak, Jakes! Jarraitu zaren modukoa izaten eta gure bizitzak alaitzen! Zorionek gu! Patxo 2 etxeko danon partetik! Muuuuuuaaaa.



BERGARA

Alaine Da Silva Moreno

Urtarrilaren 26an, 11 urte. Zorionak, maitia! Egun zoragarria euki deizula eta jarraitu holako jatorra izaten. Maite zaitzugu.

Korosti Inmobiliaria

Bergara:
Zubiaurre,
80m², 2 logela, miradorea,
igogailua, trastelekua.
150.000€,
negoziagarria

Bergara:
Irizar ibilbidea,
78m² erabilgarri,
3 logela, igogailua,
balkoia, trastelekua.
290.000€

Bergara:
San Antonabat,
75m², 2 logela,
bi aparkaleku,
txokoa, lasaia.
160.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenteke 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz zor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA



Mertxe Elkoroberezibar Odriozola 


2025eko urtarrilaren 26an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko, amama, eman diguzun guztiagatik. Elene eta Maialen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2025eko urtarrilaren 31n.

ESKER ONA

Antonio Urzelai Lizarralde 

2025eko urtarrilaren 26an hil zen, 83 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2025eko urtarrilaren 31n.

ESKER ONA

Miguel Diaz de Zerio Ruiz de Larrinaga 


2025eko urtarrilaren 27an hil zen, Iruñean, 80 urte zituela.


Haren emaztea: Elena Saiz Linaje; seme-alabak: Leire eta Igor Carrillo, Iñaki eta Ainara Llave, Imanol eta Ana Belen Domingo; bilobak: Amaia, Ibai, Mikel eta Aingeru; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 31n.

URTEURRENA



Pedro Barrena Otxoa 

2024ko urtarrilaren 3an hil zen, 92 urte zituela.

Haren oroimenezko urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parroki-elizan.

Aldez aurretik, mila esker etorriko zaretenoi. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 31n.

URTEURRENA



Maritxu Arkauz Urzelai 

2024ko urtarrilaren 27an hil zen, 90 urte zituela.

Haren oroimenezko urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parroki-elizan.

Aldez aurretik, mila esker etorriko zaretenoi. Oñatin, 2025eko urtarrilaren 31n.

MEZA



Ines Lizarralde Ayestaran 

Javier Zulueta 'Chicha'-ren alarguna

2025eko urtarrilaren 19an hil zen, 84 urte zituela.

Ondra-meza zapatuan izango da, otsailaren 1ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2025eko urtarrilaren 31n.

ESKELA

Marcelino Segovia Dominguez 

2025eko urtarrilaren 30ean hil zen, 77 urte zituela.

Familiak dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi ditu.

Familiak Arrasate Berria beilatokian hartuko zaituzte, gaur, ostirala, 17:00etatik 19:30era bitartean.

Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 31n

ESKELA



Maria Teresa Lazcano Retana 

Faustino Legazpiaren alarguna

2025eko urtarrilaren 29an hil zen, 92 urte zituela.

Seme alabak: Karmele, Yolanda eta Francisco Javier Argote; bilobak: Maitte, Irati, Enara; anai arrebak: Jose Juan, Jose Mari (†), Txaro (†); ilobak: Arturo, Gotzon Beitia, Mari Carmen Bonilla, Isabel Garzon eta gainerako ahaideak, dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertzen dituzte.

Hileta elizkizuna gaur egingo da, ostirala, 19:00etan, Eskoriatzako Pedro Donea parrokan.

Eskerrik asko alde z aurretik.

Familiak Arexabaletako beilatokian hartuko zaituzte, gaur, ostirala, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Eskoriatzan, 2025eko urtarrilaren 31n.

Oroilore BABESLEA

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtuak guztiak euren bidean aurkitzen lagundu dugu, orain arte bezala, eta guztiak zango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gogor izan dituzten laguntzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, eta Maribei

617 44 21 55

BERGARA • ANIZUOLA • Meza OSATI



BERRI-ZAKUA

1956an jaiotakoen bazkaria
1956an Bergaran jaiotakoek bazkaria egin zuten zapatuan, urtarrilaren 25ean, Bergarako Zumelaga jatetxean. 33 lagun elkartu ziren, eta ederto ibili ziren lagun arteko otorduan.



JAIOBERRIAK



Itzalle Ibabe Velasco
3.200 kilo.
Urtarrilaren 26an. Gurasoak: Maitane eta Unai. Argazkian, Itzalle txikia, lo.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK 30 URTE**

2023ko abenduaren 10ean bete zituen hiru hamarkada, eta askotariko ahotsak batu dituzte dokumental batean.

'Bereziak' Egubakoitza, 20:00 eta 22:00

**ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK**

Emakumezkoen saskibaloia eta eskubaloia eta gizonezkoen futbola izango ditu berba Xabi Urzelaik.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**IRATXE ETXEBARRIARI ELKARRIZKETA**

Burnout prozesuetan espezializatutako entrenatzaile emozionalarekin egingo du berba Amaia Uribe.

'Elkarrizketa'

Martitzena, 20:00 eta 22:00

**SERTX MUSIKARIAREKIN BERBETAN**

Madarikatua bilduma bikoitza argitaratu berri du musikari zarauztarrak. Bakarleri formatuan egiten duen hirugarrena.

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 14:30, 19:30 eta 21:30.

**ADINKERIA HIZPIDE**

Gizadiberritako programako kide Ainara Arregirekin egingo du berba Goiatz Aranek. Adinkeriaren gainekoak azalduko ditu.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00.



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 31**OÑATI Memoria tailerra**

Adineko pertsonendako.

Eltzian, 17:00etan.

OÑATI 'Talde-antolaketa horizontala: soziokrazia eta beste eredu batzuk' hitzaldia

Aise Kooperatibako kide Ana Perezek eta Garoa Gartzandiak egingo dute berba, Emakumion Etxian Eraikitzen prozesuan.

Eltzian, 18:00etan.

ARRASATE Dantzaldia

Irekia, dantzazale guztiendako, Portaloi Elkartearen eskutik.

Kulturolan, 18:30ean.

ARAMAIO 'Vidas irrenovables' dokumentala

Dokumentalaren zuzendari Francisco J. Vaquero bertan egongo da, Aramaio Bizirik taldeak gonbidatuta.

Kultura etxean, 18:30ean.

ELGETA Pentsiodunen sinadura-bilketa

Herri Ekimen Legegilea babesteko.

Ozkarbi elkartearen aurrean, 19:00etan.

ELGETA 'Kantu berri bat gara' emanaldia

Jon Maiaren kontzertua. Sarrerak, 16,5 euro.

Espaloian, 22:00etan.

OÑATI 'Okalimotxo' jolasa

Tabernako barra 20:00etatik aurrera egongo da zabalik.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 1**BERGARA San Blas Txiki Eguna**

08:00etan, etxafuegoak; 11:00etan, salda, auzoko elkarteak; 12:00etan, Moises Azpiagu dantza taldea; 16:00etan, mus txapelketa; eta 21:00etan, afaria.

Buruñao auzoan.

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko diren Oñatiko Inauterietako prestatzeko.

Eltzian, 12:00etan.

ARETXABALETA Mozorroen bigarren eskuko azoka

Aurtengo Aratusteei begira, bigarren eskuko mozorroen eta osagarriak erosteko aukera.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA 'Moko' antzezlan

Gorakada taldearen eskutik, 6 urtetik gorako haurrendako. Sarrerak, lau euro.

Seminarioan, 18:00etan.

ARRASATE Punteria-jolasak

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Ondare, Growing, Lehia eta Los Dar2 taldeak

Arrasate, Gasteiz eta Langraiz Okako taldeak egongo dira oholtza gainean.

Gaztetxean, 21:00etan.

BERGARA Mikosis eta Hiuzz taldeak

Post-punk eta rock alternatibo doinuak. Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrean, 22:00etan.

DOMEKA 2**BERGARA Bergarako Neska Eskalatzailen I. Topaketa**

10:00ean, elkartu; 10:30ean, eskalatzaren hasi; eta 13:30ean, luntxa.

Labegaraietan.

ELGETA Bisita gidatua**lubakietara**

Izena ematea beharrezkoa da: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ANTZUOLA Binakako pilota txapelketa

Ados Pilotaren eskutik. Tartean egongo dira Leire Galeano eta Olatz Insausti antzuolarrak.

Pilotalekuan, 11:30ean.

ELGETA Pentsiodunen sinadura bilketa

Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadurak jasoko dituzte.

Ozkarbi elkartearen aurrean, 12:00etan.

OÑATI Esanezin bakarlarria

Ianire Aranzaberen bakarkako proiektua ezagutzeko aukera.

Sarrerak, zortzi euro.

Gaztelekuan, 12:30ean.

ESKORIATZA Euskal Herriko XVI. Mus Txapelketa

Kanporaketa jokatu da.

Inkernu tabernan, 16:00etan.

ARRASATE 3D puzzleak eta buru-hausgarriak

Ekintzaren helburua da bakardadeari aurre egitea, harremanak sustatzea eta lotura sozial berriak bultzatzea.

Musakolako Erretiratuen Etxean, 17:00etan.

ARRASATE Aratustek presatzeko batzar irekia

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA '¿Cuántos años tiene amama?' antzezlan

Oñatiko Ikusi Makusi taldearen eskutik. Pertsonen irudi fisikoa ez dela garrantzitsua eta zahartzarora iristea bizi esperientzia eta jakinduriaren ezaugarriak direla adieraziko dute lanean.

Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Arizona' antzezlan

Herrialdeen eta gizakien arteko inkomunikazioaren gainean hausnartzea duen lana, Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreekin.

Sarrerak, hamar euro.

Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 3**BERGARA San Blas Eguna**

08:00etan, etxafuegoak; eta 11:00etan, meza nagusia eta opilen bedeinkatzea.

Buruñao auzoan.

ARRASATE 'Umorea gauza serioa da!' hitzaldia

Umorearen inguruko ikuspegi panoramikoa eskainiko du Kike Amonarrirek, Goienagusik gonbidatuta.

Kulturaten, 10:00etan.



TXALO

ARETXABALETA San Blas eguna 10:30ean, meza; eta ostean, etxetik eramandako jakien bedeinkapena. *Apotzaga-Etxebarri auzoko ermitan.*

ARETXABALETA Pentsiodunen sinadura bilketa Herri Ekimen Legegilea babesteko elkarretaratzea eta sinadura bilketa. *Herriko Plazan, 11:30ean.*

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea Antzuolan, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran egingo dute. *Herri horietan, 12:00etan.*

OÑATI Idazketa tailerra Jose Mari Iturralde idazlearekin. *Liburutegian, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Txino dantza: 50 urte' erakusketa Loramendi txistulari taldearen eskutik. Otsail bukaerara arte egongo da ikusgai. *Arkupan, 18:00etan.*

MARTITZENA 4

ARETXABALETA Santa Ageda bezpera 2006an jaiotako kintoek auzorik auzo eta baserriz baserri jardungo dute koplak abesten eta eskean. *Auzoetan, 07:00etan.*

OÑATI Aloña abesbatzaren kalejira Kopla kantari irtengo dira, Santa Ageda bezpera ospatzeko. *San Martin egoitzan hasita, 11:00etan.*

BERGARA San Xosepe elkarteko korua Santa Ageda bezpera ospatzeko. *San Martin plazatik, 12:00etan.*

ARETXABALETA Aretxabaleta abesbatzaren kalejira Kopla kantari irtengo dira, Santa Ageda bezpera ospatzeko. *Herriko Plazatik, 18:00etan.*

BERGARA Alaiberri taldearen kalejira Santa Ageda bezpera ospatzeko. *Mizpirualdetik, 18:00etan.*

ARRASATE 'Arizona' antzezlanaren Herrialdeen (Mexiko eta AEB) eta gizakien arteko inkomunikazioaren gainean hausnartzen duen lana, Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Amaia antzomian, 19:30ean.*

ARRASATE 'Aurretiazko dolua' solasaldia Iñaki Olalde eta Maite Urzainek egingo dute berba, Amaidolua elkarteak gonbidatuta. *Kulturaten, 18:00etan.*

ANTZUOLA Santa Ageda eskea Anelkar Elkartasun Taldeak antolatuta, Alborada txistulari taldearekin eta abesbatzarekin. *Herriko Plazan, 18:00etan.*

ARETXABALETA Basotxoko kantu taldea Santa Ageda bezpera ospatzeko. *Ilargi plazan, 18:30ean.*

OÑATI Inauterietako entsegua Martxoaren 1ean ospatuko diren Oñatiko Inauteriak prestatzeko. *Eltzian, 19:00etan.*

BERGARA Kantu-jira herrikoia Santa Ageda bezpera ospatzeko, Jardunen eskutik. *San Martin plazan, 19:00etan.*

ARRASATE 'La luz que imaginamos' pelikula Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUAZTENA 5

ARETXABALETA Santa Ageda Eguna 2006an jaiotako kintoak kalerik kale ibiliko dira, Santa Ageda koplak kantuan eta eskean. *Herriko kaleetan, 09:00etan.*

ARRASATE 'Zein da zure talentu-estrategia? Esperientziak enpresetan talentua erakarriz eta garatuz' jardunaldia Vesper Solutions enpresako Teresa Aranguren egingo du berba, Talentuaren Kudeaketaren Berrikuntzarako topagunean. *Garaian, 09:00etan.*

BERGARA 'Análisis de la película 'Barbie' hitzaldia Pedro Saldaña adituak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

ARRASATE Bizipen tailerra Itziar Rosadoren eskutik, 2-6 urte arteko seme-alabak dituztenentzako. *Arizmendi Ikastolako Olarte gunean, 17:00etan.*

OÑATI Lokarri bedeinkatuak eta pintxo-pote berezia Lagun Leku erretiratuen elkartearen eskutik. Lokarriak bederatzigarren egunean erre behar dira. *Eltzian, 17:30ean.*

ARAMAIO Energia-komunitateei buruzko jardunaldia Inguruko herrietan martxan dauden energia-komunitateen esperientziak ezagutzeko mahai-ingurua. *Osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.*

ARAMAIO Martxoaren 8a antolatzeko bilera Irekia, herritar guztiendako. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenak Oxirondon Baserritarren azoka eta sukaldaritza zuzenean, Erikaeneak gidatuta. *Azokan, 18:00etan.*

OÑATI Euskaraldiaren bilera irekia Irekia, interesa duten herritar guztiendako. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE 'Nerabezaroa, erronka bat norentzat?' tailerra Agipad elkartearen eskutik, 12-16 urte arteko seme-alabak dituztenentzako. *Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia Santiago Lorenzoren *Los asquerosos* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak 2007an jaiotakoekin. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

BERGARA San Blas ermitako anaitzearen batzarra Auzotarrendako. *Ermitan, 19:00etan.*

BERGARA 'La casa' pelikula Zineklubean eta jatorrizko bertsioan. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 6

ESKORIATZA Literatura solasaldia Yaa Gyasiren *Volver a casa* liburuaren gaineko saioa, Monica Leuvak gidatuta. *Bibliotekan, 18:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Marte Lasarte Pello Armendarizen eta Borja Antonen proiektu berria. Oraingoan, laukote formatuan: Alex Alonso eta Lore Nekane Billelabeitia gehitu dira taldera. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Sin instrucciones

Zapatua eta astelehena: 19:30.

Flow, un mundo que salvar

Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Las vidas de Sing Sing

Domeka eta astelehena: 19:30.

Mufasa

Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Las vidas de Sing Sing

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

Norbert

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Conclave

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Robotia

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

A different man

Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:15.

Domeka: 19:45, 22:15.

Astelehena, eguaztena eta

eguna: 17:00, 19:30.

Martitzena: 17:00.

Conclave

Egubakoitza eta zapatua: 19:15,

22:15.

Domeka: 20:30.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

Emilia Perez

Egubakoitzetik domekara: 19:30.

Astelehena, eguaztena eta

eguna: 19:45.

Flow, un mundo que salvar

Egubakoitza eta zapatua: 16:30,

19:00.

Domeka: 12:00, 16:30.

Astelehenetik eguenera: 20:30.

Itoiz, udako sesioak

Egubakoitza eta zapatua: 18:30.

Domeka: 12:00, 18:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

La acompañante

Egubakoitza eta zapatua: 17:00,

19:15, 21:30.

Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

Astelehena, eguaztena eta

eguna: 17:00, 19:30.

Martitzena: 16:30, 19:30.

La semilla de la higuera sagrada

Egubakoitza eta zapatua: 16:30,

21:45.

Domekatik eguenera: 16:30.

Mikaela

Egubakoitza eta zapatua: 16:30,

18:30, 20:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:00, 21:00.

Astelehena, eguaztena eta

eguna: 16:30, 20:30.

Martitzena: 16:30, 19:30.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Hizkuntza

Zientziak, teknologiak, adimen artifizialak... gure bizitzak kolonizatzen dituen garaiotan, ustez, behintzat, inoiz baino adimentsuagoak garen honetan, iruditzen zait humanitateen eta, konkretuki, hizkuntzaren zaintzarako aldarrria egitea ezinbestekoa dela; izan ere, hizkuntza da gizakiok dugun tresna indartsuenetako bat. Ideiak eta emozioak transmititzeaz gain, gure errealitatea ere moldatzen baitugu hitzen bidez.

Gizateriaren aurrerabide zoro honetan nekez izaten dugu astirik atzera begiratzeko, baina, nire ustez, behintzat, bide egokian goazen jakiteko atzera begiratzeko ere ezinbestekoa da; hor izaten baitira jakintza-iturri aberatsenak. Esaterako, hor ditugu Konfuzioren hitzak: "Hitzak bihotzaren ahotsa dira", adierazten dugunaren eta sentitzen dugunaren arteko lotura sakona nabarmentzen dutenak. Hizkuntza, beraz, komunikazio-bide bat ez ezik, gure esentziaren eta pertsonen arteko harremanen luzapena ere bada. Maisuaren hitzekin jarraituz: "Hizkuntza zuzena ez bada, esandakoa ez da esan nahi dena; esaten dena ez bada esan nahi dena, egin beharrekoa egin gabe geratzen da. Hau egin gabe geratzen bada, moralak eta arteak okerrera egingo dute...".

GAZTE GARA GAZTE

"Hanburgesa izan daiteke goi-mailako sukaldaritzaren isla"

LEIRE PEREZ MORENO

ELIKAGAIEN ZIENTZIEN MASTERREKO IKASLEA

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Basque Culinary Center-en ikasi zuen Leire Perezek (Arrasate, 2001), baina, sukaldari baino gehiago, laborategi batean janiariak aztertzen irudikatzen du haren burua etorkizuneari; izan ere, Elikagaien Zientzien masterreko ikaslea da egun. Laguntzat koizatzea ere gustuko du, baina, beti ere, lagunak alboan dituela, laguntzen edo trago bat hartzen.

Donostian ikasi zenuen; zer jaten da Sukaldaritzan ikasle baten ikasle-pisuan?

Ikasleen soldata ez da altua; horrenbestez, bizirik irauteko adina prestatzen genuen. Hainbat tokitakoak ginen, eta jateko ohitura ezberdinak genituen. Ospakizun berezietan, baina, lau *chef* elkartzen ginenean, gauza kuriosoak egiten genituen; euskaldun-korear eta euskaldun-amerikar afariak, esate baterako.

Sukaldaritzan afizioz ala ofizioz duzu gustuko?

Afizioz, betidanik. Sukaldaritzan ofizioa oso zaila da; denbora luzea eta indar handia behar da. Kontuan izan nuen hori, baina sukalde batean lanean hasi arte ez zara ohartzen estres

eta adrenalina hori egunero bizitzea zer den.

Lagunekin bazkari bat egin behar-ko bazenu, zuk ala beste batek koizatzea duzu nahiago?

Gehienetan, nik koizatzen dut, baina ondo dago jendea sukaldara laguntzera etortzea; patatak zuritzera bada ere. Gustatzen zait denok sukaldean egotea hitz egiten eta trago bat hartzen. Sukaldaria sukaldean sartuta eta gaintzekoak kanpoan egonez gero, xarma galtzen du, badirudielako eurentzako lanean ari zarela.

Gaur egun, modan daude ezohiko osagaiekin egindako hanburgesak; sukaldaritzan berritzailea ala hondatzailea da?

Kontu horrekin sartzeko gara moden munduan. Sukalde modernoetan betidanik jolastu izan da zaporeekin eta testuekin, eta *jolas* hori *street food* mundura sartu da orain. Arraro samarra eman dezake, baina, era berean, bada bezeroak eskatzen duen zerbait. *Pantera Rosa* duen hanburgesa modan jarri eta jendeari gustatu egiten bazaio... Ulertzen dut jendea harriztea, baina, era berean, iruditzen zait izan daitekeela goi-mailako sukaldaritzaren isla, betidanik egin den zerbait da eta.



Leire Perez Moreno arrasatearra, Donostiako Basque Culinary Centerren. L.P.M.

MOTZEAN

Koizatzeke zailena?

Ezer ez da zaila.

Janari gustukoena?

Etxekoa den guztia.

Sekula jango ez zenukeena?

Denetik jango nuke.

Gastronomia-mota bat?

Asiakoa.

Haragiaren puntua?

Oso gutxi eginda.

Etsaiari zer plater?

Zapore bako edozer.

Mendia gustuko duzu; zer janari ez litzateke faltako ibilaldi batean?

Betikoa: ogitartekoa eta fondan salda beroa edo txorizo egosia beti dira erakargarriak. Kirola egin ostean, fruta freskoa edo txokolatea jango nuke.

Non irudikatzen duzu zeure burua etorkizuneari?

Gradua bukatu baino lehen banekien ez nuela sukaldari izan nahi; ez nago halako ofizio batean lan egiteko prest. Zientziaren arloan mundu berri bat ezagutu nuen; eta etorkizuna bertan irudikatzen dut.

'LORAMENDI: 30 URTEKO IBILBIDEA'

URTARRILAREN 31N, EGUBAKOITZA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN
ARETXABALETAKO LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAREN GAINEKO
ERREPORTAJEA, HAREN 30. URTEURRENEAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

